



• AMOROTO •

AVGVSTIN. ZVBIKARA



JVAN F. EGVIGVREN

• BIZABVAVAGA •

PAVIL

AMOROTO
eta
GIZABURUAGA

Augustin Zubikarai
Juan Fernandez Egiguren
1988

Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz

Augustin Zubikarai Juan Fernandez

Legerako gordetza BI - 288 - 88

Irarkola: Flash Composition, S.A.

Azala: Paulin Zubikarai

Argazkiak: J. Fernandez Eiguren.

AMOROTO

AMOROTO'RI

Amoroto'ri egin nai deusat
erakutsi bat garbia,
erri guztia ezagutzen dot
ez da arraza nagia,
oitura zarrak zaintzen dituen
jende jator ta argia,
mendi tarteko pitxi bat zara
ta euskeraren kabia.

Milla bederatzireun eta
berrogei ta amarrian
lenengoz plazan kantatu neban
Amoroto'ko errian,
Ekainillaren ogei ta bata
San Luis'en jai ederrian,
Udal etxeko ikuspegitik
lengo oitura zaarrian.

Tontorka baten gañean dago
mendi tantaien onduan,
San Martin jaiak dira udaran
Santa Barbara neguan,
eguna lasai pasatzekotan
batek nai daben moduan
mundu ontako paradisua
ba dakigu nun dagan.

Juan AZPILLAGA



DEITURA

Euskaldunok ardura bizia eukiten dogu gure errien eta eleizaldien izenak zer esan maiko leuken beste izkuntza baten jakiteko, gaien bat gure inguruko gazteleran.

Onetan ez giñake asko arduratu bear.

Erriaren nortasuna, izena, deitura, gurea dar Bestera jokatzea eta arduratzea lotuera baten billa ibiltea lez da.

Errien izenak, batzutan, argi agertzen dira; bestetan biurri, denpo-retan okertu eta nastautu.

Orren akatsa, askotan, ez da gurea, sarri esan eta autortua dan lez euki doguzan eskribadueña baiño.

Jakiña da euskaldunok gure aozko literatura bat euki dogula; ez orraitik idatzirik, gure egunak arte. Eta jakiña da, baita, lengo eskribaduak, geienak, ez zirala euskaldunak izaten, eta euskaldunak ba ziran be gazterlaeraz ikasiak eta gaztelerara moldatuak. Ortik sortzen ziran nasteak izenak paperetara eta agrietara eroateanr Ortik baserri baten izena errotze batetik bestera aldatzeak eta okertzeak.

Ori garbi ikusten da, gizaldi eta belaunaldi baten barruan be, etxeen zerrendak egin eta idaztean igarten diran aldaketetan.

Baiña ori gerorako itxita, zer da Amoroto izena? Zer esan gura dau gure eleizalde onen deiturak? Emoten ete dautso deiturak inguru oneri gure tokiaren lekutzeak, edo egoerak, edo bertako emaitzak emon leiken ezaupiderik?

Isaak Lopez Mendizabal'ek, bere "Etimología de Apellidos Vascos" liburuan au diño:

Amoroto = Pastizal II Carrascal. Variante de Amorrortu.

Amorrortu ikustera gonbidatzen gaitu. Eta deitura orretan au esaten dau:

Amorrortu, variante de Amoroto. Carrascal. De abar, amor y los subfijos tu-to.

Jakintza onetan jarduten daben besteen esanetan be, Amoroto, erderazko carrasca) esan naiean lagaten da.

Eta Amoredo?

Zergaitik itaun au?

Juan Ramon Iturriza kondaira idazleak, bere "Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones" en, eleizalde au, antxiña, Amoredo deitzen zala diño:

"Titulada en la antigüedad Amoredo" dira bere berbak.

Guk ez daukagu orren ziu rtasunik, eta gertatu lei, len esan dogun lez, antxiñako eskribaduen biurrikeri bat orrelako deitura emotea.

Ori orrela, ikusi eta aztertu daigun eleizalde txukun au: Amoroto.



LEKUTZEA

Amoroto'ko Eleizaldera joateko, errepide bakarra dago. Plazakola'tik Lekeitio'ra duan bidean, Oleta baño len, ezker aldean gorantza asten dan bidea artu ta bertaraño igo.

Gaur ba dagoz beste mendi edo baso bideak, Gizaburuaga'tik Abaro'tik zear bertara joaten danaren antzerakoak, baiña kotxe txikiak bakarrik eta eurak, batzutan, estu ibiltekoak.

Gradutako egoera: Gradutako sailkapenean onela lekutzen da:

1.º 10'25"luzeran, Sorkaldera.

43.º 19'40"zabaleran, Iparraldera.

Inguruetakoko errialdeak: Amoroto inguratu eta beragaz muga dauken erri eta eleizaldeak oneki dira:

Sorkalde eta Egoaldean: Berriatua eta Markina-Xemein.

Ipar eta Sarkaldean: Mendexa, Gizaburuaga, Ipazter eta Murelaga.

Inguruaren neurria: 13,07 kilometro lautu daukaz.

Urak: Lea ibaia oiñak garbitzen lez igaroten da Amoroto'ren be aldetik zear. Beste alderdian Zulueta erreka eta onen laguntzaille Izaltxo eta Castillo.

Komunikabideak: Urrutizkiñak: 24. Baserrietara laster eroango diran itxaropena dago, eskabide ugari egiten diralako ortaz, baiña gaur-gaurkoz kostuak atzeratzen dauz.

Ogibidea: Basoak.

Kartoiak (Erabil)

Altzariak (Burdinola)

Egurak eta ortuariak.

Jatetxeak

Izkuntza: Euskera, Bizkaiera, Markinaaldean erabilten dana.

AUZOAK

Amoroto lau auzotan banatuten da:

ELEXALDE:

Izenak diñon lez eleiz inguruan lekutua.

Bertan Udaletxea,

Parrokia

Ermita bat, Mikel goi-aingeruarena.

Zazpi etxe

23 baserri.
Ikastola.
Errota bat,
Jolaslekua
eta lantegi bat, arrain gazituena.

ODIAGA:

Lurrez auzorik zabal eta andiena.
Ermita bat, santa Barbara'ren izeneko.
31 baserri, eurretatik 13 utsik.

URRUTIA-ERKIETA

15 baserri,
2 etxe,
lantegi bat,
errota bat.

UGARAN-OLETA

11 baserri.
5 errota.
lantegi bat.
Ikastola bat.
8 etxe (iru jatetxeak)



ERRIKO PLAZA

URTEETAKO AURRE-KONTUA

Udaleko aurre-kontuak, ez dautse bizitasun andirik emoten Amoro'to'ri, erri maillan serbitsuak euki eta nasaitasunez jokatzeko. Baiña aurre-kontu zuzenetik barik, alderdika sortu eta elduten diran sarrereieker, gaur Amoroto'k ja baserri guztietarako bideak itxuratuta daukaz, eta azken urteotan egon dan Foru-Plangintzako laguntzekaz bere serbitsu eta preminak ornitzen joan da.

Bestela, urteotako aurre kontu oiak, garrantzi gitxikoak dira. Orrela, azken ogei urteetan onela zeaztu leikez urtekoak:

1950 urtean	26.844 peseta.
1960 urtean	80.000 peseta.
1970 urtean	256.046 peseta.
1980 urtean	1.321.000 peseta.
1987 urtean	24.000.600 peseta.

BIZI-LAGUNAK

Gure gizaldian, beratzen jgarlen da Amoroto bizi-lagunetan. Gizaldiaren asieran, 1900 urtean 716 lagun bizi ziran bertan.

1920 urtean	647
1940 urtean	683
1950 urtean	653
1960 urtean	590
1970 urtean	549
1981 urtean	425
1986 urtean	410

AMOROTO'REN ERAKUNDEA

Erri txikia danetik, neurri txiki eta famili erako baserri edo nekazal baliatzeak daukaz. Orrela erriéarteko productoa eta errentagarritasunaren tasa, txikiak dira.

Udalerriko batez-besteko sarrera, renta per cápita deitzen dana, beste errien batez- bestekoaren ja erdian geratzen da edo alaxe neurtuten da.

Orrela irugarren sektore edo baserri lanak bideratzeko gai bakarrik gertaten da.

ERRITARREN ZEREGIÑA

1985 urteko estadistiketetan onela banatzen zan Amoroto'n bizi ziran langille eta zereginunen sailla:

Guztira 148.

Euren artetik, sailkapena onela:

Teknikoak

Irakasleak	1
Ardulariak, amministratiboak	4
Merkataritza eta ostalaritza jaube edo zuzendariak	6
Ostatuetako eta etxeetako serbitsari.	27
Nekazaritza eta abel-zaintzan	45
Lantegi zuzendari, maisuak	1
Sidero Metalurgi langilleak	3
Papergintzakoak	10
Kimika-plastika gaietakoak	1
Mekanikariak	4
Elektra saillekoak	3
Forjaketa saillekoak	14
Arte grafiketakoak	2
Pioiak	11
Itxas merkatalgintzan	2
Karga-deskarga, burdi gidari...	13.

LANA ETA LANIK EZA AMOROTO'N

Denporaldi bardiñean 2 lagun egozan lanik bakoen zerrendan, len nunbaiten lan egin ebenen artekoetan.

Era onetan sailkatzen ziran:

Ostatutako serbitsuetakoak	2.
Nekazaritzako langilleak	1
Sidero metalurgikoak	2
Forjaketakoak	3
Papergintzakoak	8
P oiak	4
Itxas merkataritzakoak	1
Karga-deskarga eta txoferrak	2

ERRI .OSAGARRIAK

Erri kultura, gizabide, kirol, ongintza, osakidetza eta bestelako serbitsuetan, Amoroto'n onelakoak dagoz:

Eskoletxeak	2
Eleiza ta ermitak	3
Kirol tokiak	2
Zamar batze	1
Komunak	1
Korreok	1
Kanpo santua	1
Udal etxea	1.

Baiña beste serbitsu batzuk falta dira.

Esateko:

Botika. Lekeitio'ra jo bear.

Osagillea. Mendexa eta Amoroto'rako bat dago eta Mendexa'n bizi da.

Zarren egoitza.

Zar sarituen egoitza.

Umeen gordelekua.

Anbulantzia.— (Lekeitio edo Markiña'ra deitzen da).

Liburutegia.

Su amatatzailleak. (Ingurukorik urrena Markiña'n.)

Telegrafoa. (Ingurukorik aukerakoena, Lekeitio'n.)

Arategia. Ez dago eleizatean okela saltzeko dendarik.

Erri-zaintza

JOLAS TOKIA


Bizkai'ko beste erri txikien antzera, Amoroto'k bere jolas leku eder bat gertuteko alegiña egin dau azken urteetan.

Ala erri gitxik dauken antzeko pelota toki, proba leku eta jolastokia baterako aterpe eder eta andi baten barruan egiñak daukaz, gaur, uda nai negu, edozelako jai, kantaldi, bertso-jardun, dantza, proba, pelota partidu nai beste jokoak eratuteko aukeran.

Izen berezirik ez dautse ipini. Baiña lekua or dago, etxe guztien gain-gaiñean, Amoroto'ko bizilagunen atsegin toki eta batzar leku lez.

Jolas tokia, guztira, 23.593.000 peseta kostatu zan. 1982 urtean amaitu zan eta 1983 urteko asieran zabaldu zan.





INGURUKO ZAMARTEGIA

Gaur, errien buruauste eta erabagiten gaitz dan auzietako bat, errietako zamartegia da.

Zamartegien kutsadurak kezkatu egiten dauz erri asko.

Lea-Artibai'ko errientzako zamartegi edo zabortegia egiterakoan, eta premiñaren betetzeko lekua zeaztutean, Amoroto inguruan billatu zan leku egoki bat. Erri buru eta auzoetatik urrun, inguruko erri etxetatik be alboratuta, bide nausietako kalte barik.

Eta leku ori Milloi'tik Oleta'ra duan bide nagusian, Atxurra'ko koba zuloen aurretxoan, baso bide bat artu eta lkan baserrietatik aurrera, mendi sakonera joanaz, aukeratu zan.

Amoroto'k bere baietza emon eban, bertan erriko langille batzuk ogibidea atarateko aukera begiratuaz.

Bizkai'ko Aldundiaren konturako da zamartegi ori, zabor zulo ori, eta tekniku eta gaituen esan eta egiaztapenetan, neurri guztiak artuko dira ezelako kutsadurarik bertatik sortu ez dedin.

Baiña liburu au idaztean ba dagoz ekologi-zaleen asarreak eta oneik kezkatuta erri batzuen zalantzak eta ezetzak, zamartegi ori amaitzean erabilten asteko.

Asiera baten Ondarroa, Lekeitio eta Markiña'ko uriak eta inguruko eleizateen serbitsurako gertu da.




UR-GOZOA
ITURRIA
AMOROTOARREN
EGARRI KENTZALLIA.

ORDUARIA

1900 urte arte Amoroto'k ez eban erri orduaririk euki.

Urte orretan ipini zan. Gazteiz'ko Murua etxeak egiña da, mekani-koa, landua, tren biduna eta oskintza. Bere neurriak 133 x 55 x 121 dira.



KUÍUTZAK

Euskalerria kurutze zale da.

Nun nai ikusten dira ertiz betetako kurutzak. Amoroto'n, kurutze egilleak, ziurretik bertako argiñak, kurutzeko garbitasuna erakutsi nai izan eban, edo ta sendotasuna.

Orra, lekuko, 1835 urtean ipinitako kurutze sendo eta benetan kurutze astuna.





ERRI-JOKABIDEZ

Amoroto beti izan da Bizkai lurraldeko eleizate, eleizaldea. (Anteiglesia).

Bizkai'ko Lur-Laua deitzen danekoa.

Lengo gizaldietan, beti Busturialde deiturako merindadean sartzen zan.

Busturialde merindadea eleizalde oneik osotuten eben:

- | | |
|----------------------|------------------------|
| 1.— Mundaka. | 14.— Gaategiz Arteaga. |
| 2.— Sukarrieta. | 15.— Kortezubi. |
| 3.— Axpe-Busturia. | 16.— Natxitua. |
| 4.— Murueta. | 17.— Ispaster. |
| 5.— Forua. | 18.— Bedarona. |
| 6.— Lumo. | 19.— Murelaga. |
| 7.— Muxika (Ugarte). | 20.— Nabarniz. |
| 8.— Libano Arrieta. | 21.— Gizaburuaga. |
| 9.— Mendata. | 22.— Amoroto. |
| 10.— Arratzua. | 23.— Mendexa. |
| 11.— Ajangiz. | 24.— Berriatua. |
| 12.— Ereño. | 25.— Zenarruza. |
| 13.— Ibarrangelua. | 26.— Arbazegi. |

Orrela, merindadeen artean eukan erreskadan, au da, ogeitabigarren deitzen eutsen Gernika'ko Batzarretan, eta ainbesteko jarrilekua izaten zan berea.

Aide Nagusien denporetan, Jauntxoen denporak deitzen ziraneé tan, au da, Oñaztar eta Ganboatarren aldietan, Ganboatarren aldetik jokatzen eban.

Gaur, Euskadi'ko autonomi lurraldearen barruan, Lurralde jatorrez, Bizkaia da.

Merindadez, Busturialde. Baiña ez dauka Gemika'ko batzarretarako antxiña lez ordelari zuzenik, auteskundeetan Busturialde osotasunean aukeratzen diranetakoa ezik.

Errialde lez, Lea-Artibai'ko alkartasunean dago.

Auzietarako: Gernika.

Udal ardurarako, alkate bat eta sei ziñegotzi (kontzejal) oraingo legean lau urtetik bein aukeratzen diranak.



AMOROTO ETA OIÑE^M XEAK

Oiñetxea deitzen dautsagu erderazko "casas solariegas" diralako. Au da, jatorrizko etxeei.

Ainbat aurkitzen dira Amoroto'n.

Jakingarri bat: Deitura edo izen bat emen agertzeak, Agirre esate baterako, edo Ibarra, edo besteren bat, ez dau esan nai oiñetxe ori Amoroto'n bakarrik dagoanik. Beti ez, baiña gertaten da, izen berberak beste errialdetan be bere oiñetxea eukitea.

Origaitik jatorriak billatzen astean komeni izaten da nundik datorren ikastea, bere jatorria ziur jakiteko. Adibiderako, gertaera zeatz bat: AMOROTO etxeak eta abizenak, esate baterako, ez dauke oiñetxerik Amoroto'ko eleizalde onetan, bertoko lurralde onetan. Amoroto etxe jatorra Etxebarria'ko San Andres'en dago, au da, Markiñaldeko Etxebarrian. Gauza bakana, ez? Baiña alaxe da.

Amoroto eleizaldean oiñetxe lez agertzen diran etxeak oneik dira:

Abaroa.

Abitera, Abilera.

Agirre.

Aldasolo.

Aldekoa.

Amax, Amiax.

Aransolo.
Arm iña-errota.
Arostegi.
Arrangiz goikoa.
Arrazika.
Atxa Uriarte (Atxuriarte)
Azubita, Ajubita.
Azumendi.
Aztin-errota.
Basterra, Basterria.
Beiti bekoa.
Beiti bekoa goikoa.
Belakola
Bengo errota.
Bermeosolo
Bolua
Bolunburua
Etxebarri
Etxezarra
Elorraran
Erkiaga
Gabiola, Gabiolena.
Gebara
Goio-aldekoa.
Goio-beazkoa.
Goiogana.
Goitiz bekoa.
Ibarra
Ikadi
Ikaran
Irarreta
Iturgatxa
Iturraran bekoa.
Iturraran goikoa
Jausolo Leniz
Jausolo dendaria
Jausolo Koskorroza.
Jausolo Iturgatxa.
Kastillo
Kostoza
Leniz
Munitiz
Odiaga



Olaeta.
Telleria.
Txopitea
Urguen
Uriarte
Urresti goxeaskoa.
Urrutia beazkoa.
Urrutia beitia

Urrutia Erdikoa
Urrutia
Zerella, Terella
Zerella Errota.
Ziarra
Zubieta
Zuloeta.



UTSUNE BAT

"Bizkai'ko Forua", edo zeatzago eta **deitura** osoa erabiliaz, "Bizkai'ko **jaurrentar** zaldun **aitonen SEMEEN FORU, LEGE BEREZI, FRANKEZA ETA ERRI ESKUBIDEAK**", Puxana tar Kepa'k lenengo aldiz euskerara **itzulitako** liburuan, "Foruaren eratzea dala-ta **Batzarren** agiriak" deitzen dan atalean, **1526'ko Jorrailla'ren** bosgarrenean ortarako Gernika'ko Zugazpean, Batzar Nagusi jakin baterako deia artu ondoren, an batu ziran Lizentzidun Jaun, **Korrejidore**, Bizkai'ko etxe **andietako** jaun eta beste zaldun, **Eskutari** ta **Aitonon** Semerik asko, eta **Jaurerriko** Udal eta **Eleizaldeetako** **Ordolariak** eta abar **adierazpena** egin ondoren, **bertaratu** ziran Ordezkarien zerrenda au irakurten da:

Antxe (gure aldetik luze ez **egitearren**, ingurukoak bakarrik aitatuko doguz), **Kortezubi'ko** Eleizatearen ordez **Terlegiz'ko** Joan eta **Basozabal'go** Joan Ruiz; eta **Ispaster'ko** Beitia'ko Rodrigo; eta **Natxitua'ko** Urazandi'ko Joan; eta **Bedarona'ko** Olabe'ko Joan; eta **Murelaga'ko** Teilaetxe'ko Martin; eta **Nabarniz'ko** Etxebarria'ko Joan; eta **Gizaburua'ko** Gorostiza'ko Otxoa Lopez; eta **Mendexa'ko** Algorta'ko Gartzia; eta **Berriatua'ko** Garduza'ko Joan; eta **Zenarruza'ko** lurrebaso'ko Martin; eta **Arbazegi'ko** Garro'ko Joan; eta **Jemein'go** Gabiola'ko Martin, eta **Etxebarria'ko** Maguregi'ko Ander...

Oiturazko ziran **Jaurerri** onetako Foru, **usarlo** ta oiturak, Lege Berezi eta Erri-eskubideak ondo eta zintzo eratu ta **barriztuko** zituela uste ebenak aukeratzeko egin zan.

Gauza bakana eta arrigarri izaten zan onelako batzarretara **eleizateetako** ordezkarri guztiak ez batu edo alkatzea, baiña **Bizkai'rako** ain garrantzitsu zan batzar **aretara**, ikusten danez, **Amoroto'ko** ordezkaririk ez zan agertu.

Alaz eta ezin ukatu **Amoroto**, bizkaitar guztien antzera, eta batez be bere biotz ziran **eleizateen** antzera, bere errialde eta bertako **legekaz** arduratuta biziko zanik. **Gertaeren** bat, baiña istorirako, **kondairarako**, or utsune bat.

AMOROTOAR FEDE ETA LURREZ

Amorotoarren Batzar Nagusietako kezka eta ardua erakusteko, ara **agerbide** zintzo bat.

Jakiña da erri askotan **gertaten** dala, etxe batzuk **lurrez** toki bateko izanarren, bidearen **egokitasunagaitik** edo **sortzetik** alaxe asi ziralako, **eleizaz** alboko erriko parrokian sartuta egotea, **lurrez** dagokion errikoan barik.

Orrelakoaren ondorenez dator au:

Bein Atxurra'ko jauna Gernika'ko Batzarrerako **ordelari** autu eben **Amoroto'tik**.

Gernika'ra joan eta an paperak **agertzean**, ontzat artu ez.
Zegaitik?

Ba Atxurra etxea, baserria, **eleizaz Amoroto'ko** parrokian sartzen ba zan be, metro **batzukaitik Berriatua'ko** lurraldean jasota egoalako.

Ori ikusi ta **Atxurra'ko** jauna ez zan geldi egon. Berbak eta **pape-**
rak aidean ibili ta galtzen dirala, baiña berari ez eutsan iñok **amorotoar**
izateko duintasunik kenduko. Eta metro batzuk **egalerago**, bizi-leku
barria egin eban.



I KASTOLAK

Amoroto'n, txikientzako eskolak zaintzeko erri-ardura dago.

Gero, ikastaro sakonagoak auzo errietan osatu bear. Baiña lenen-
go irakaskintza, amaren izkuntzan egiten da.



BIARRARI KANTUA

Biarra, "bierra", lana...

Bardin da. Biziak gizonari aginduten dautsan legea.

Amoroto'n ba dakie ori. Eta bertako etxe zarretako ormetan, arrian irarrita gogoratu nai izan dabe egi gordin ori.



Ez baten. Etxe bi be ba dira esaera ori etxeko oiñarriztat edo legeztat erakusten alegintzen diranak.

Bata Idarreta'n dago, 1754 urte ezkeroztik.

Bestea Iturraran Bekoa'n, 1784 urtetik.

Eta Amoroto biarra egiten erri eredia izan da. Lurrari eten barik emaitzak (frutuak) ataraten aleginduaz. Ala irakurri lei liburuetan: "Amoroto. En la zona oriental de Bizkaia, correspondiente a la comarca de Markina, junto con Elorrio y Zaldibar, el sistema de cultivo es continuo y bienal; en Noviembre se siembra el trigo, le sucede el nabo u otra planta forrajera; de manera que en mayo el mismo trozo es ocupado por el maiz al que le suceden nabos y plantas forrajeras...".

(Vizcaya en el Siglo XIX.— Joseba Aguirreazkuenaga).

Au da: Amoroto, Markiña aldeko Bizkai sorkaldean, Elorrio eta Zaldibar'en lez, ereintza eten barik egiten da lurrian urte biñakoetan. Azillean garia ereiten da, gero arbia (naboa) eta beste antzekoren bat, eta orrela Maiatzean lurralde berbertan artoa artzen da, gero barrero arbiak eta azikiñak azteko ipiniaz".

KONTU, KANTU, LAMIN ETA IPUIN. KOBAK **Lea, lamiña zulo.**

Oiz mendi gibelean dauka sortzea Lea ibaiak.

Gero Goikolea, Argarate eta Aldape'tik

datozen urekin ugaritu,

eta Gerrikaitz'eri oiñak garbituz

Arbazegi zear zirinduten da,

alde batetik Ganbiril'koak

eta bestetik Gerrika eta Totorika'tik

berantz datozanak iruntsiz,

inguru au amu arraiñen kala biurtuz

Murelaga aldera zearkatzen da,

beti trokaz troka datozen

erreka garbietako urak artzen.

Orrela Gaztiburu eta Motrollokoak

edo ta Lekoiz'koak.

Aulesti'tik, olgetako zubi dirudien

arrizko zubi dotorepetatik

Gizaburuaga'ra elduten da,

antxiña olaen artean nagusi izan zan

Bengolea'ko ur-arka dantzari igaroaz,

bereala Oibar'ko Andra Mariari

bere ermitako zelai-lurra samurtzen.

Aurrera dua Olaeta, Amoroto'ko auzune txairora,

eta emen, Atxurra aldetiko urekin batuaz

itxasmin agertzen da,
Kantauritik datozan kresal urekaz ezkontzeko.
Oleta'ko zubi onen inguruko uretan orraztuten ei ziran antxiña lamiñak.
Origaitik lamiña zulo deitzen eutsen inguru oneri.

Ala beintzat olerkari ospetsu baten kantuetan:
"Sarats ta milizkaz inguratua
lirain dabil Lea, lamiña zulo.

.....
.....

Oleta'tik bera, suge geldia,
diztikor akusta, bai, bitsetan naro...".



LAMIÑAK ETA OKABI XO'KO OLLARRA

Okabixo baserriaren aurrean, koba zuloa dago muiñotxo baten.

Bein, lamiñak egon koba atan, eta ez eben nai aren aurretik iñor igaroterik gabeko amabietatik ordu bietara bitartean.

Bein, alan be, gizon bat, posturea eginda, arrokeriz, koba aurretik joan zan.

Oratu eutsan lamiña batek, eta ba-erabillan gizajoa, jateko eroan bear ebala-ta.

Gizonak, estutasunean, izteko eskatu eutsan liñuen penak esan artean. Esateko, ba, entzutea ba eukala-ta, baimendu eban lamiñak.

Gizona asi zan, ba, geldi-geldi liñuaren penak esaten:

"Lenengo soluan atara,
gero sikatu,
gero pozuan beratu,
gero sikatu,
gero garramatu,
gero jo txagiaz edo mazuagaz,
gero ezpatatu,
gero txarrantxatu,
gero goruan ipini,
gero ari egin,
gero egosi,
errekan jo,
gero arildu,



gero eun egin,
josi jantzia,
urratu,
errekan jo...".

Zenbat neke, ezta?

Astiro joian gizonar..

Lamiña gosestuak arin amaituteko ekiten eutsan.

Eta alako baten Okabixo'ko oillarrak kukurruku egin eban.

A entzun eta lam iñak, asarrez beteta, berba onetxek esan eta iges egin eban:

A Okabixo'ko Marti-oillar gorria, eroan daustazu neuk aparitako neukan lebatz andia. Azeri gaiztuak galduko al dautzu zeure ezkerreko begi gorria!

(Jakiña da lamiñak ez dirala *gaiztuak* eta ez dabela *gizonei* kalterik egin nai izaten. Egun atan be, gizona bere mende *eukiarren*, ez eutsan ezer egin, bildurra sa *rtu* baiño. Azken *biraoa* ez eutsan *gizonari* bota, *kukurruku* jo eban *oillarrari* baiño.)

(Aita S. Onaindia *amorotoarraren* "Lamiñak" liburutik konpon-duta.)

ARMIÑA'KO KOBEA

Bean Ballestegi ibarrera doan bidea ikusten da.

Inguruan Moko, Txopite, Ikan, Errota, Enparan, Sarkunbide, Olan eta besteak, baserrietan eder.

Atxurra gaiñeko bide-kurutzean, antxiñako arrobi zarra.

Aurrez-aurre, aitz eta zugaitz artean agiri da Atxuriarte, gizon jatoren sorleku.

Emen, bide egalean, Armiña'ko koba zuloa...

Bein neskato biri, bidean zear eioazala gaua egin jakoen, Eta an-txe, koba aurrean. geratu ziran, nora jo ez ekiela.

Alako baten, argia aoartu eben barrutik, eurrez, uiol antzean. Urre-ratu ta... Ikuskizun izugarria! Lamiñak argi joritan sartu-urtenka. Eta gaztetxo biak, besotik oratu eta barrura sartu-azo zituen.

Sarreran igarobide medarra daukien arren, barruan saloi luze-zabala. Zenbat lagun zuri jantzirik musika entzuten? Bertan baita epo batzuk be, gizontxo pitiñak.

Ementxe bizi gara gu, esan eutsen lamiñak, bizkor eta alai. Guz-tiok gara aizta. Epoñoak mirabe doguz. Garbiketak egin, dantza-jola-sez itzuli-murdika guri poza ekarri, jatekoa mairatu...

Dantzaldi bat ikusi nai dozue?

Eta txalo batez, epotx aldra osoa batu eban lamiña nagusiak, inguru luzea danen aurrean egiñez. Bigarren txaloa ta berrogei batek asi euren irra zalu, txairo, eragiña. Leun-leun lenengo keriza-adar baten

antzera biraka; arintxoago gero, eta azkenerako, itxas-olatu asarratuen itxura artuaz, bits jaurtika ta egal guztiak iruntsi nairik. Irugarren txaloa jo ta bat-batean geratzen da zurrunbillo gutzia.

Ikusgarria, ezta?

Bene-benetan.

Orrelaxe egin oi dabe beti.

Laugarren txaloa jo-ala, guztiak doaz saietsean agiri dan jantoki zabal luzera, bakotzak bere lekua arturik.

Lamiña eta epotx, afari garaia dala-ta, or danak sail bitan jateko gertu.

Ogei epotxek, galdara zapaletan, ortuariz egiñiko zukua dakarre lenengo, lurrun jario; gero ondorengoak, sei-zazpi zerbitzuraíño.

Jan eta jolas, ordu bete lez igaroten da.

Azkenean, maitik jagi ta bertan, eskerrak emoteko, gorputz mee segillak gora ta beera erabiliz, jinasia egiten dabe ordu laurenean.

Gero, laster laiñoak zear ibilteko ordua dabela-ta, or doaz danak gertaketak egiten. Arein garbitu ta orraztu bearra! Eta txistu ozenaren zantzu ostein, danak doaz astrapalan kanporantza.


Nora doaz ain arin?

Orain illunetan daukie euren lana.

Zer lan?

Gazteen biotzean amesa ixuritzen; gabaz galdu diranei bidea erakusten; kuman dagozan umetxoei lo eragiten; mutil zarrei adorea emoten; bildur diranei kemena eiten...

Beti olan? Gau guztian?



—Ez, gaberdi aldera oillarrak kukurruku egin arte. Gero lamiñak eta epotxak arripera biurtzen dira. Kaleko argia gau biurtzen da lamiñentzako...

Alaxe, neskatoak kalera atara zituen eta oneik galdu egiten ziran ikusi ebena ezin gogoratuta.

(*Aita Onaindia'ren "Lamiñak" liburutik eratuta*).

ATXURRA'KO KOBEA

Denporak gauza asko galdu eragiten dabez: Etxeak, bizi-tokiak, oiturak, usarioak, arbasoen izatea eta abar asko.

Batzuk lurra jo ta bertan bera galdu, besteak aize barrien indarrez, eskutatu.

Alaz eta gero ta min geiago igarten dogu gure antxiñakoen biziari buruzko utsunak igartean.

Origaitik trikuz triku, dolmenik dolmen, illerririk illerri edo kobarik koba zerbait susmatu edo aurkitzen dogunean, sekulako poz eta itxaropenez agertzen gara.

Orixe jazo zan Armiña'ko kobak billatu ziranean. Plazakola'tik Lekeitio'rako, edo deitzen zan lez Markiña'tik Lekeitiora doan bidea egitean agertu ziran Armiña'ko koba zuloei buruz.

Lenengotan Amoroto'ko koba deitzen asi ziran. Gero Atxurra'ko zuloa.

"El Noticiero Bilbaino" egunkaria izan zan aurkitze orren barri lenengoz emoten asi zana.


Arrituta geratu el ziran billatu ebenak, bere edertasun, anditasun, ugaritasun eta ikusgarritasunagaz.

Barruan azur andiak billatu zituen, batzuen ustez basoetako abereenak, baiña egon ziran gaizkilleren batek itxitakoak deikezala esan ebenak, oraindik ate nausirik billatu ez ebelako, eta bai gizona nekez sartu al izateko erako zabalune txikia.

Laur ordu gitxienez bear zirala koba a ikusteko, idatzi eben, beste-la ase barik urteten zala-ta. Gaiñera abarketakin joan bear zala, toki batzutan narruzko oiñetakoekin ezin ibili zalako. Eta bakoitzak eukazan jantzirik baldarrenak eroateko soiñean, jantziak erraz urratzen zirako toki batzuetan etzanda igaro bear izatean, estalagmiten puntu zorrotzak noz-nai joten.

Geroago Julio Enciso idazleak karta bat bialdu eban "El Liberal" era eta an esaten zan Madrid'eko Unibersidadean lurrizti (geologi) irakasle zan Sokorro'ko markesak eta meatzetako inkiñeru zan Adan de Yarza'k azterketa sakonak egin zituela koba orretan. Eta *ursus speleus* edo kobaetako artzaren azur ugari aurkitu zituela. Eta azur orrean alboan, denpora aretako beste abere askorenak.

Jakintsu onein eritxi eta esanetan, koba ori ikusteak ziurtatu egiten



Armiña'ko kobaetako sarrera bat.

eban antxiña ur-bide ugari egon zirala inguru onetan, eta gure denpo-
retako ibai eta errekek ordukoen irudi itzal geratzen dirala.

Bereala ango barri geiago eta zeatzago emon zitun "El Noticiero
Bilbaino"k, aldi aretan Amoroto'ko osagille zan Guillermo Iruarrizaga
jaunak bialduta.

Osagille au bere emazte zanagaz ibili zan koba au zulorik zulo eta
bazterrik bazter ezagutu nairik. Eta bere ikusiak eta oarpenak azaldu-
ten alegindu zan, ango edertasun eta ikusgarritasuna gogoratzen.
Orma baten itxi eban lapítzez idatzita bera andik ibili zan testigantza:
"Médico de Amoroto y su mujer Elisabeth Wemmer, 10 junio 1882".

Orduko idazleak miña eta naigabea erakusten eban kobaren
inguruan gertaturiko gauzak gogoratzean: "Biderik geienez
estalaktita eta estalagmita ugarien zatiak billatu doguz, Izadiaren gauza
bakanak arrituta begiratu bearrean, apurtzen eta desegiten jolasten
diranak jaurtitakuak".

Eta ate bat sarratu zala, esaten eban, gauzak bear lez zaintzea-
rren, baiña obeto izango zala besteagaz be bardin egitea.

Egon zan ikusleen artean umorea be. Idazkian esaten zanez, ikus-
le batek ain ugari ikusten ziran garbantzur neurriko ondar pelotatxoak
ikustean, esan ei eban: Jaunak, ara emen antxiñako ugalde aurreko
gixuren areik, emen bizi ziranean musean jokatzeko erabilten zituen
pelotak. Kerekizko ikatzki ugari ei egoan lurrean zear.

KANTU SAMUR BAT

R.M. Azkue jakintsuak, bere "Cancionero Popular Vasco"n Amoroto'ko Antera Maruri'gandik ikasitako lez agertzen dau gabonetako kantu samur au.

Orra or goion etxe bat
urien kabuan,
la jausia dago
zarraren puruan.
Gizonak mentanatik
deutso erantzuten:
Gabaren ordu onetan
nor dago ate yoten?

970.— ORA OR GOION ETXE BAT

59. *Andante, vtoso*

The musical score is written on three staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 3/4 time signature. The tempo/mood is 'Andante, vtoso'. The melody consists of eighth and quarter notes. The lyrics are written below the notes, with some words split across lines. The second staff continues the melody. The third staff starts with a treble clef and a key signature of one sharp, and contains the lyrics 'an. í a jausi _ an da - go za _ a _ ren ru _ ru _' followed by a blacked-out section containing 'AMMI.' and 'ama?'. The final line of lyrics is 'an . Giz on ak men ta _ na _ tik deutso e _ ran_t'.u_ ten, ga_benor_du on_e _ tan norda a _ te yo _ ten?'.

O _ aor goi _ on e _ txe bat u _ ri _ en ka _ bu

an; í a jausi _ an da - go za _ a _ ren ru _ ru _

an . ~~AMMI.~~ ~~ama?~~ Giz on ak men ta _ na _ tik deutso e _ ran_t'.u_

ten, ga_benor_du on_e _ tan norda a _ te yo _ ten?

De Antera Maruri, de Amoroto (B).

Mirad ahí arriba una casa en el extremo del pueblo, está a punto de caerse de puro vieja.

El hombre le contesta de la ventana ¿quién golpea la puerta a estas horas de la noche?

ELEIZ BIZITZA

Eleiz-nagusia, parrokia.

Amoroto'ko eleiz bizitza, Gizaburuaga eta Ispaster eta Mendexa'koa lez, Lekeitio'ko parrokiaren menpetasunean asi zan.

1372 urteko agiri bat ba dago, Juan Bizkaiko Jaunak Lekeitio'ko Eleiz Batzarrari eskintzen Amoroto, Gardata, Asumendi eta Kurutzia-ga'ko baserritarren amarrenak.

(Iturriza, Historia Gral de 8,11,73 orr.)

Geroago, 1463 urtean, Labayru'k bere Kondairan, emengo eleiz bizitzari buruz diño, Amoroto'n, 37 etxetan, 140 bizilagun egozala.

Bizilagun eta eleizari buruz zeaztasun gitxi ba daukagu be, jakiña da XV garren gizaldiaren azkenetan, Lekeitio'ko parrokiaren menpetasunean egozan Amoroto, Gizaburuaga, Ispaster eta Mendexa, alkartuta ibili zirala parroki nausi orren saretatik urten naian, parroki orretako abadeak kristiñau bizitzarako ipinten eutsezan menpetasunak eurentzat jaso-ezin eta eroan eziñak ziralako.

Jakiña da parroki batek, denpora areitan zelako lotuerak eukazan, jaiotzetatik asi eta illetak arte, bataiotze ta illeta eta abar parroki nausi orretan egitera beartuten zituelako eleiztarrak.

Lekeitiarren aginduen aurka, auzo-errietako oneik euretako ermitetan emoten eutsen lurra illei eta origaitik Lekeitiarren eskabidez edo salakuntzaz Bizkaí'ko Korrejidoreak agindu bat emon eban 1460 urtean, ori egiten ebenak kartzelan sartuteko eta gaiñera ermita orreitatik bateotako ponteak be kendu eragiñaz.

Bestalde ba dakigu 1460 urte inguru orretan Ispaster, Gizaburuaga eta Amoroto'ko eleiztar batzuk eleizatik kanpora atarata, exkomulgatuta egon zirala.

Lekeitio'ko serbitsua ipini eutsen, baiña Lekeitio berbertatik erabilia, eta orrelakorik ez eben nai erri txiki oneitakoak.

Origaitik egin zituen ainbeste asarre eta origaitik azken erabagi billa Erroma berbertara jotea be.

Esan bearrik ez bakoitzaren gaitasuna erakusteko, bakoitzaren eleiz-ingurua zaindu eta obetuten joango ziranik.

Origaitik Amoroto'n eta beste errietan, parroki lez erabillezan ermitak, edo auzo-eleizak, parrokitzarako egokitzen alegiñak egingo zituela uste da, eleizak barriztu eta egokituaz.

Ala Amoroto'ko parrokia, eleiz-etxea, oraindik Lekeitio'ren menpe egoala anditzen asia zala esaten da.

1519 urteko Martian eldu zan parroki-askatasuna erri txiki oneintzat, orduko Aita Santuak emondako bula bidez.



Bula orretan Lekeitio'gaz auzo oneik eukitako auzia eten edo amaitutea aginduten zan, Lekeitio'ko parrokia beartuta geratzen zala lau erri oneitan, euretako parrokietarako, arimen zaintza ikasiak ziran abade gaitauk bialtzeko eskatzen eta agintzen, eta euretako parrokietan ur-beeinkatu ontzia, illobiak eukiteko aukera eta abar emoteko gogoratzen.

Orrela, Lekeitio'k, bere parrokian egoten ziran la ogei abadetatik, Ispaster-era bi izentatuko zitun, bertan biziteko; beste bi Amoroto'ra, eta bat Gizaburuaga'ra.

Eta orduko ermita edo eleiz-laguntzaille ziran auzo-elizak, kanonen araberan parroki biurtu ziran.

(Labayru, H.G. de B. IV, 91 orr.)


Geiago oraindik.

Ba dirudi Lekeitio'ko parrokiak ez ebalá beteten Bula aretan agindutakorik Amoroto, Gizaburuaga eta Ispaster'eko eleiztarren atsegiñean. Eta oneik 1531 urtean barriro asarre agertzen ziran.

1519 urtetik euren parrokiak eukezan iru erri orreitako bizilagunak, nai eta Lekeitio'ko Andra Mari parrokia, parroki nausi lez ezagutu eta bertako abadeei bear aiñako lotsa eta ospea zaindu eta eskintzak egitera beartuta egonarren apurtu nai izan eben itun ori, eta Lekeitio'ko artxipreste, bikario eta beste abadeak gora jo eben asarre, eta agindu



AMOROTO'KO **ELEIZ NAGUSIA** (PARROKIA)



bat emon zan eskatzen Korrejidoriak ikusi egiala zer gertatu zan eta berak bere uste onez eritxona egiteko, aurrerantzean geiago auzirik ez sortzeko eran, orretara ausartuten ziranei amar milla mairu (maravedi) isuna ezarriaz.

(Labayru, H. G. *de B. IV*-183 orr.).

Inguruko errietako eleiztarren jendetza era orretan egoala, ba dirudi erri oneitakoak alegin biziak egingo ebezala euren parroketan ezelako eragozpenik ez billatu eta ez ipini al izateko.

Orrela irakurten dogu Amoroto'ko parroki arduradunak 1503-1504 urte bitartean, Kalagorri'ko Eleiz Auzitegi Nagusira eskatu eta lortu ebela zentzu lez 4.000 dukaten aurrerapena eskatzeko, eleiza barriztu eta anditzeko.

(Labayru, H.G. *de B. IV*, 16 orr.)

Ez da ba arrigarri Amoroto'ko parrokia, 1519'ko bula eldu zanean, orduntxe sortutako lez agertzea. Ba dakigu parroki lez serbitzuak emoten orduntxe asi zala, nai eta bertako lanak noiz amaitu ziran ziurtasunik euki ez.

Gero, 1800 urtean, zabaldu egin zan lengo parrokia, anditu, eta Kapelastegi arkitektoa izan zala, esaten da, lanen zuzendari.

Amoroto'ko arkitektoa, Franzisko Kapelastegi zala esaten dar Bazuk uste dabe Gabriel izan eikeala, elorriotarra, kontuan eukita denporaldi aretan au ibili zala Sukarrieta'n san Nikolas ermitaren tokian san Andres parrokia jasoten.

Berbera izan zan baita Bilbo'ko San Anton'go torrea iruditu ebana eta 1792 urtean Amorebietako eleiz-aurreko lanen zuzendari be.

Amoroto'ko eleizak 75 oin daukaz luzeran eta 48 zabaleran. Bertan 58 sepultura egon ziran, illetak, edo lur-emoteak eleizetan egiten ziranetan.

Aldare nausiko erretaula, pizkunde erakoa da eta Juan Domingo Andonaegi taillagilleak egiña da.

Gaur ez dauka Amoroto'ko eleizak abadietak antxiñako auzirik, baiña bere serbitzurako eta Gizaburuaga'rako abade bakarra dago eta Lekeitio'n bizi dar

SAN MIGEL:

Ermitak

Bide nausitik Amoroto'ra goazala, errian sartu baiño lentxuago dago ermita au.

Ba dirudi, bertako ermita biak ikusita, amorotoarrak auzoetan barik, parroki inguruan euki nai izan zituela bertan dagozan ermita biak.

Ez jakin noiz jaso dan San Migel'en au.

Sartu aurretik, ate buruan irakurriko dogu zeñen omenez jaso dan: San Migel/Goi-aingerua.



Ermita txikia.

Tellatuko urak, alde bitara.

Barruan aldare bakarra eta irudi bakarra.

Errogatibetarako **ermita**. Asentzio jaiko errogatibetan, lenengo egunean egiten zan bertarako jaia.



SAN MIGEL GOI ANGERUA

Bai eta Maiatza'ren 9'an, san Gergorio egunen, eta ementxe bedeinkatutako ura jaurtiten zan egun orretan soloetara eta kortaetara. Gaur, ermita au, txukun zainduta dago.

SANTA BARBARA

Ermidak

Neurrietan bardin samarrak dira Amoroto'ko ermita biak.

Santa Barbara'ren omenez jasotako onek 11 x6,50 metro daukaz. Tellape bakarra.



Bakarra baita alderea, nai ta ermita onetan iru emakume gurtu, euren irudien bidez: Barbara deuna, taillatua da, eta bere egaletan



dagozan biak, Luzía eta Katalina deunenak, margotuak. Irurak udazken beranduko, la neguko santak.

Letaniak ospatuten ziran denporetan, san Markosetakoetan, santu orren egunean ospatuten zana etorten zan ermita onetara, bai eta Maiatzeko Kurutze egunekoa be.

Len, Santa Barbara egunez, parrokira eroaten zan imagiña au eta antxe euki san Markosetako letani egunerarte. Baiña oitura ori galdu zan.



SANTA BARBARA'REN ERMITA

ERROTAK

1745/1746 urteko errotzean agertzen dira erroten agerpen batzuk.

Gero, XIX garren gizaldian ugaritzen igarten dira.

Gaur batzuk utsik, besteak beia jota, ez da inguru onetan errotarik.

Urtez-urte aztertzen ibilita, errota oneik billatzen doguz Amoroto'n.

1745

Ikaran.— Domingo Ikaran jaubea.

Ikaran.— Jose Iturrino, jaubea.

Talo.— Domingo Erkiaga, jaubea.

Zubieta.— Josepha Adan jaubea eta Jose Arispe errenterua.

1795

Armiña.— Jaubea, Domingo Bermeosolo.

Artin-errota.— Jaubea, Adan'darrak.

Bolua.— Jaubea, Torrubia'ko kondea.

Gabioleta.— Jaubea, Jose (bañez Renteria).

Ikaran.— Jaubea, Jose Ant. Ikaran, (Berriatua'ko biztanlea).

Olaeta.— Jaubea, I.Koskorrotza.

Zerella.— Jaubea, Jose Xabier Landaguren.

Zubieta.— Jaubea, Ant. Adan de Yarza.

XIX GARREN GIZALDIAN

Lau errotze, zentzu, egin ziran gizaldi onetan. Eta errotei buruz gorabera oneik ataraten dira:

Armiña.— 1814'n Jose Gojenola'ren izenean egon zan; 1824'n Domingo Gojenola'renean eta 1863'en Juan Ant. Gojenola'ren jaubetasunean.

1895'ko zentzoan ez da bere barririk emoten.

Artin-errota.— 1814'tik 1895 arte, beti Adan de Yarzatarren jaubetasunean ezagutzen da.

Bolua.— 1814'n Torrubia'ko kondearen izenean.

1824'n Molina'ko kondearenean.

1863'en Fdo Kortabitarte'ren izenean.

1896'n, Torrubia'ko kondearenean.

Errotabarri.— Ba dirudi 1795'n Gabioleta deituraz agertutako berbera dala.

1814 eta 1824'n Jose (bañez Renteria'ren izenean.

1863'n Prudencia Urkijo'ren izenean eta 1895'n barriro (bañez de Renteria'nean.

Ikaran.— 1814 urtean izen onetako bi agertzen dira. Ikaran

- "Mayor", Jose Balenciaga'rena eta Ikaran "Menor", Manuel Goxenola'rena.
 1824'n Ikaran "Goikua" eta "Bekua" esaten dira. Gotkua'ren jaube J.A.
 Ikaran, eta Bekua'rena Ant. Gojenola.
 1863 urtean be Goikua J.A.Gojenola'rena da eta Bekua Joakin Ugarteburu'rena.
 1895'n bakarra agertzen da, Ikaran soit-soit. Jaube: J.Ant. Ikaran.
- Olaeta.— 1814 eta 1824'n I.Koskorrotza'ren izenean.
 1863'n Juan Bta Markue agertzen da jaube lez eta 1895'n barriro I. Koskorrtza.
- Olalde.— 1814 eta 1824'n Ant. Adan de Yarza'ren izenean Geroago ez da agertzen.
- Talo.— 1814 eta 1824'n Pedro Goitiandia'ren izenean. 1863'n geldi dagola esaten da.
- Zerella.— 1814'n Juan Larramendi agertzen da jaube eta 1824'n Bitor Larramendi.
 1863'en Franzisko Arana eta 1895'n Josefa Landaguren.
- Zubieta.— 1814 eta 1824'ko errotzetan ez da agertzen. 1863'en Carlos Adan de Yarza'ren izenean eta 1895'n Antonio Adan de Yarza'renean.

ERROTEN MAILLA EDO NAUSITASUNA

Erriari ordaindutako ordain-diruetan bakoitzaren izatea neurtu ezkeroz, Amoroto-ko erroten sailkapena, geiendik bera, onela neurtu eta zeaztuten da. Esaten dan kopurua, bakoitzak bere irabazia, gari, arto, indar eta gaztaiñarenagaz osotutakoa da. Zerrenda au 1814 urte ingurukoa da:

- 1.— Olalde, Adan'darrena. Guztira erriarentzako ordaiña 919 errial.
- 2.— Errotabarri, (bañez de Renteriatarrena. Guztirako ordaiña 606 errial.
- 3.— Artin-Errota, Adan'darrena. Guztirako ordaiña 469 errial.
- 4.— Olaeta, I.Koskorrotza'rena. Guztirako ordaiña 361 errial.
- 5.— Bolua, Torrubia'ko kondearena. Guztirako ordaiña 342 errial.
- 6.— Armiña, J.Goxenola'rena. Guztirako ordaiña 333 errial.
- 7.— Ikaran Txiki.— J.Goxenola'rena Guztirako ordaiña 333 errial.
- 8.— Ikaran Andi.— J.Balenziaga. Guztirako ordaiña 331 errial.
- 9.— Zerella.— Juan Larramendi'rena Guztirako ordaiña 257 errial.
- 10.— Talo, Pedro Goitiandia'rena. Guztirako ordaiña 148 errial.

Jakingarri da errotak zelako errentak eta zelako erantzun bearrak eukezan 1894 urtean:

- Artiñerota.— **Simon** Gabiola errenteruak **esan eban**, errenta **lez astero anega bat gari ordaintzen** eutsala jaubeari eta urtean 16 errial **erriko alkateari** errirako.
- Bolua.— **Jose** Txakartegi errenteruak **jakin eraso eban errota** erabiltearen **ordez urtean 33 anega urun ordaintzen** zitula. Anega bakoitza 81 libraz osotzen zan. Eta erriako **urtean 16 errial**.
- Gabioleta.— **Nikolas** Murelaga errenteruaren **esanetan**, astero bost kuarta urun ordaintzan zitun, **au da, eun libra urun**. Eta erriarentzat, **besteak lez, 16 errial**.
- Ikaran.— **Bertako** errenteru **zan J.Ikaran berrituarrak agertu eban 13 anega gari eta beste bost dukat dirutan ordaintzen** zitula urtero eta 16 errial erriarentzat.
- Olaeta.— **Pedro** Urkiri errenteruak **esan eban errota berberak eukazan** ordainbearrak **bere kontura zirala eta oneik era onetan zeaztuten zirala: Lenengo, 10 anega eta iru laurden urunetan, San Mames'eko markesaren ardulari zan J.A. Zarakondegi Lekeitio'ko abadeari. Beste lau anega ta erdi urun, (bañez de Renteria jaubeari; beste 15 fibra Lekeitio'ko Santa Katalina ermiteari. Beste 15 libra P.Mugartegi Markiñakoari eta Manuel Urreistieta mutrikuarrari 23 belloiko dukat.**
- Zerella.— **Jose** Garramiola **zan** errenterua. **Onek** dirutan ordaintzen **eban** errenta **era onetan: 60 belloiko dukat jau eta 16 errial erriarentzat.**
- Zubieta.— **Jose** Arizpe errenteruak, errenta orde 1.600 errial belloiko **eukazan ordaindu bearreko eta 16 errial erriarentzat.**

ERROTEI BURUZKO JAKINGARRI BATZUK

Bizkaia'n, errotaririk **geienak 17 ontzako neurria** erabilten eben. Ala Lekeitio eta Murelaga'n be. Ordez Amoroto, Gizaburuaga, Mendexa eta abarretan, 16 ontzakoa.

Alaz eta Bizkai'ko Agintariak 1774 urtean agindu eben Bizkaia'n 17 ontzako neurria **erabili bear zala pixu ofizialtzat** errotetan.

XIX garren gizaldiaren asieran **igarri zan** erroten **ugaritze edo geitzerik nabarmenena. Bizkai'ko 26 errietan** kontatzen **ziran 82 errotetik, zazpik bakarrik igo zituen errentak. Besteak** beratu.

Bizkai guztian 515 errota be **ezagutu ziran**. Euretatik 29'k diru ta aleetan ordaintzen eben errenta.

Esan bearreko da, **baita be, errota batzuk jaube batek baiño geiagok erabilten** zituela edo euretan interesak sartuta eukezala.

Errota jaubeak **ez ziran beti etxe jaubeenak edo baserri jaubeenak izaten.**

Konbentuak eta abade-etxeak be euki zituen euren errotak batzuk bizigarritzat eurak sortu zituelako eta beste batzuk dotetzat edo azken naietan euren mesedean geratu jakoezelako. Inguru onetan orrelakoak ziran Xemein'go "Olasolo"; Zenarruza'ko "Boluntxu" Markiña'ko Mesedetako Monjaena zan; Mungia'n abade batek errotako laurdena beretzakotu eban; Durango'n Uribarri'ko Andra Mari parrokiak errota bi eukazan.

Toki batzuetan errotetako errenteruak euren esku bearra be ipini bear izaten eben etxe-jaubearen solo eta lurretan lan egiñaz.

Edozetara be, banaka batzuk kenduta, diru eta aleetan errenta ordaintzen ebenak 16 errietan banatzen ziran eta euren artean geienak inguru onetakoak ziran, au da: lurre, Zeanuri, Xemein, Etxebarria, Abadiño, Berriz, Mendata, Arteaga, Murelaga, Gizaburuaga, Amoroto, Mendexa, Zenarruza, Arbazegi, Barakaldo eta Mungia'ko eleizaldean. Eta euretan be ez danak, batzuk dirutan bakarrik egiten ebelako.

(Azken jakingarri oneik Ana Gutierrez, Juan J. Muñoz et Salvador Ariztondo'ren "La Industria Molinera en Vizcaya en el siglo XVIII" liburutik atarakoak dira).



ERROTABARRI'KO ZUBIA

OLAK

Amoroto eleizaldeko agirietan, azken gizaldi bietan, ez da olaen gorabera edo jakingarri askorik aurkitzen, nai eta bertako inguru eta etxeen izen eta deituretan ola berba sarri sartu etxeari edo lekuari bere nortasuna agertu edo bertako zeregiña jakin eragiten.

Ala
Belakola,
Gabiola,
Olaeta,
Olalde,
Olaran...

Ba dakigu orain "Burdiñola" kooperatiba erako lantegia dagon tokian, Olalde'n, egon zala orrelako zerbait, nai ta gaur tokiaren izenetik bakarrik gogoratu lengo olearen ezaupidea.

Amoroto'n sagardaua egiten zanaren jakingarriak ez dira ugariak. Azken baten etxeeako zeregiña geíago zan, gizarteko lana baiñor

Errotei buruz lenago zerbait esana dogu.

Ba dagoz orraitík olaen artean iru, Munitiz, Zerella eta Zubieta, 1895'ko agirietan agertzen diranak eta erriko erakundean eta bizibidean antxiñako erako burdiñola jator eta tipiku lez ezagutu ziranak.

Munitiz.— 1895'ko errolltzean esaten da bertako bizilagun zan Jose Gabiola'rena zala, baña Jose Tomas Egurrola'k erabillala errentan, eta 14 belloiko dukat ordaintzen zitula errenta-orde.

Zerella.— Lenengo errolltzetan agertzen ez ba da be, 1796'koan Xabiera Landaguren'en jaubetasuneko lez ezagutzen da.

Itxuraz ez zan bizibide andi eta ziurreko ola edo lantegia. 1895'ko errolltzean, lengoen jaubetasunean jarraitzen ebala esan ondoren, errenta ziurrik ez eukala be jakin eragiten da, egiten edo lortzen zan kintal ordezo ainbesteko bat baiño. Eta azken urteko errentetan eun belloiko dukat ordaintzera eldu zala.

Zubieta.— Beti izan zan ola au Zubieta jauregiko jaunena, au da, Adan de Yarza tarrena.

1814 urtean, irabazi ordez, 860 erria) emoten zitun.
1842'n, dirutza ori beratu egin zan eta 794 erria) emoten ezagutzen da.

1895'n Manu Meabe lekeitiarra zan errentan artuta eukna. Urtean 30 dukat ordaintzen eutsazan jaubeari eta bere kontura edo bere lepoan artzen zitun lantegia-
ren erri-zergak.

Gaur, Amoroto'ri bizi barria emon nairik kooperatiba bi ezagutzen dira bere lurretan, bata altzari saillean, "Burdinola" eta bestea kartoi-gintzan, "Erabil". Biak Amoroto'ren be aldean lekutzen dira, urak eta bideak aukera egokia emoten daben lekuetan.

Itxaropena eta bizia galdu eben errota eta ola zarrak.



ARTIN-ERROTA



TALO

Itxaropena eta bizi barria sortu leiken lantegi barriak



BASERRIEN JAUBETASUNA ETA ERRENTAK

Orain ia eun urte, Amoroto'ko etheen jaubetasuna zelan banatzen zan eta errenten gorabera aztertu dogu, 1895 urtean egin zan agiri-agerpenaren bitartez.

Gauza bakana da, baiña urte orretan Amoroto'n egozan irurogei ta zazpi (67) etxetatik,

Ogei ta amabi (32) etan euren jaubeak bizi eta erabilten zituen.

Ogei ta amabi (32) bestelan errentariak bizi ziran, au da, alokatuta egozan.

Irutan, etxe jaube eta errentariak erdizka bizi ziran.

Alokatuta egozanak, au da, errentarienak, ze ordaintzen eben errenta ordez ikusi dagigun:

- Abaroa.— Jaubea: Maria Josefa Villarreal de Berriz.
Errentaria: Jose Kortabitarte.
Errenta: Amar anega gari ta 2 belloiko dukat dirutan eta beste amabi errial abere txikiena.
- Agirre.— Jaubea: Barbara Atxurra.
Errentaria: Baserri erdia baiño zerbait gitxiago: Lukas Kortabitarte.
Errenta: 30 dukat eta iru anega gari.
- Aransolo.— Jaubea: Lekeitio'ko Konpañiako eleiza.
Errenteria: Iñazio Mendiguren.
Errenta: 37 belloiko dukat eta 300 landara sartzeko ardura.
- Arostegi.— Jaubea: J.A. (bañez de Renteria).
Errentari: Juan Atxurra.
Errenta: 6 anega gari eta 26 belloiko dukat.
- Arrangiz goikua.— Jaubea: Jose Ag. Ojangoiti.
Errentari: Jose Mendiguren.
Errenta: 48 belloiko dukat.
- Arrazika.— Jaubea: Balentin Mugartegi, Markiñakua.
Errentari: Jose Arostegi.
Errenta: Ogei peso eta 8 anega gari.
- Basterra.— Jaubea: Jose I. Gallatebeitia, lekeitiarra.
Errentari: Pedro Koskorroza.
Errenta: 44 belloiko dukat errial erdi gitxiago, eta ganadu salmentako 43 ta erriola sartuta. Gañera, Eleizeari ordaindu bearreko sei errial eta 20 marabedi bere kontura.
- Belakola.— Jaubea: Juan Gabiola.

- Errentari: Irutik baten, Agustin Txakartegi.
Errenta: 6 anega gari eta 20 dukat.
- Bengo-errotea.— Jaubea: J.Ibañez de Renteria, lekeitiarra.
Errentari: Domingo Anakabe.
Errenta: 19 dukat eta anega bi gari.
- Bermiosolo.— Jaubea: Domingo Bermeosolo.
Errentari: Antonio Gabiola.
Errenta: 40 belloiko dukat.
- Dendaria.— Jaubea: Balentin Mugartegi.
Errentari: Teresa Arzubia.
Errenta: 9 anega gari eta eun errial dirutan.
- Erkiaga.— Jaubea: Domingo Markue'ren seme txikiak.
(Ez da billatzen errenta agiririk.)
- Gabioleta.— Jaubea: (bañez de Renteria.
Errentari: Franzisko Amiax.
Errenta: 20 belloiko dukat eta gari anega bi.
- Goitibekua.— Jaubea: J.M. (bañez Aldekoa.
Errentari: Juan Iturrino.
Errenta: 10 anega gari eta 30 belloiko dukat.
Abereak (ganadua) jaubearena.
- Goitibekua.— Jaubea: J.M.Ibañez Aldekoa.
Errentari: Ana Okamina.
Errenta: 30 belloiko dukat.
- Ibarra.— Jaubea: Lekeitio'ko Konpañiako eleiza.
Errentari: Juan Bta Areskurenaga.
Errenta: 35 belloiko dukat dirutan.
- Ikadi.— Jaubea: Madalena Ikadi'n lagatako Ongintza.
Errentari: Francisko Amiax.
Errenta: 30 belloiko dukat.
- Iurrea.— Jaubea: Adan de Yarza.
Errentari: Juan Alzaa.
Errenta: 38 dukat.
- Jausolo-Leniz.— Jaubea: (bañez de Aldekoa.
Errentari: Franzisko Ibarra.
Errenta: 8 anega gari.
- Kastillo.— Jaubea: Martin Txakartegi, lekeitiarra.
Errentari: Franzisko Bermeosolo.
Errenta: 32 dukat Txakartegi'ri eta 3 anega
Pedro Mugartegi markiñarrari.
- Kostoza.— Jaubea: A. Adan de Yarza.
Errentari: Antonio Aboitiz.
Errenta: 70 belloiko dukat.

- Odiaga-Etxebarri. Jaubea: Jose Abaroa, lekeitiarra.
Errentariak: Juan Leniz eta Migel Lazurika.
Errenta: 56 dukat.
- Okabio. Jaubea: A. Adan de Yarza.
Errentari: Pedro eta Jose Gabiola.
Errenta: 12 anega gari eta 20 dukat.
- Txakarteg i.— Jaubea: Maria Txakartegi.
Errentari: Erdia baiño gitxiagona, Juan Txakartegi.
Errenta: 30 dukat.
- Txopite.— Jaubea: Barbara Koskorrotza, Berriatuarrar
Errentari: Franzisko Izagirre eta Anton Atxurra.
Errenta: 24 anega gari jaubeari eta 40 imiña gari Ziarrotza'ko kanonigoei.
- Txopite barri.— Jaubea: Barbara Koskorrotza.
Errentari: Ramon Plaza.
Errenta: 9 anega gari.
- Urgoen.— Jaubea: Jose 1. Unzeta, lekeitiarra.
Errentari: Santiago Arostegi.
Errenta: Amaika anega gari eta artotan beste bi.
- Urresti-goxeaskoa.— Jaubea: Simon Gabiola.
Errentari, erdiarena: Domingo Atxurra.
Errenta: 320 erria) urteko.
- Urrutia-Jausolo. Jaubea: Juan Urruti.
Errentari: Juan Atxurra.
Errenta: 100 errial urteko.
- Zerella. Jaubeak: Xabiera Landaguren bilbotarra eta besteak.
Errentari: Tomas Egurrola.
Errenta: 40 belloiko dukat, beste barik.
- Ziarra. Jaubea: Juan Gabiola.
Errentari: Jose Julian Gabiola.
Errenta: 20 belloiko dukat eta anega bi gari.
- Zulueta. Jaubea: Domingo Markue'ren seme txikiak.
Errentari; Joakin Urresti.
Errenta: 50 belloiko dukat.

Etxe jaube izan eta euren etxetan bizi ta lan egiten, ebenak, beste nastean erabiliaz, doñua errepika-ala

Abitera
Agirre
Aldekoa

Amiax
Atxuriarte
Atxurra



Azumendi	Jausolo dendaria.
Beitia Bekua	Jausolo Iturgatxa.
Beitia goikua	Jausolo Koskorrotza.
Elorraran	Leniz
Etkezarra	Munitiz.
Gebara	Odiaga
Goio aldekoar	Olaeta.
Goio biazkoa.	Uriarter
Goiogana.	Telleria.
Irarreta	U rriti beaskoa.
Iturgatxa.	Urrutibeitia
Iturraran bekua.	Urrutierdikua.
Iturraran goikua.	

Erdizka erabilten ziranak, beste oneik:

Belakola (Irutik bi jaubeak).

Txakartegi

Urresti

Orduko agirian esaten zan baserri askok ba eukezala zentzoak ordaintzeko, bai eta eleizeagazko emon bearrak eta abarr

Orrez gaiñera, Eleizaldeak berak, au da, erriak be ba eukazan bere ondasun batzuk errentan ipinita eta garlan onela agertzen dira:

Eleiz ondoan dagon etxea, len Udaletxe lez erabilten zana, urtean 122 errialetan alokatua egoan.

Elemendi etxea be erriarena zan eta 100 erria) emoten zitun.

Goitigoikua baserria be erriarena zan eta urteko 46 dukatetan errentan emona egoan.

Atxuriarte baserriaren gain be erriak 45 errial artzen zitun.

MENDIEN FRUTUAK


Ba dirudi erriak ez eukala sagastirik, bere jaubetasunekorik. Ordez bai gaztañadiak.

1895 urtean 516 erria) artu zitun erriak gaztaiñekazr

Eta ira eta orriak saltzetik 120 erria)

Urte orretan ez zan ezer atara mendietako arboletatik, edo egurretik.

Olak txarto ebiltzala, egoera txarrean egozala ja lan barik eta orregaitik egur eskabiderik ez zala egonr



AUZOAK ETA AUZOETAKO ETXADIAK

Eleizalde.

Amoroto'ko erdi aldea.

Bertan dagoz eleizate onetako "plaza"ko etxeak eta abar
Baserri lez artzen diran baserri oneik lekutzen dira bertan:

Aldasolo,	Ikadi
Aldekoa	Iturgatxa
Arostegi,	Iturraran beko
Basterra	Iturraran goiko
Beiti bekoa	Jausolo (Patxikale)
Beiti goikoa.	Kale
Dendari	Leniz
Eleizpe	Talo (Utsik)
Elorraran (Utsik)	Torre
Goiti bekoa	Urgoen
Goiti goikoa	Uriarte
Ibarra	Zediñe

Beste etxe ta aterpeak.

Abadetxea	Elimendi
Alagarre	Eskoletxea
Arteta	Jolas tokia.



Pontxekua
Udaletxea
Uriarte barri.
San Martin parrokia.

Eleiz aretoa
Mikel goi-aingeruaren ermita.
Kanposantua.
Arrain lantegia

URRUTIA-ERKIETA AUZOA

Baserriak:

Agarre
Aransolo
Armiña (utsik)
Atxurra
Azubita
Azumendi
Bermeosolo
Bisko
Erkiaga

Gebara
Idarreta
Indartabe (jausia)
Okabio (utsik)
Txakartegi
Urrutia Beiti.
Urrutia Erdiko.
Zulueta goikor

BESTE etxeak

Armin-errota
Zulueta barri

Zulueta goiko barri.
Basondo-kartoi lantegia.

UGARAN-OLETA AUZOA

Baserriak

Abita
Arrangiz
Bengoerrota
Bolunburu
Errekarte
Errotabarri
Gabioleta (utsik)

Idurri
Kostatza
Munitiz
Olalde
Olaeta-Norbertone.
Sutegi-txoriene (txabola)
Zerella.

Beste etxeak

Abitxa barria
Burdinola (altzariak)
Bolu (gaur ardienezako)
Bolu barri (etxe bizitza).
Gillermonea (jatetxea)
Epermendi (jatetxea)

Klaudio (jatetxea).
Artin-errota (Korta)
Eskoletxea
Zerella errota-utsikr
Zerella barri
Olaeta errota.

ODIAGA AUZOA

Baserriak

Abaro
Alakua

Amiaz bekoa.
Amiaz erdikoa.

Amiaz txiki. (utsik)

Anitxu.

Arrazika

Atxuriarte (utsik)

Belakola

Enparan (utsik)

Erreka (utsik)

Etxebarria

Etxezar

Goio aldekoa (aberetako)

Goiotxur (utsik)

Goiogane.

Ikaran

Kastillo (utsik)

Legardiz.

Mendikoa

Moko (utsik)

Odiaga (utsik)

Olaran beko (utsik)

Olaran goiko (utsik)

Ortzeria (utsik)

Pagozulo (utsik)

Telleria

Txopite

Ur gozoa

Zarkinbide (Sorginbide ?) (utsik)

Beste etxetak

Beko errota (utsik)

Santa Barbara-ermita.



AMIAZ TXIKI (utsik)

ETXERIK ETXE **ASTERREN** BATZUK AGERTZEN

Beste eleiz-ate eta errietan lez, lenengotako etxe-erroltza edo orduan deitzen zan eran "fogeraziñoia", 1704 urtean egin zan.

Gero beste bat 1745-1746 urteetan.

Beste bat geiago 1796 urtean.

XIX garren gizaldian sartuta, 1814 urteko zerrenda be aztertu dogu. Bardin 1823'koa. Bai eta 1895 urtekoa be.

Zerrenda orreik izan dira gure argibide etheen asterren batzuk billatzean, eta euren goraberak aztertutean.

Euretan oiñarrituta, alfabetan ordenan ipinten dogu sail onetan etheen zerrenda, bakoitzari urte orreitako zeaztasunak geituaz.

Urte orreitan oiñarritzeak, edo euretaitik jakingarriak atarateak, ez dau esan nai ordukoak diranik aitatzen doguzan etxeak. Ezpai barik geienak aurrenagokoak.

Batzuk urte orrean bitartean galdu ziran, beste batzuk, gitxienak, eurretan sortu ba ziran be.

Gogoratu bearra dago "fogera" berba, latiñetik datorrana erabilten zala etxe-bizitza ordez. Sua biztuten zan etxea. Batez beste, erroltzetan, matrikulatzetan, bost laguneko etxea artzen zan, erriko bear-izanean ordaintzeko, fogera lez. Origaitik agertzen dira etxeak, bosteko orrean gain beste erdika, laurdeneko eta abarrekoak. Edo fogera osora elduten ez diranak, geienetan erdikak.

Esate baterako, 1795 urtean Amoroto'n 62 etxe egozan, baiña **68'5** fogera. Oneik ziran ordaitzen zituenak.

Nundik etxeetatik fogeretako sei ta erdiren alderantzi ori? Ba Agirre etxeak fogera ta erdi eukazalako, eta Erkiaga, Odiaga, Okabio, Txakartegi, Txopite eta Urruti-gojeaskoak biña.

Beste jakingarri bat: Etxe batek bere ormetan urte bat idatzita eukiteak, ez dau esan nai etxea urte aretako danik. Garbi ikusten da askotan orrelako urte bat ormetan ipinteak, barriztapena edo beste zerbait erakusten dauala, etxearen sortze edo irazpen barik.

Beste erri batzutan lez, ba dagoz izen batzuk, Beiti, Goiti, Aldeko, Erdiko eta abar iru lau etxeri ezarri leizkiozan geigarriak eta eurak bakarrik erabiltean nastea sortu leikenak.

Edozetara be alegiñak egin doguz bakoitzari berea emoten nai eta batzutan ain erreza izan ez, orrelako deiturak paperetan errez galtzen diralako.

ABAROA

1704 urtean Bentura Ibaseta agertzen da bertako jaube.

1745'n, Montarron'go kondea.

1796'n, Uriarte'neko familia.

1814'n, **Jose** Kortabitarter

1824'n Josefa Villarreal.

1862'n Erbias'ko kondea.

1895'n **Maria** Josefa Villarreal de Berriz.

1987'n **Bixente** Kortabitarte. Bere emazte eta seme alaba bi bizi dira bertan, eta jaubeak dira.

10 Hektarea.

1973 urtean **Bilbo** Aurrezki Kutxak baserriak apaintzearren emondako sarietan, lenena irabazi eban.

ABITARA (ABITXA)

1704 urtean Felipe Ibarra zan bertako jaube.

1745 urten *Abitera* izenez agertzen da. Domingo Baskaran jaube eta bertan bizi.

1796'n **Jose** Legarra. 1814'n **Migel** Antxustegi; 1863'en **Juan Tomas** Artetxe eta 1895'n **Juan** Gabiola.

1949'n barriztua da.

1987'n etxe bizitza bitan banatuta dago. Leon Urrutibeaskoa da jaubea.

6 Hektarea.

Bestean, Domingo Ikaran. Au utsik dago.

ABITARA BARRI (ABITXA BARRI)

Domingo Ikaran da jaube. Bere senar eta seme bigaz bizi da bertan.

6 Hektarea.

Sagardaua egiteko tolarrea euki eben.

AGIRRE (AGARRE)

1704'tik aurrera, eun urtetan, Atxurrataarrak izan ziran bertako jaube.

1814 urtean **Pedro** Aranbarri agertzen da jaube lez. 1824'an **Jose** Aranzamendi.

1863 urtean etxe bizitza biko lez agertzen da

1895'n **Barbara** Atxurra eta **Migel** Markue ezagutzen dira jaube

1987'n, baten **Joseba** Arriaga jaube lez, bere anaia eta bere arreba alarguna eta onen seme bi bizi dira.

10 Hektarea.

Bestean **Juan** Urkiri eta **Luxia** Atxurra jaubeak eta euron alaba.

10 Hektarea.

AJUBITA

1704 urtean "Axubita" irakurten da; 1745'n "Ajubita" eta 1796'n "Asubita".

Gizaldi bi osotan Lauzirikatarrak agertzen dira bertako jaube.

1863 agirietan esker-eskumako etxe bizitzetan banatuta agertzen da, beti be Lauzirikatarrak agertzen dirala bateko jaube.

1987 urtean Daniel Imaz da zati bateko jaube eta bere emazte eta bost seme alabekaz bizi da bertan.

Beste erdia Iñaki Lauzirika'rena da.

5 hektarea.

ALAGARRE.

Lau etxe bizitzakoa da.

Baten Santiago Gojenola eta Miren Kortabitarte bizi dira, seme alaba bigaz. Miren'en izenean dago.

Beste etxe-bizitzak utsik dagoz. Etxe bizitza bakoitzeko jaubeak Miren, Jon eta Karlos Kortabitarte dira.

Etxe barria.

ALAKUAGA.

1863 urteko agirietan agertzen da lenengoz. Etxe bizitza bi, ezker-eskuma, eta jaubea Jose Andres Atxurra.

Orman au irakurten da:

J.H.S.

Caserío

ALACUAGA

Se hizo año 1854

I Reformado

Año 1952

Gaur bateko jaube lez Ambrosia Garetxana agertzen da eta bere semeagaz bizi da.

10 hektarea.

Besteko jaube Joakin Erkiaga eta Maria Nieves Azumendi.

ALDASOLO

1704 urtean Bartolome Ibarra agertzen da jaube.

1745,1796,1814 eta 1824'ko agirietan, Lauzirikatarrak.

1863'en Teresa Bengoa.

1987'n Eusebio Azpiazu eta Eugenia Erkiaga dira jaubeak eta iru seme alaba eta suiña bizi dira eurekaz.

16,5 hektarea.

ALDEKOA

1704 urtean Martin Aldekoa agertzen da jaube lez.

1745 eta 1796 urtean Min Koskorroza.

1814'n Juan Iturraran.

1824'n Jose Andres Odiaga. Onek barriztu eban etxea, orman irakurten danez:

Esta casa se llama
Aldecoa fue reedificada
por Jose Andres de
Odiaga.
Año de 1846.

1863 urtean Jose Antonio Odiaga da jaube lez ezagutzen dana.
1895'n Martin Koskorroza.

1987'n etxe bizitza bikoa da: Antonio Arriaga da jaubea.

Bera bizi da baten, emazte eta seme alaba bigaz. Bestean Simona Plaza, errenterua.
3,8 hektarea.

ALLUENA.

1863'ko erroltzan Jose Antonio Agirreoa'ren jaubetasuneko ager-
tzenz da.

1987'n Pedro Juaristi da jaubea eta oporretarako erabilten dabe.

AMIAX

1704, 1796, 1814 eta 1824 urtetako agirietan Urrutiatarak ager-
tzen dira Amiax etxearen jaube lez.

Gaur iru etxe ezagutzen dira izen bereko.

AMIAS BEKO.— Bernadino Iturraran eta Francisca Arriola bizi dira
bertan. Jaubeak dira. 13,5 hektarea.

AMIAS ERDIKO.— Jose Itza et Miren Onaindia dira jaubeak eta
ama alarguna eta euren sei seme alaba bizi dira bertan.

14,5 hektarea.

AMIAS TXIKI.— Utsik dago, asteburuetako izan ezik. Antonio
Arriaga da jaubea.

ANITUA

1824'ko agirietan Domingo Odiaga agertzen da jaube lez.

1863'koetan, Josefa Odiaga.

Lengo denporetan baserri au Ziarrotza'ko kolejiataren menpeko
zan. Ara eroaten zituen bertakoak il ondoren an lurra emotera.

1987 urtean Esteban Plaza ezagutzen da jaube lez.

7 Hektarea.

ARANSOLO

1704 urtean Santiago Aransolo'ren izenean agertzen da.

1745'n Lekeitio'ko Konpañia'ko eleizarena.

1824'n Agustin Lekerika agertzen da jaube.
1863 urtean ezker-eskuma banatuta, Amada Batiz da errentak ordaintzen dauzana.
1895 barrio Lekeitio'ko Konpañiko eleiza.
1987'n Juan Arriola eta Teosora Aranbarri dira jaubeak eta semea-gaz bizi dira.
10 Hektarea.

ARMINA

Errota izan zan.
1745'n "Arbina" errota izenagaz agertzen da. Jaube, Damian Bermeoso lo.
1824'n, Domingo Gojenola jaube.
1863'n lanean iñarduan errota bakarra zala esaten da. Juan A.Gojenola jaube.
1895'n Manuel Bermionsolo agertzen da bere arduradun.
1987.— Utsik. Luzia Ikaran da jaubea.
8 Hektarea. Etxerako argi indarra bertan sortzen zan.

AROSTEGI

1704'n Santiago Arostegi, alkatea, zan bertako jaube.
1745 eta 1796 urtetan Jose Bixente Renteria, kapitana. 1824'n be Renteria'tarrak jarraitzen dabe jaubetasunean. 1895'n Jose Ag. (bañez de Renteria'k.
1987.— Timoteo Atxurra'ren izenean dago. Emaztea, seme alaba bi, alaba alarguna eta onen lau seme-alaba bizi dira.
10 hektarea.

ARRANG IZ

1704'n Antonio Mugartegi'ren izenean ezagutzen da.
1745'n Arrangiz-Goikoa'lez agertzen da eta Pedro Madariaga jaube. 1796'en asi eta 1895'ko agiriak arte Ojangoitarrak ezagutzen dira bertako jaube.
1987. Mari Karmen Odiaga eta Fco Madarieta'ren izenean dago. Euren guraso eta anaiekin bizi dira. Euretako bat, Jesus, gizon probetan ibiltzen da.
4,5 hektarea.

ARRATIKA (ARRAZIKA)

1704 eta 1745'n Pedro Mugartegi'ren jaubetasunetan dator.
1796'n, "Arrazika" izenez, Pedro Mugartegi jaube. Gero be 1814, 1824, 1863 eta 1895'n Mugartegitarrak agertzen dira ondasun orregaz.

1987'n Sabin Juaristi da jaubea. Emazte eta semeagaz bizi da.
9,73 hektarea.

ARTETA

1960 inguruan egiña da etxe au. Etxe bízitza bikoia.

Baten Eugenia Arregi alarguna, jaubea, bizi da alaba bigaz.

Besteko jaubeak Hipolito Gabiola eta Fernanda Kortabitarte dira, eta euren alaba eta suiña eta onein semea bizi dira, bai eta zarren alaba ezkongai be.

ARTINERROTA.

1745, 1824 eta 1863 urtetan errota lez ezagutzen da Urte orreitan eta 1895'ko agirietan Adan de Yarzarrena lez ordaintzen dira berari dagokiozan zergak eta errenteruak erabiltzen dabe.

1987. Utsik dago. Jaubetasuna Juan Llasheras'en izenean.

ATXURIARTE

1745 urtean agertzen da lenengoz, barría dala esanez, eta Pedro Atxurra jaube.

Gero, 1895'ko agiriakarte, Atxurratarren izenean jarraitzen dau agirietan.

1987.— Utsik dago. Benito Iriondo da jaubea.

Emen jaio zan euskaldunok jakintsu lez ezagutzen dogun eta gerokoak euskal gaietan langille asperbako lez goratuko dabon Aita Santi Onaindia, karmeldarra.

ATXURRA

1814, 1824, 1863 eta 1895'ko erroztetan, Koskorrotzatarrek ezagutzen dira bertako jaube.

1987'n Jose Luis Gabiola, eta bere emazte eta semeagaz bizi da.

Oraintsu barrizatua dar

12,5 hektarea.

Emengoa zan jatorriz Jose Andres Atxurra, lengo gizaldian Ameriketako Trujillo'n gotzain izan zana.

Etxe onetan jaio zan gure gizaldian, boxeo jokoan, erdi pixuan, España'ko txapeldun izan zan Antonio Gabiolar

1930 urtean il zan Valencia'n, Luis Logan filipinatarragaz jokatu ondoren.

AZUMENDI

1704'n Asumendi-Beitia irakurten da. Jaubea I.Asumendi.

1745'n, Jose Asumendi, jaube.

1796'en Azumendia irakurten da eta Manuel Kortabitarte jaube.

Ala Kortabitartetarrak jarraitzen dabe jaubetasunagaz 1895 agiriak arte.

Etxe-bizitza bi euki zitun.

1987.— Juan Llasheras da jaube eta Iñaki Agirre bizi da, erreteru lez, bere emazte eta iru alagabaz.

Aurreko orman 1870 irakurten da. Ziurretik barriztapenen bat egindako urtea.

BASTERRA

1704'n Pedro Bernardo Villarreal jaube.

1745'n "Basterria" lez irakurten da.

1796'en Jose I. Gallatebeitia jaube. Bai eta 1824 eta 1895 be.

1987.— Rufina Azpiazu alarguna da jaubea eta bere semeagaz bizi da.

10 Hektarea.

BEITIA BEKOA.

1704'n Domingo Gebara da jaubea

1824'n Mateo Odiaga. Onen denporan barriztatua dala dirudi, orman irakurten dalako idazkun au:

Mateo
de Odiaga
1827

1863 be Odiagatarrak jarraitzen dabe jaubetasunean.

1987.— Juan Espilla da jaube eta Lucas Zilloniz bizi da bertan, erreteru lez.

6 hektarea.

BEITIA GOIKOA

1704'n enkantera atara zan eta Domingo Atxurra'k erosi.

1796 urtetik aurrera Abaroatarrak agertzen dira bere jaube.

1987.— Pedro Abaroa ta Isidora Iturran bizi dira bertan, seme bigaz eta eurena da etxea.

6 Hektarea.

Etxe onetako Beitia batek ba dauka zer ikusi Markina'ko Urrijate jauregiagaz.

Juan Ibarra Beitia'k egin eban, baiña onek abizena (apellidua) aldatuta eukan. Izan be Ana Ibarra, Urrijateko etxeoandrea, Juan Beitia'ren emaztea zan, eta Juan Beitia au Amoroto'ko Beitia etxean jaioa, "Escudos de Vizcaya" amargarren liburuko 21 orrialdean irakurten danez.

BEKO ERROTA

1745'n Domingo Koskorroza jaube, eta 1796 eta 1824'n Iñazio Koskorroza.

1863 urtean lanean iñarduala irakurten da.

1987.— Gaur utsik. Tirso Amusategi da jaubea.

BELAKOLA

1745 urtean asi eta 1895 urtean egiñiko errotze eta agiri guztietan Gabiolatarrak dira etxe onen jaube lez

Orma baten au irakurten da:

Belakola se hizo

Año + 1747

Reformado 1954

1954 urteko barrizpana egitean, bere alboan egoan ZIARRIA baserria beratu eben, eta aren arriak erabili ziran barriztapen lanetan.

1987.— Pedro Gabiola da jaubea, eta bere emazte ta seme alabak bizi dira bertan eta erraiña ta illoba.

24 hektarea

Sagardaua be egiten da.

BENGOERROTA

1704 urtean Josefa (bañez da jaubea.

Errenteriarretatik Adan de Yartzatarren izenera aldatzen da 1863 urtean eta 1895'n (bañez de Renteria da jaube lez agertzen dana.

1987.— Florencia Txurruka alarguna bizi da, errenteru lez, alaba, suin eta onein semeagaz.

Jaubea, Joan Llasheras da

3 hektarea.

BERMEOSOLO

1704 urtean Juan Bermeosolo'k konkursu baten artuta eukan. Arrezkero abizen erretakoak jarraitu eben gure gizaldirarte. 1814 urtean Bermionsolo irakurten da.

1987.— Katalina Santamaria, alarguna bizi da, bere naba eta semeagaz, jaubetasuna berea dabela.

BOLUA

1745 urtean agertzen da bere lenengo ezaugarria, "Boluntxo" deitura dauka, eta Torrubia'ko Kondearen jaubetasuneko. 1824'n Molina'ko kondearena dala esaten da, baiña 1895'n barrero Torrubia'ko kondearen izena agertzen da.

1987.— Utsik. Jaubetasuna Jose Malaxetxebarria'ren izenean.

BOLU BARRI.

1934 urtean egiña.

1987.— Utsik dago. Jaubea: Jose Malaxetxebarria.

BOLUNBURU

1704 urtean Santiago Bolunburu'rena lez agertzen da. Eta alaxe jarraitzen dau 1895 urtean be.

1987.— Etxe bizitza bitan banatua.

Baten jaubea Jose Julian Urritibeaskoa Laka da. Bere anai, ama eta ízeko bategaz bizi da.

9,5 hektarea.

Bestean Jose Malaxetxebarria (jaubea) eta emaztea bizi dira, semeagaz.

8 hektarea.

Ogia egiteko laba dago baserri onetan.

DENDARINEA.

1704'tik 1895 bitarteko erroltze eta agirietan, Mugartegi familikoen eta ondorengoen izenean billatzen da etxe au.

1987.— Domingo Imaz'en izenean dago jaubetasuna eta bere emazte ta seme alabak eta anai bat bizi dira.

11,5 hektarea.

DENDARINEA JAUSOLO.

Etxe txiki lez agertzen da paperetan. 1704 urtean Domingo Urrutia'rena. Gero, 1796'tik 1796 bitartekoetan, Erkiagatarrak ziran jaube.

Gaur ez dago.

ELEMENDI.

1745'ko agirietan Lorenzo Antxustegi'rena lez agertzen da. 1863'en Manual Urresti.

Orain Udaletxea da jaubea.

Iru bizitzatan banatua dago.

1.— Erriko taberna. Jesus Bollar, emaztea eta semea bizi dira.

2.— Utsik.

3.— Fernando Hernando eta Maria Imaz eta euren seme bi bizi dira.

ELIZPE.

1863 urtean Pedro Gabiola agertzen zan jaube.

Orain Gerbasio eta Sabina Gabiola dira jaubeak eta alaba eta ama alargunagaz bizi dira.

ELORRARAN

1704'n Maria Gerriko zan jaube eta sutegi erdika lez ordaintzen eban.

1745 eta 1796'n Juan Azubieta edo ta Juan Ajubita agertzen zan. 1863'en bardin.

Bere orman au irakurten da

ELORRARAN

M.A.I.

Año 1904

Orain utsik dago.

ENPARAN

1814'n Jose Eizagirre agertzen da errenteru lez.

1863'en Santo Domingo Bizkondea zan jaube.

Gaur utsik dago. Abaroatarrena da bertako jaubetasuna.

EPERMENDI.

Jatetxea, Oleta'n.

Maria Elbira Laka da jaubea. Bere alabak, suiña eta loba bízÍ díra.

ERKIAGA

1704'n A. Erkiaga zan jaube eta bertan bizi zan. 1745'n Juan Erkiaga.

1796'n Domingo Markue'ren seme txikien izenean egoan eta alaxe jarraitu be 1895'n.

1976 urtean barriztua da eta etxe bizitza bitan banatua. Bateko jaube Bruno Arriaga da, eta emazte, seme eta amagiñarreba bizi dira bertan.

Beste bizitza utsik dago, eta Joakin Arriaga da jaubea. Asteazketan joaten da.

ERREKAKOA.

1862 urtean Jose Antonio Agirreoa'ren izenean agertzen zan.

Gaur utsik dago. Jose Maria Jauregi Eizagirre da jaubea eta asteburuetan etorten da.

ERREKARTE (PATXONEKUA).

1863'en "Errekalde" lez agertzen da eta Joakin Sagasti'ren jaubetasuneko.

1987'n Benedita Laka (jaubea) bizi da bere lau semegaz.

Amar urte inguru dira barriztatua izan zala.

2,5 hektarea.

ERROTABARRI.

1745'n J.Renteria kapitanaren jaubetasuneko zan.

1824'n Jose A.Renteria'rena eta 1863 lanean egoan

1987. Juan Llasheras da jaubea. Francisco Foruria bizi da errenteru lez.

Alarguna da eta bere alaba eta suiñagaz eta onein bost seme alaba gaz.

2 Hektarea.

ETXEZARRA.

1745'n Jose Arizpe agertzen da jaube lez.

1796'en Jose Urkaregi, baiña 1824'n Jose Urkadi irakurten da, eta 1895'n Jose Urkaregi.

1906 urtean erre egin zan.

1987'n Alejandro Antxustegi da jaube. Salvador Gabiola eta Estefana Antxustegi senar emazteak eta euren iru seme alaba bizi dira.

7,8 hektarea.

Etxe au, lengo denporetan, Zenarruza'ko Kolegiata'ren menpeko izan zan eta ara eroaten zituen emengoak il ondoren lur-emotera.

GABIOLETA

1704'n J.Oriosolo agertzen da jaube lez. Gero, 1745, 1796, 1824 eta 1895'n (bañez de Renteria familikoak.

1987.— Utsik dago. Jaubea, Juan Llasheras.

8 hektarea.

GEBARA

1704'ko erroltzean Aixakartegi irakurten da jaube lez. 1745'n MTxakartegi. 1796, 1824 eta 1863'en Odiaga'tarrak.

1987'n be Odiaga (Jose Martin) da jaubea. Seme, errain eta onein lau seme-alabekaz bertan bizi da.

13 Hektarea.

GOIO

1704'n J.Agorria'ren izenean egoan. Gero, 1796, 1863 eta 1895'n Arostegitarrak ziran jaube.

1987.— Juan Manuel S.Ginea eta Eburne Madariaga bizi dira semeagaz. Jaubea Bitoria Gojenola da.

7,5 hektarea. Batzutan Goio-beaskoa izenez agertzen da.

GOIO-ALDEKOA.

Lengo denporetan Amiax'tarrak ziran bertako jaube.

Orain utsik dago. Daniel Kortabitarte da jaube. Abereak daukez bertan.

20 Hektarea.

GOIOGANA

1704'n Franzisko Aldekoa zan jaube. 1745'n Juan Goiogana.
1796, 1814, 1824, 1863 eta 1895'n Koskorrotzatarrak.
Orain etxe bizitza bi. Bata Leon Gojenola'ren izenean dago eta bertan bizi da Hilario Ugarteburu eta alabeagaz.
Bestea Domingo Gojenola'ren izenean dago eta anai bigaz bizi da.

GOIOTXU.

Utsik dago. Ganaduak alakitzera etorten dira bertakuak egunero.

GOITI BEKUA.

1704 urtean Diego Atxurra zan jaube.
1745'n Juan Leniz. 1796'n (bañez Aldekoa J.M. 1863 eta 1895'n be (bañez Aldekoatarren izenean egoan.
Orain etxe bizitza bitan dago.
Baten Jose Onaindia eta M.Luz Anakabe bizi dira seme bigaz.
Jaubeak dira.
Bestean Maria Ulazia, alarguna, jaubea, seme bigaz.
9 Hektarea.

GOITI GOIKOA.

1704'n Iñazio Asterrrika zan jaube. 1745'n Jose Asterrrika.
Orain Mari eta Bitori Maruri dira jaubeak. Aste buruetan etorten dira. Orain, batzuk, "Maruri" deitzen dautse etxe oneri, edo "Marurine".

GUILLERMONEA

Iru etxe bizitzadun etxea da.
1.— Utsik. Jabier Txakartegi da jaube.
2.— Mari Tere Txakartegi'rena da. Bere senar Manu Maguregi eta seme alaba eta amuma bizi dira bertan.
3.— Ibaigane izeneko jatetxea dago bertan.
Manu Maguregi da jaubea. Jose Iñazio Bilbao eta Jose Iñazio Madarieta bazkidea dauke errentan eta azken au bere emazte eta semeagaz bizi da.

IBARRA. (IBARRIA)

1704 urtean Bartolomé Ibarra'rena zan eta enkantera atarata egoan.
1745 urtean Lekeitio'ko Konpañiako Eleiza agertzen da bere jaube eta alaxe jarraitzen eban 1895'n.
1987. Etxe bizitza bitan banatuta aurkitzen da. Bateko jaubeak Juan Iturraran eta Tomasa Ibarra dira eta bertan bizi semeagaz batean.
7 Hektarea.
Beste bizitza utsik dago. Jaubea Ramon Atxurra. 5 Hektarea.

IDARRETA.

Idarreta bi ezagutu ziran aldi batenr Andia eta txikia. Txiki au, edo Idarreta bekoa be deitzen zana, galdu zan eta Andikoak dira bere inguru jaubeak.

"Idarreta" edo "Irarreta Andia", 1704'n, Antonio Burgaña'ren jaubetasunpean ezagutzen zan.

1745'n Diego Koskorroza zan jaubea. 1796'en Juan Koskorroza eta 1863'en Jose Diego Koskorroza.

1987.— Pedro Ikaran'en jaubetasunean ezagutzen da. Bertan bizi da emazte eta alaba bigaz, bai eta anai bat, ama alarguna eta izeko be.

Etxe onek, bere etxeéurreko gain-aldian, irudi polit baten azpian, esaera au ipinita dauka: Obra hau eguin eban Juane coscorraza eta 1 rartetacoc.

Beste toki baten, etxe sarrerako arko biko eusgarriaren erdian, aolku jakingarri au:

Eguiten
badoc bierra
jango doc
ogia.
Año 1754

IKARAN GOIKOA

1824.— Molino de Ikaran mayor lez agertzen da paperetan. Jau-bea Jose Ant. Ikaran.

1863'en, lanean iñardun errota lez, Jose Ant. Gojenola jaube zala. Berriatu'ko parroikiko eleiztarrak.

Orman au irakurten da:

Jesus Maria
Casa llamada Gojenola
construida por Jose An-
tonio de Gojenola año 1878

Emilio Gojenola eta emaztea (jaubeak) bizi dira bertan semeagaz.
12 Hektarea.

ITURGATXA.

1704 urtean Francisco Arrasate zan jaube eta bertan bizi.

1745'n Juan Urrutia.

1796.— Urte onetatik geroko paperetan Iturraran'darrak agertzen dira bertako jaube.

Len etxe bizitza bikoa zan.

Gaur Jose Zabala Onaindia'ren izenean dago eta bertan bizj da aitita ta amumagaz.

Orman, etxe aurrean, idazki au irakurten da:

Esta Casa reedificó
Pedro Jose de
Iturraran
Año de 1861

ITURRARAN BEKUA.

1704 urtean eta 1745'n, Min de Iturraran'en izenean dator. 1814 eta 1824'n Bengoatarren izenean. 1853'en Antonio Urrutibeaskoa.

Orain Jeronimo Urionabarrenetxea da jaubea eta bere emazte eta onen neba bi bizi dira eta loba bat.

22,5 hektarea.

Etxeko orman au irakurten da:

Egiten ba doc biarra
jango doc ogia.
Esta obra hicieron
Santiago Iturran
Beiti y su hijo Juan
de Bengoa yo olabara.
Año 1784

ITURRARAN GOIKUA

1704'n J.Ailon agertzen da jaube

1745'tik 1863 bitarteko agirietan Agirreotarrak.

1987.— Karlos Onaindia eta Puri Anakabe, jaubeak, iru seme alabekaz bertan bizi dira.

IURREA (IDURRI)

1704 urtean Jose Goiokoa agertzen da jaube eta Jose Arrinda bertan biziten.

1745'n "lurrikoa" deitzen da etxea, eta ordutik aurrera Adan'tarren jaubetasunean ezagutzen da.

1987.— Jaubea Juan Llasheras da eta Santi Urrutia bizi da bere emazte, seme bi eta ama alargunagaz.

2,5 hektarea.

IZADI (IKADI,IKEDI)

1704 urtean Mln Txakartegi da jaube lez ezagutzen zana. 1745'n Andres Zilloniz, abadea. 1796 urtean Izadi'ko Madalenak sortutako

Ontasun Ekintza, au da, "Obra pía"; 1824'n Amoroto'ko parrokia da beragaitik ordaintzen dauana eta 1985'n be Ontasun Ekintza orren izenean jarraitzen dau.

Orain be etxea eleizarena da eta Juan Kruz Laka, emaztea eta seme alaba bi bizi dira bertan, errenteru lez.

4,5 hektarea.

JAUSOLO (PATXIKALENA)

1704'n Jausolo bat Migel Oriosolo'ren izenean dago eta bestea "Jausolo Goikoa" Katalina Olaeta'ren izenean.

1796'en "Jausolo Leniz'ena" eta "Jausolo Koskorrotza'rena" agertzen dira. Leniz deitzen dana (bañez de Aldekoatarrena da eta Koskorrotza deiturakoa Franzisko Goitiandia'rena 1895'ean.

Gaur "Patxikalena" deiturako au Manuel Zatika eta Itziar Kortabitarte'ren izenean dago.

13 hektarea.

KALIA.— (ETXATXUA)

1704 urtean Franzisko Arrasate zan jaube.

1863'en Juan Bta. Azpiri.

1987'en Jose Kortabitarte eta Braulia Laka dira jaubeak eta seme alabekaz bizi dira.

4 hektarea.

KASTILLU.

1704 agirietan esaten da: erretako etxe lez agertzen da. Anton Atxurrarena izan zala eta solo bat daukala berak darabillana.

1745 eta 1798'n Bermeosolotarrena lez agertzen da, bardin 1814, 1824 eta 1863'ko agirietan. 1985'n Martín Takartegi zan jaube

1987'n jaubea Jorge izeneko bat da, Aulesti'ko Mouxo baserrian bizi dana.

Utsik dago.

KLAUDIO JATETXEA.

Oleta'n.

María Arostegi da jaubea.

Guztira 9 lagun bizi dira, senitartekoak, au da, alarguna, koñatu alarguna eta beste senar emazte bikotzak euren seme alabekin.

KOSTOZA (KOSTATZA)

1704 urtean Zakarias Zubieta zan jaubea.

1745 ezkeroztik Adan de Yarzatarrak.

1987.— Utsik dago. Jaubea Juan Llasheras.

LARRAUN.

Galdu zan.

Juaristi Bengoetxeatarren izenean dago ingurua.

LEGARDA. (LEGARDIZ)

1863 urtean Martin Iturraran'en jaubetasuneko zan.

1987.— Franzisko Gabiola da jaube eta bere emazte eta 5 seme alabekaz bizi da.

LENIZ (LEIZKUA)

1704'n Domeka Iturraran zan jaube, 1745'n Leniz'ko Juan. 1796'tik aurrera (bañez Aldekoatarrak agertzen dira. Ibarra y Bergé'k bere "Escudos de Vizcaya" liburuan diño: "una rama de los Léniz (de Lekeítío) se estableció en la anteiglesia de Amoroto".

1987.— Etxe bizitza bikoa da. Baten jaube (bañez Aldekoatarrak eta Ramon Itza bizi da bertan errenteru lez. 3 hektarea.

Bestearen jaubea Maria Bitoria Leniz. Bere senar eta iru alabekaz bizi da.

3 hektarea.

MENDIKO

Etxe au erre egin zan 1983 urteko Maiatzaren 31'an, oiñestu baten ondorenez.

Iru egoitza daukaz.

1.— Asteburuetako erabilten dana.

2.— Jose M.Espilla jaubea, bere emazte eta seme alaba bigaz asteburuetan agertzen da. 6,5 hektarea.

3.— Trinidad Barrutia da jaubea eta Juan Maruri senarragaz bizi da.

6,5 hektarea.

MOKOGANA

1863 urtean etxe-bizitza bitan banatuta agertzen da, nai ta jaube bakarra euki: Jose Luis Abaroa.

Orain utsik dago. Abaro'tarrak dira jaubeak.

MUNITIZ (MUITIZ, MUTXIZ)

1704 urtean Santiago Bolunburu'ren izenean egoan.

1796, 1824, 1863 eta 1895'n Gabiolatarren jaubetasuneko.

Azken urte onetan Errementaria be agertzen da *izen* onetan.

1987. Maria Pilar Odiaga'ren izenean dago jaubetasuna. Bost lagun bizi dira bertan.

13 Hektarea.

ODIAGA

1704 urtean Julio Likona agertzen da "Odiaga Etxezar" izenekoaren jaube eta bertan bizi zan. Urte berean "Odiaga Etxenagusia" be agertzen da eta Domingo Odiaga bertako jaube.

Gero, 1796, 1824, 1863 eta 1895'n be Odiaga'tarrak agertzen dira jaube eta bertako bizilagun. Etxearen orma baten 1775 irakurten da.

1987.— Utsik dago.

ODIAGA ETXEBARRI.

1704 urtean Antonio Atxurra'ren izenean egoan. 1745'n Jose Atxurra'renean.

1796 eta 1895'n be Jose Atxurra "abadea" agertzen da jaube lez.

1987.— Sabino Gabiola eta emaztea dira jaube eta bost seme ala bizi dira.

Orma baten au irakurten da:

Me Ilamo Odiaga

Etxeba-rria.

1751

12 hektarea.

OKABIO (OKABIXO, OKABITZA)

1704 urtean Pedro Berriz de Villarreal zan jaubea. 1745'tik aurrera Adan de Yarzatarrak agertzen dira jaube lez.

1987.— Utsik dago. Juan Llasheras da jaube.

OLAETA.

1704 urtean Buenavista'ko markesa ezagutzen zan jaubetzat.

1745'n Diego Atxurra.

1814'tik aurrera Iñazio Koskorrotza.

1987. Juan Urresti eta Eugenia Bengoetxea dira jaubeak eta iru seme alabekaz bertan bizi dira.

7 hektarea.

OLALDE.

1824'n Olalde'ko errota lez ezagutzen da eta Adan de Yarzatarrena.

1987.— Juan Llasheras da jaube eta Juana Arakistain dauka erreterutzat.

2 hektarea.

OLARAN BEKUA

1863'ko agirietan Ezker-eskumatan banatutako egoitza lez ezagutzen da eta Jose Luis Abaroa jaube.

1987.— Jaubea: Abaroatarrak. Utsik dago.

OLARAN GOIKUA

Jose Luis Abaroa izan zan etxe onen jaube. Gaur be, utsik dago, baiña jaubetasuna Abaroatarrena da. Etxe au Zenarruza'ko kanonigoen menpeko izan zan.

1477 urtean ezagutzen zan.

OLETA ERROTA.

Gaur galdua. Tirso Amusategi da inguruaren jaube.

ORZERIAGA

1863 urtean Erbias'ko kondearen izenean egoan.

1987. Utsik. Jose, Paula eta Maria Pilar neba-arreben izenan dago. 23 hektarea.

PAGOZULO.

1863 urtean ezker-eskumadun etxe-bizitza lez agertzen da. Jaubea: Jose Luis Abaroa.

1987.— Utsik dago. Jaubetasuna: Abaroatarrena.

PONTXEKUA

1704 urtean ELEMENDI izenez agertzen da. Gero etxe bi atara ziran bertan.

Lengo "Elemendi" eta "Pontxekua" au.

Etxearen jaube Gabiola Belaustegitarrak dira.

Baten Mikel Laka bizi da, emazte eta 3 seme alabekin. MIKEL TABERNA dauke.

Bestean: Karlos Gabiola ta emaztea eta alaba.

Bertakoen esanetan, Pontxekua deitura onetatik dator: Lengo denporetan, Ameriketara joateko oitura egoanean, ementxe batzen ziran adiskideak pontxea edanaz agurra egiten. Pontxea ur, ardu, limoe eta koñaka naastauta egiten da).

SAKRISTAUNEKUA

1987.— Etxe bizitza bi.

Jaubea Gotzaitegia (Obispadua).

Bat.— Opor-aldi ete aste buruetan erabilten da.

Bestean Santiago Zabala bizi da errenteru lez.

SORGINBIDE (ZARKINBIDE)

1863.— Jose Luis Abaroa zan jaube.

1987.— Utsik dago. Abarotarrak dira jaubeak.

SUTEGI TXORIENA.

"Sutegi", txabola bat da. Len errementaria izana. Etxepare Altimas Senar emazteak bizi dira.

"Txoriena", errota izan zan. Utsik dago.

Jaubea: Tirso Amusategi.

TALO

Errota izan zan. 1824'n Pedro Goitiandia'ren izenean egoan.

1863 urtean geratutako errota lez ezagutzen da orduko papere-tan.

Gaur utsik.

TELLERIA

1704.— Urte onetako paperetan irakurten da Torre Etxearena zala. "Gaur landu bako soloak euki ebazan eta oiñetik ebagi zan gaztañadia eta mendi batzuk eta eurekaitik Domingo Laka'k ordaintzen dau."

1745'tik asi eta 1895'ko agiriakarte Kortabitaretarrak agertzen dira jaube lez.

1987.— Angel Bermeosolo eta Karmele Kortabitarte dira jaube eta euren lau seme, anai eta guraso alargunak bizi dira bertan.

TORRIA.

1863 urtean Jose Iñazio Leniz'en jaubetasuneko ezagutzen zan.

1987.— Rafael Uriarte eta Rufina Gandiaga'ren izenean dago. Euren guraso eta loba bategaz bizi dira bertan.

TXAKARTEGI.

1704 eta 1745'n Txakartegi izenekoen jaubetasunez ezagutzen dogu.

1796 eta 1863'en Gabiolatarrak dira bertako jaube.

1895'n barriro Txakartegitarrak.

1987.— Antonia Uberuaga'ren jaubetasunean agertzen da eta bere seme ta errain eta onein seme bi bizi dira bertan.

17 hektarea.

TXOPITEA. TXOPITXE.

1704'n Maria Urkiaga zan jaube. 1745'n Antonio Txopitea.

1796 urtean Maria Barbara Koskorroza agertzen da eta Berria-

tua'ko bizilaguna zala esaten da. Urte onetan "Txopite barri" lez agertzen da.

1895'n be jaubetasun bardiñean ezagutzen da.

1987.— Bizenta Eizagirre bizi da, semeekaz.

24 hektarea.

Etxe au Zenarruza'ko Kolejiataren menpeko izan zan eta 1557 urtean ba dagoz bere asterrenak.

URGOEN (URGON, URIGOEN)

1704'n irakurten danez, urte aretan barriztuten ebiltzan.

1745'n "Urgoren", 1796'en "Urguen", bietan Unzuetarrak jaube dirala.

Gero be 1824, 1863 eta 1895'ko agirietan Unzetatarrak jarraitzen dabe jaubetasunean.

1987.— Manu Amutxastegi eta Mertxe Gabiola dira jaubeak eta seme alabekin bizi dira.

8 hektarea.

URGOZUAGA

Etxe au eleizagaz batera egiña dala esaten da. Iturri bat dago bertan, ur gozoa.

Ortik etxearen izena. Sakristauarentzako egiña dala diñoe zarrak.

Gaur utsik dago. Benita Lauzirika da jaubea. Bertako abereak larrean bizi dira.

10 Hektarea.

Len liñu lanak egiten ziran bertan, eta ingurukoak be ementxe batzen ziran liñua gertuten.

URIARTE

1704 urtean enkantera atarata egoan. Dgo. Uriarte'ren ondorengoena zan.

1716, 1863 eta 1895'tan Domingo Gabiola.

1987'n Migel Laka Gabiola'ren izenean dago jaubetasuna eta Dominga Laka alarguna eta alabak bizi dira.

URIARTE BARRI

1955 inguruan egiña da.

Etxe bizitza bikoia. Jaubea Hipolito Laka da. Baten bera bizi da emazteagaz eta alaba ezkondu ta senarragaz.

Bestean, Antonia Gojenola, errenteru lez.

URRUTI

Iru Urruti ezagutzen doguz: Urrutibeaskoa. Urruti-goienengoa, Urruti erdikoa.

Urrutibeaskoa Urruti-beitia lez be ezagutzen da. Edo ta Bisko lez. 1704'n Dgo. Urrutia zan jaube eta 1745'n Juan Urrutia. 1796'en Juan Urrutibeaskoa eta 1863'en Juan Jose Urrutibeaskoa. Gaur be Urrutibeaskoa da bertako jaubea. Eta bere emazte, seme bi eta arreba bat bizi dira bertan.

9 hektarea.

Urruti-*goenengoa*, "Urrutia" soilik be erabilten da. 1745'n Urrutigojeaskoa" lez eta 1796'en "Urrutigoseaskoa."

Gaur Domingo Erkiaga eta Irene Arregi dira jaubeak eta bertan bizi dira iru semegaz.

Urruti-erdikoa.

1796 urtean Migel Amiax'ena zan. 1814, 1824 eta 1863'en Juan Erkiaga edo ta Domingo Erkiaga agertzen dira jaube. 1895'n barrero Migel Amiax.

ZEARRA (ZIARRA)

1796 urtean agertzen da Belakoia'tarrena zala etxe au. Origaitik 1954 urtean Belakola baserria barrizatzean, bere alboko Zearra au beratu eben.

Gabiolatarrak ziran bertako jaube.

ZEDIÑE. (ZEDIÑE ETXEBARRIA).

1863'en Jose Domingo Maruri'rena zan.

1987'n Irene Arriaga, alarguna, bizi da erreteru lez. Jaubetasuna Daniel Maruri'rena da.

ZERELLA (ZEILLE)

1704 urtean Nikolas Loibe'ren izenean egoan.

1745 eta 1796'en Jose Landaguren'enean.

1824 urtean errota zan, eta jaubea V.Larramendi. 1863'n be errota lez ordaintzen eban eta Franzisko Arana zan jaubea. 1895'n etxe eta errota Xabier Landaguren ren izenean egozan. Urte onetan "ferreria regatera" lez agertzen da.

Errota lez 1950 urte inguruan galdu zan.

1987, utsik dago.

ZEILLE BARRI.

Errotaren ondoan jasotako etxea. Norberto Zabala da jaubea eta bertan bizi da emazte, seme alaba, alabaren emazte eta lobakin

ZULUETA.

1745'n "Ziloeta" izenagaz agertzen da. Juan Erkiaga zan jaubea. 1796'en "Zuloeta" eta Domingo Markue'ren seme txikiena zan. 1824'n

Markue-Erkiaga agertzen da jaube lez. 1863'en Juan Bta. Markue eta 1895'n be Dgo. Markue-Erkiaga'ren seme txikiena lez ezagutzen da.

Etxe bizitza bi. Baten Angel Ibarra bizi da bere alaba eta suin eta onen seme alaba eta izekoagaz.

10 hektarea.

Bestean Jose Mari Arrieta eta emaztea ta iru seme alaba. Bien jaubea Angel Ibarra da.

ZULUETA BARRI.

1950'n egiña. Etxe-bizitza bikoa.

Baten Arantza Ibarra (jaubea) bizi da senar eta alabagaz.

5 hektarea.

Bestean Jesus Angel Ibarra da jaubea.

5 hektarea.



Korta on bat.



UDALETXEA



ABADE ETXEA



ABARO



ABITARA




ABITARA BARRI



AGIRRE (AGARRE)



AJUBITA



ALAGARRE



ALAKUAGA



ALDASOLO



ALDEKOA



AMIAX GOIKO



ALLUENA



AMIAX TXIKI




AMIAX ERDIKO



ANITUA



ARANSOLO



AROSTEGI



ARMIÑA



ARRANGIZ



ARRATIKA



ARTIN ERROTA



ARTETA



ATXURI ARTE



ATXURRA



AZUMENDI



BASTERRA



BEITI



BEITI BEKO



BEITI GOIKO



BEKO ERROTA



BELAKOLA



BENGO ERROTA



BERMEOSOLO



BOLUA



BOLU BARRI



BOLUNBURU




DENDARINEA



ELIZPE



ELEMENDI



ELORRARAN



EMPARAN



EPERMENDI



ERKIAGA



ERREKAKOA



ERREKARTE



ERROTABARRI



ETXEZARRA



GABIOLETA



GEBARA




GOIO



GOIO ALDEKOA

0910 XU 010





GOIOGANA



GOITI BEKUA



GOITI GOIKUA



GILLERMO ENEA



IBARRA



ITURGATXA



IDARRETA



IKARAN



ITURRAN BEKUA



ITURRAN GOIKUA



IURREA (IDURRI)



IKADI



JAUSOLO



KALIA



KASTILLO



KLAUDIO



KOSTOZA



LEGARDA




LENIZ



MENDIKO



MOKOGANA



MUNITIZ



OKABIO



ODIAGA





ODIAGA ETXEBARRI



OLAETA



OLALDE



OLARAN BEKUA



OLARAN GOIKUA



OLARAN GOIKUA (GARAIXE)




ORZERIAGA



PAGOZULO



PONTXEKUA



SORGINBIDE (ZARKINBIDE)



SAKRISTAUNEKUA



SUTEGI TXORIENA



TELLERIA



TALO (ERROTA)



TORRIA



TXAKARTEGI



TXOPITEA



URGOEN



URGOZUAGA



URIASTE



URIARTE BARRI



ZEDIŇE



URRUTIA



URRUTIA BEASKOA



ZERELLA (ZEILLE)



ZERELLA BARRI



ZULUETA



ZULUETA BARRI

Azken baten lurra dogu gure jauregi.

Armarrri, torre eta etxe jauntzak ona etorten dira, Kanposantu txiro, baiña baketsu onetara. Neketan bizitako baserritar errentariak bardin.

Atsedan toki berbera danontzat.

Len eleizetan, geroago eleiz atadian, orain emen, Amoroto'ren istoria egin ebenak, egiten díardenak eta egingo dabenak, lurrak alkartuko dauz, lurrak baketu eta lurrak aupatu.

Beste etxeen gain dago kanposantu au.

Ixil eta mutu, baiña beti bertara begiratu eragiten.

Zaindu daigun lotsaz bertan diran eta egongo diranen loa.



LEA I NGURUTAKO BERTSUAK

(Bertso oneik soil-soil kantaten dabez batzuk. Bestetan, esaera bat eta beste nasteen erabiliaz, doñua errepika-ala bertsoa be erabilten dabe).

Agostuen lenenguen
San Pedro Mendixakua,
etxat sekula astuko
ordujo illuntzekua.

Errekaldian asuna,
etxeko andre lizuna,
sorgiñak eroan bei
errekaldian barruna.

Andre Marija Irailgoz
Arraten erromerija,
neu be araxe nola
eiten ez ba dau eurija.

Au da pandero barrija,
Gernikatik ekarrija
amar errial pagetakoa
eztala urre gorrija.

San Pedro santa Klaretan
neska zarrak bentanetan,
nobijua topetako
Santiago Santanetan.

Altuan San Antonio,
bajuan Madalenia,
bien bitartian dago
Txkurzuloko bentia.

Neure nobijuen ama,
asto baten jaube dana,
astuak ekarrikotso
etxian biar dauana.

Olgadu nai dabienak
Karmengo egunian
etorri Markiñara
ai, oi illun nabarrian.

Eskontzeko diñost amak,
neure modulo batekin,
dotia emongo daustela
ollua bost txitarekin.

Urkiolara jua da
oiñetakuak apurtu,
Aita San Antonik
barriak eingo dautzuz.

Neure kapela makurra
beti tabeman gura,
alako baten itxikot
azunberdiren kontura.

Gora ta bera luziak,
gerrija dindilia,
kolore zuri gorri
dabil probintziana.

Bentanan dauan damia,
begi ederren jaubia,
ojala ba ziñatekez
gorputz da arima neuria.

Oraingo neskatillak
tonillo tonillo,
eztago tonillorik
majoranak baiño.

Nabarriz ta Amoroto,
Santa Eufemia mendi,
areitan iruetan
aize otza sarri.

Despedidia dator ta
zagoze kontuan,
akabatzero noia
urrengo puntuan.

Eperrak kantaten dau
Arrate ganian,
neskarik ederrenak
Allusti aldian.

Amak emongo baleustaz
amar amaseiko
ezkonduko nitzateke
al, oi uda barrirako.

Gorengo ganbarara
bidia da labana,
topiñan sartu jaku
mutil barrabana.

Tiriki tauki tauki
malluaren otsa,
amalau argin baiño
oba da arotza.

GIZABURUAGA

GIZABURUAGA

- 1) LEA ibaian gora
herritxo bat bada
zer polita izena
Gizaburuaga
Garen guztiak, beraz
burudunak gara
hain bakoak botatzen
dabez erre kara

- 2) Berrogeiren bat etxe
ez gara gehiago
kaleko zaparrada
zororik ez dago.
Osasunean barriz
askoz sendoago
ez daukagu presarik
beste mundurako.

- 3) Erditik luzetara
urak ebakia
pasabide gozoa
gure herri txikia
Baina txikitasuna
ez da atxakia
datozen guztientzat
badago tokia

Xabier Amuriza

ERRIAREN DEITURA

Juan Ramon Iturriza, kondaira idazleak, bere "Historia General de Vizcaya"n diñoanez, eta bere esanetan Juan Iñiguez Iburguen'ek bere "Crónica general española y Sumaria de la Casa Vizcaya"n diñoanari jarraituz, antxiñako denporetan Gizaburuaga, gaur Gizaburuaga dana, Ibaibaso deitzen zan.

Gerra bat galdu eta gizon asko buruak kenduta gertatu ziralako geratu jakon oraingo izen au.

Geroago Iturriza'k diñoa jaso izan dabe bere atzetik Bizkaiko historiari ikutuz errien agerpideak emoten alegindu diranak. Ala Delmas'ek bere "Guía del Señorío de Vizcaya" liburuan'

Gudaketa ori Amargarren gizaldian izan zala frantzetar eta bizkaitarren artean, eta bizkaitarren kapitan lez Napar Erregeen arteko zan Ermengoa deiturako bat ibili zala, esaten da.

Toponimian aitua diranak, toki izenetan zerbait dakienak, ez dautse ezelako zentzu eta egokitasunik eta aukerarik emoten G izaburuaga izenari emon nai dautsen esan gureari.

Izaburuaga, edo Itzaburuaga errezago iruntsiko leukie izen jatorizat, sarri gertaten dan lez asierako izki (letra) bat geituta, kasu onetan Gizkia geituta.

Jakiña da gure erri askotan ur egalak ia edo itzaz beteta egoten ziral eta itza edo iaen gain-alde edo antzeko esan-bidea artuko leuke orretara.

Edozetara be deitura or dago. Len Ibaibaso deitzen zala sinistuta be, eta ori ontzat emonda be, Amargarren gizaldia ezkeru GIZABURUAGA.

Gure aldetik geitu bear dogu Iburguen-Cachupin'en kronikari ez dautsela askok ziurtasunik eta duintasunik emoten, euren esanetan kondaira eta ipuiñak sarri naastuten diralako bertan, batez be etxe, toki, inguru eta oitura eta usarioei buruz jardutean.

Zeaztuta, izkuntzalari batzuk esan-nai au emoten dautse:

"Gizaburuaga = iatzaren gain-aldea, au da, "la parte alta del juncal", de iz, iza = junco y buru = cabeza y el subfijo aga con la G protética."

Edo baita "parte alta del retamal".

Gizaburuaga itza ezin lei "gizon buruak" esanguraz artu, Izaburuaga'tik datorren lez baiño. (Isaak Lopez Mendizabal, "Etimología de Apellidos Vascos".

Jose A. Mugika'k "Apellidos de Iberia" liburuan bardintsu diño:
"Iza=junco eta buru-aga = parte alta del juncal".



1778 urtea irakurten da Kurutze onetan.

LEKUTZE ETA BESTE JAKINGARRIAK

Gizaburuaga'ri	buruz zeaztasun oneik emon leitekez:
Erri erakundez:	Eleizatea da (anteiglesia). Udala: Alkatea eta beste lau ziñegotzi.
Merindadez:	Busturia merindadeko. Gernika'ko Batzarretan, eleizateen artean, 21 garren emoten eban bere autarkia.
Auzitegiz:	Gernika.
Bideak:	Durango'tik Lekeitio'rako errepidea deitzen dana igaroten da bertatik. Bilbo'tik 50 kilometrotara.
Tren-bidea:	Aukerakoena, Gernika'n, 24 kilometrotara.
Ibaia:	Murelaga'tik ja Oleta'n, Amoroto'ko lurraldetan sartu arte, Lea ibaía igaroten da, aran estu baten, geienetan baketsu.
Geografi egoera:	43.º 19' 40" zabaleran. 1.º 08' 45" luzerakoan.
Inguruak:	Sorkaldean: Amoroto. Egoaldean: Murelaga. Sarkaldean: Nabarniz. Iparraldean: I pazter.
Mendiak:	Illuntzar, (723 metro) mendiaren oiñetan.
Izkuntza:	Euskera. Markiñaldeko bizkaiera.
Irakaskintza:	Gaur Gizaburuaga'n ez dago umeentzako eskolarik. Lenengo maillakoak batzuk Lekeitio'ra joaten dira eta San Anton Kofradiakoak Murelaga'ra.
Alderdikeriak:	Euskaldunak, Oñaz eta Ganboa'tarren jobidez jokatzen eben "jauntxoen" denporetan, Oñaztarren aldetik ibiltzen zan eleizate au.

AUZOZ-AUZO

Gizaburuaga, txiki izanarren, lau auzotan banatzen da:
EGUEN auzoa.
LARIZ auzoa.
LAXIER auzoa.
OKAMIKA auzoa.

EGUEN AUZOA. Erdi aldeko auzoa da, erri eta eleiz agintaritzak eta bizitza batzen diran tokia.

Auzo onetan batzen dira erri-jokabideko tokiak. Ala:
Udaletxea eta eskoletxea,
Santa Katalina omenezko parrokia.
Kanposantua.
Pelota-toki eta proba lekua. Jolas tokia.
Abade-etxea eta udal liburutegia.
Taberna etxe bi: Etxe zar (Bar Tere) eta Taberna etxea (gaur utsik).

Baserriak

Berezikoa.
Eguen bekoa.
Eguen erdikoa.
Ereza torrea.
Goiztu.

Errotak.

Errotabari.

Ur-arkak.

Errotabarrizkoa.
Auzo onetan, guztira, 30 lagun inguru bizi dira.

LARIZ AUZOA.

Auzo onetan egitura oneik lekutzen dira:

Baserriak eta etxeak

Andramari-isoleta.
Arrangiz.
Beketxe.
Erreka
Esuneta
Goisko.
Lariz.

Lariz Oleta
Lejardi
Etxe bizitza biko bat.
Beste bat Lariz Oletan.

Errotak:

Errota zarra.
Urgitxir

Ur-arkak

Errota zarra.
Lariz Oleta.

'abiak

Lariz Oletakua.
Beketxekua.

Oillotegiak


Bi.

Sagardautegia.

Bixkor



EGUEN AUZOA



ERROTA ZARRA

Elektra indar eragillea.

Gaur noiz jausiko.

LAXIER AUZOA

Auzo onetan billatzen diran egiturak:

Baserri eta etxeak.

Agirre (Agarre)

Akuriola.

Albinerota.

Bengola torrea.

Goikoetxea.

Laxier Goikoa (Utsik)

Laxier Bekoa (Utsik)

Errotak

Ereza errota.

Errotatxu.

Ur-arkak.

Ereza errotakoa.

Erotatxukoa.

Zubiak.

Ereza Errotakua.

E rrotatx u koa.

OKAMIKA AUZOA.

Auzo onetan sartzen diran egiturak:

Baserri eta etxeak.

Goikoetxea.

Goikoetxe.

Igoarrizar

Landeta.

Oibar.

Okamika bekoa.

Okamika goikua.

Telleria. (Orma utsak)

Txopene (Utsik eta jausten)

Urrejola.

Ermidak:

Oibar'ko Andra Mari.

Errotak

Bengola errota (jausita)

Olak

Bengolakoa. (des-egiña)

Ur-arkak.

Bengola.

Zubiak.

Bengola.

Industri-aldea.

Azken urteotan inguru onetan sortu da Okamika Industrialdea.



AITZ ZULO

ZEAZTASUN BATZUK

Lea-Artibai lurraldeko erriak ez dira danak be andi eta ugariak bizi-lagunez.

Txikiena, Gizaburuaga.

Bizkai guztiko maillan bigarren gitxiena da. Arakaldo da bizi-lagun gitxiago daukazana.

Eta lurraren neurritz, ba dagoz inguruan lur gitxiago daukenak, nai eta bizi-lagunez mardulago izan.

Esateko,

Lekeitio'k 1,77 kilometro lautu daukaz bere jaubetasuneko lurretan.

Ondarroa'k 3,61 km².

Gizaburuaga'k 6,33 km².

Bizkai lurraldeari osotasun baten begiratuta, ba dira Gizaburuaga'k aña lur ez dauken eleizate eta uriak.

Ara:

Sukarrieta'k	1,48 km ² daukaz.
Elantxobe'k	1,81 km ² daukaz.
Arakaldo'k	2,58 km ² daukaz.
Ubidea'k	2,97 km ² daukaz.
Portugalete'k	3,10 km ² daukaz.
Arantzazu'k	3,28 km ² daukaz.
Etxebarri'k	3,38 km ² daukaz.
Sestao'k	3,70 km ² daukaz.
Mundaka'k	4,10 km ² daukaz.
Izurza'k	4,32 km ² daukaz.
Ugao-Miraballes	4,54 km ² daukaz.
Fruniz	5,86 km ² daukaz.
Murueta	6,09 km ² daukaz.

Bizi-lagunetara biurtuta, 1973 urtean 178 lagun bizi ziran emen; 1978'n 159 eta 1983'en 147.

1986'ko azken erroltzean (zentzoan) 136 bizi-lagun batzen ziran.

Euretatik, erriari bere itxura artzeko, geroako ikuspegi bat ikusteko, sailkapen au gogoratu eta kontuan artzeko da:

Gizonezkoak 68 eta Emakumezkoak 68.

Gizaldiaren asieratik, amamaka urtez ikusita, Gizaburuaga'ko berakada etenbakua dala esan bear.

Ara:

1900 urtean 371 bizilagun eukazan.

1910 urtean 344 bizilagun eukazan.

1920 urtean 316 bizilagun eukazan.

1930 urtean 306 bizilagun eukazan.
1940 urtean 323 bizilagun eukazan.
1950 urtean 323 bizilagun eukazan.
1960 urtean 252 bizilagun eukazan.
1970 urtean 167 bizilagun eukazan.
1980 urtean 139 bizilagun eukazan.
1986 urtean 136 bizilagun eukazan.

Labayru istori idazlearen esanetan, 1463 urtean, 20 "fogera" egozan eleizate onetan eta danetara autortzako adiñean sartuta egozala 80 lagun. Zenbaki orreri umeak geitu ezkerro, eta kontuan eukita "fogera" bakoitza, batez beste, bost lagunek osatzen ebela, eun lagun inguruan ibiliko zan urte aretan erri au.



Gizaburuaga, erri txiki danez, erri serbitsuak be erbestetik artu bear.

Ala, osagillea, Aulesti eta emengoa bat da, eta Aulesti'n bizi da.

Botika, Lekeitio edo Aulesti'tik ekarten da.

Anbulantzia, Lekeitio'tik.

Su amatatzailleak, Markiña'tik.

Telegrafoa, Lekeitio'tik.

Ez dago ez arraindegirik, **ez** okelategirik. Bata nai besterako, Lekeitio egiten da egokien


Erri agintaritza alkatea eta beste lau ziñegotzi (kontzejalek) osotuten dabe.

Orduaria.

1914 urtean ipini zan orduaria Santa Katalina'ko parrokiaren orman.

Egillea: Iñazio Murua'ren semeak, etxea. Gasteiz'koa.

Esfera mekanikoa dauka, tren bi, oskintza, eta 101 x57x107 zentimetro neurriz.



Lanaren arasoia Gizaburuaga'n.

Okamika industrialdea lanean asteen, Gizaburuaga'ko laneko sailkapena zero aldatzea gertatu lei.

Gaur gaurkoz, 51 lagun dira lanean diarduenak, 16 lan sailletan, eta len lanean ibili eta lanik barik azken erroltzean bost lagun agertzen ziran.

Onela sailkatzen ziran lan bako onek:

Profesional eta teknikariak 2

Ostatu-serbitsariak 1

Nekazariak 1

Pioiak 1

Eta lanean inarduen berrogei ta amaika lagunak , beste era onetara:

Profesional eta teknikariak 3

Irakasleak 1

Ardularitzako serbitsutan 1

Merkataritzan 1

Saltzailleak 2

Ostatu etxetako serbitsutan 2

Nekazaritzan 24

Arraintza 2

Sidero metalurgian 1

Paper gintzan 2

Jan edarietako iangille 2
Mekanikariak 4
Elektramekanikoak 2
Forjaketan 3
Irakorletan 1
Itxas merkataritzan 1

Ur freskua

Gaur kiroldiegiak egiten dagon ardura, gure gurasoak errietara urak eroaten euki eben.

Erraz igarten da, errietako iturriak ikusita, aldi bakoitzeko agintarien lana nundik ebillen.

Gizaburuaga'n be 1888 urtean batu ziran errirako urak eta or dago, lekuko, testigantza emoten, erriko iturria.





GIZABURUAGA

PARROKIA

Jakiña da emengo eta inguruko parrokiak, len ermita ziran tokietan jaso zirala XVI garren gizaldiaren asieran.

Gizaburuaga'ko parrokia egiteko, Amoroto eta Ipazter'ekoagaz batera, Errege Katolikoak izan ziran erri oneitako bizilagunen gurariz, Alejandro VI garren Aita Santuari eskubide ori artzeko eskaria zuzendu ebenak.

Gero, jakiña da 1519 urteko Martian eldu zala Erroma'tik, Leon X garrenaren bula bat, iru erri oneitako eleiztarrak Lekeitio'ko parrokitik askatu eta euren buru jarteko baimena emoten, nai eta Lekeitio'koari lotsa zaindu eta eskintza batzuk emoten jarraitu bear.



Orrek beartu egiten eban Lekeitio'ko parrokia, bertako abadeen artetik bat Gizaburuaga'rako izentatzera, emen biziteko aginduagaz.

XVI garren gizaldian Gizaburuaga'rako eleizak 4.300 marabedi ordaintzen zitun, urteko emaitzen ordez, eta Franzisko Adan de Yarza'k eroaten zitun eskintza orreik, parroki au etxe orren agindu eta zaintza-peko zalako.

Gero, XVII garren gizaldian barriztu eta zabaldu eta egokítua izan zan, erritarren lan eta laguntzaz.

Parrokiak 75 oin daukaz luzera eta 35 zabaleran.

Len, illetak barruan egiten ziranean, 40 illobi egozan barruan.

Parroki au Katalina deunari eskiñia da.

Len parroki onetan flamenkar erako erretaula baliotsu bat egoan, eta gaur Bilbo'ko Museo Arqueológico eta Etnográfico deiturakoan gordeten da.

Liburu onen atzeko azalean agertzen da erretaula ori.





ELEIZ LIBURUAK

Jakiña da azken urteetan, ziurtasunagaitik eta bide batez Bizkai guztiko eleiz liburuak artxibo baten batzeko asmoa beteaz, orrela ikasleak be euren ikasketak egiteko toki baten errezago eta aukeratsuago egin al izateko, Derio'n dagon Artxibutegi andira eroan izan dirala parrokirik geienetako liburuak, gure gizaldiaren asiera artekoak.

Derio'ko Artxibutegian dagozan Gizaburuaga'ko parrokiko liburuak oneik dira:

- 1.— "Bautizados" 1857-1883.
- 2.— "Bautizados", Confirmados y Finados.— 1628-1691
- 3.— "Bautizados", Confirmados y Finados.— 1691-1786.
- 4.— "Bautizados". 1745-1786.
- 5.— "Bautizados", Confirmados y Finados 1786-1842.
- 6.— "Bautizados" y Confirmados 1818-1873
- 7.— Casados 1908-1967
- 8.— Casados y avisos de fuera 1908-1964
- 9.— Confirmados y Perpetuales 1690-1983
- 10.— Confirmados 1892-1927
- 11.— Finados 1828-1912
- 12.— Funerales y Clamores 1889-1938
- 13.— Fábrica.-Libro de cuentas 1707-1768.
- 14.— Fábrica.-Libro de cuentas 1769-1845.
- 15.— Fábrica.-Libro de cuentas 1846-1975
- 16.— Ermita Oibar 1905-1926
- 17.— Acción Católica
- 18.— Acción Católica.
- 19.— Cofradía del Rosario.
- 20.— Capellanías y Sacristía.
- 21.— Matrícula.
- 22.— Culto y Clero.
- 23.— Culto y Clero.
- 24.— Aniversarios.

LENGO OITURA BATZUK

Parrokiko kontuetako liburuak irakurtean, agertzen dira tartetan gauza oargarri batzuk.

Sakristaua eta olioia.

1707 urtea.

Otsailla'ren 14'an, urtero lez, sakristaurari 130 libra olio emon eutsezala irakurten da, urteroko oitura lez, urtean eleizan bear izaten zan argitarako.

Andik urte bira aldakuntza dator.

Liburuetan esaten da: Konturatuaz olioak geiagotzen dauala

Otsaillean, Urtarrillean baiño, erabagi zan aurrerantzean sakristauari bost arroa eta bost libra olio emotea Urte barri inguruan, Otsaillean ordeztu.

Eta ba dakigu zegaitik Urtarrillean merkeago izaten zan. Liburuan bertan irakurten da zegaitia: Urtarrillean mandazaiñak etorten ziralako olioa ekartera.

Nun dantzatuten eben antxiñakoak?

1722 urtea.

Kalagorri'ko gotzaitegiko ordezkariak eleizara denporaldiko ikertaldia egin eta bere adierazpenak egitean, ikusitako akats, utsune edo ta okerre buruz, au idatzita laga eban:

Eleizako kanposantuan dantzan egiten zala jakinda, agintzen dot, au argitaratzen dan une berbertatik asita, dantzarik ez daitela egin kanposantuan, egiten dabenak une berbertaitik eleizatik kanpora atara edo exkomulgatzeko zigorrez.

Domeketako biarrak.

1722 urteko ikertaldian au be; len esandko ordezkariak agindua:

Igarten da jai egunetan ez dala beteten Eleizaren legerik, euretan premiña barik egur eta ikatz karrioak egiñaz, bai eta olaetan be jai gabetan edo aurre egunekoan lan egiñaz, eta agintzen dot orrelakorik egiten dabenak eleizatik kanpora atarata geratu daitezala.

Idi probak

1730 urtea.

Urte onetan, parrokoiko kontu liburuetan, errial biren sarrera agertzen da, jai egunez idi probak egin zituenei parrokoak ipinitako isun edo multagaitik.

Itxuraz abade arek "konpesateko" pekatutzat baiño naiago izan eban diruzko zigorgarritzat artu idi-proba jai egunez egitea.

Jaiak eta dantzak

Bengoleatarren kartetan be jakingarri asko billatzen dira:

1652'ko Irailla'ren 12'ko karta baten au irakurten da: Andra Mari jaiak baketan eta danen atsegiñez egin dira.

Bikario jauna be etxera etorri da eta pozik laga gaitu berak Maria'gaz dantza asi eta ni, erren lez, Ursulagaz atzean ibiliz.

Azken dantza izan zan eta onena, erriko auzokide guztiak dantzan egin ebelako euren emazteekaz, eta ez zan itxi, eta ausartu be ez, andre "soltera"rik, ezkonduak eta neskatillak besterik.

(Oarra: Gizaldi aretako oiturak gogoratuaz esan bear da "soltera" ez zala ezkongai zeatza zalako deitzen, ezkondu ezarren neskatilla izatea galdu ebenei baiño).

Geroago be idazki berbetan irakurten da: Apal ostean, barriro Bikarioak dantza bat gidatu eban, eta etenda geratu zan bere kabriola eta dakiazan jirabirak egiten.

Igandean ez kendu zezenik euki, erri askotan oitura ori geiegi sartu egonarren, baiña antzarrak euki genduzan, eta astelenean be zezenak eta martizen goizean be beste bat edo bi erabili ziran.

Bengolea'ra etorten ziranak oraingo beroak kentzeko aukeran euki dabe Uriarte torretik ekarritako txakoliña; besteetat ardaugari egon da erriko tabernan, nai eta ogi gitxi.

Osagille tunantea?

Euki dogun osagilleak aitarenka laga gaitu danok eta batez be ni. Etxera ekarrita neukan zaldi bat, ikaslea bertan bialtzeko Oñate'ra osagille orrek mesedez berari lagateko esan eustan, Ondarroa'ra osterata egiteko, andik deitu eutselako gaiso bat ikustera joateko. Baiña... Frantzia edo Naparroa'ra zaldi ta guzti iges egiña dalakoan gagoz. Zortzi egun dira joan zala ta geiago ez da agiri, eta dakigunez Markiña'tik Elgoibar'erako bidea artzen ikusi eben.

Nik bialdu neban bertoko zaldi-zaíña bere billa, baiña itxuraz berandu, egun bi atzerago, eta uste dot oneri bera billatzearren emon neutsazan 10 errialak be galtzea besterik ez dodala lortuko. Azken



baten zaldia be ordaindu egin bearko dautsat jaubeari. Osagille orren etxea ikustera joan gara ta ez dago an amar errialik be balio daben libué ru zar batzuk besterik, eta ez eban laga alkondara batik be. (1951-1-24)

Umea eta bizioak.

Neska txikia makal daukagu. Itxuraz bizioak dira. Jaungoikoak eta Ama Birgiñak zaindu gaiezala. (28-VIII-1652).

Barrero bizioekaz eukí **dogu** neskaturia eta Eleizako liburuko otoi eta san Antonio miraritsuaren bizioen aurkako otoitzagaz onera ekartea lortu dogu eta oraín bera bakarrik ibilteko gai da. (3-X-1652)..

Lau eguneko jaiak.

Jaiak lau egun iraun dabe eta Ursula andrea nekatuta eta jota geratu da, lau egunetan etxetik urteteko astirik be euki ez daualako, astelenean eta ordu betean eta ia indarrez bertara deituak atarata egin eban kaleratze txikia izan ezik.

(12-IX-1652)

LENENGO MEZA BAT GIZABURUAGA'N

Gizaburuaga'n jaiotako en liburutik zarrena, 1628 urtean asten da eta ordutik 1691 arteko bataiatuen agiriak gordeten dauz.

Aurreragokoak ez jakin Lekeitio'n batzuk eta besteren batzuk Aulesti'n sartuko zituen, edo Gizaburuaga bertan bestelako paperetan eta galdu.

Liburu onen asierako orri bi ezin dira irakurri, tinta be galduta daukelako. Eurretan lau partida dagozala bai oartu leike, bai eta alboetan agertzen diran izenak be, geiagoko barik.

Lenengoa Catalina da, bestea Santiago, irugarrena Maria eta laugarrena Pedro. Baiña ezin geiago irakurri ez eta abadearen izenik be, au da, agiria izenpetzen dabenaren izenik.

Gero, 1634'ko Uztailla'ren 2'an egindako bataioa da ondo irakurten dan lenena.

"Yo Rodrigo Abad de Solarte, Beneficiado y Cura..." Bateoa artu ebana Pedro Mugartegi eta Lariz-Olaeta da.

Beraz ziurtasun osoz, emen bataiatutako lez jaiotzako agiria emon leiken lenena ori da.

Onen urrengo, zortzi egun geroago, Catalina Oriosolo Garesana'ren agiria dago. Beste amaika egun geroago Marina Igoarriza Landaeta'rena, eta ondoren, Irailla'ren 9'an, Maria bat, Bidagorri'ko Manu eta Aranzadi'ko Madalena'ren alaba.

Bidagorri eta Arantzadi Berriatua'ko baserriak dirala kontuan eukiaz, eta abizenak be angoak, leike, len sarri gertaten zan lez, ume au angoa izatea.

Lau oneik Rodrigo Solarte abadeak bateatuak ain zuzen. Eta ba dirudi, laster emendik aldatu ebela, geroago Iñigo Markue (Marque) agertzen dalako bateotako agiriak egin eta ziurtatzen.

Baiña besteak itxita, oraingo onetan len aitatu dogun abadea, Rodrigo Solarte da erabili nai doguna.

A abade egin zanean, lenengo meza ospatuteko zelako jataldia egingo zan Gizaburuaga'n, Markiña'ko Juan J.Mugartegi'k kontatuta dakigu.

Onek, Markiña'ko eskribadu (notario) izan zan Clemente del Puerto'ren artxiboko liburutako agiri batetik atara eban.

1628 urtekoa da.

Len aitatu dogun Rodrigo Solarte'ren amak aren mezarako, lenengo mezarako erositako janari eta gaien zerrenda da.

Zegaitik nai izan ete eban ama orrek, lenengo mezarako gastuen papera, Markiña'ko eskribadu baten aurrean agertu?

Ez jakin.

Dana dala, papera or dago, eta Mugartegi'k "Lo que costó una misa en Guizaburuaga" lana, RIEV aldizkarian agertu eban 1930 urtean. (RIEV-XXI-202-205 orrialdeak).

Guk euskeraz esango dogu, arek erderaz argitaratu ebana.

Au da:

Lenengo, bost anega gari, anega bakoitza 30 errialekoa.

Bai eta beste bost anega, bakoitza 27 errialekoa.

Eta anega bi eta laurden bat, 29 errialetan.

Bai eta anega bi intxaur, bakoitza 16 errialeko.

Eta sotana eta manteoa 29 dukat ordainduak.

Eta amabi libra pasak, libra bakoitza errial bat eta amabi marau ordainduta, au da, guztira, 16 erria) eta laurden.

Eta txalen iru min, Pedro Gamarra'ri ordainduak.

Beste ogei errial emon neutsazan Rodrigo'ri kapela bat erosteko.

Beste 25 libra eta laurden urdai, libra bakoitza errial bat ordainduta.

Eta arrautzatarako ogeitamar errial emon nitun.

Beste berrogei errial, Juan Ortiz Zabaljauregi'k bialdutako amalau oillo ordaintzeko.

Bai eta Juan Ortiz'en alabari emon eutsezan sei libra bakallau erosteko dirua, libra bakoitza 24 marauetan.

Beste erria) bat, Ispaster'eko Juan Hernando'ri emona.

Beste zortzi errial, Beyngolea batxillerraren etxean erositako anega erdi adoren orde ordainduak.

Eta sei txorizogaitik iru erria).

Eta San Joan'eri Gasteiz eta Bilbo'rako osteretako emondako 14 errial eta laurden.

Eta gaztaiñak 24 errial ordaindu nitun.

Beste amabi errial sagarretan.

Anisetarako, errial bat.

Laka'ri eun eta amar errial emon neutsazan oillotarako, eta 30 oillo eta kapoi bi ekarri zitun.

Kanela, azafrana eta piper-autsetarako, zortzi errial.

Bai eta berreun eta larogei ta amazpi errial Min Urkiza'ri ordainduak, zaragi bat ardauri, gozakia eta pasak, gaztaia, gozoki eta Mercader'ek bialdutako beste lau kutxa erosteko.

Eta gozoak ekarri zitun urun-lariari, lau errial.

Domingo Itza'ri, ardauri, gozakia, pasak eta gaztaia ekarteko, 24 errial.

Eta iku-saku bat, Min Uskola'ren emazteari ordaindua, amasei errial.

Urtutxiga eta Maintxe'k Gizaburu'tik ekarritako 5 libra urdai eta laurdengaitik, 62 errial eta erdi.

Lea'ko ospitalean erositako oillo bategaitik, iru errial.

Urtutxiga eta Maintxe'k ekarritako oillo bigaitik, sei errial.

Aulesti'tik ekarritako upel bi arda zuri, danetara 19 azunbre, iru errial eta 10 marau azunbreko ordainduta.

Eta Arrasate (Mondragoe)tik ekarritako azak, ekarte ta guzti, 28 errial.

Eta Angela'ri bialdutako olio, libra bi, sartaiñako gauzak gertuteko, libra bakoitza iru errial eta iru laurden ordainduta.

Eta Zubietara bialdu ziran lau oillgaz batera etxetik bialdu ziran amaika oillo, 33 errial.

Ispaster'eko tanbolin jotzailleari ordaindutako sei errial.

Eta Gerrickaiz'eko tanboliñari, 36 errial.

Eta Lekeitio'ko aita seme tanbolinteruei, kaskabil eta guzti, 62 errial.

Eta Arrangiz'eko Maria'netik ekarritako 5 arrua arda zuri-txakolin, pitxel bakoitza 49 marauean, gustira 82 errial.

Domingo Barrena'ren txalagaitik, bederatzidukat eta 99 errial.

Eta mostaza, sei errial.

Beste 150 errial emon neutsazan Peron'eri aariak erosteko, eta bost ekarri zitun eta il ziran. Euretatik bi Ondarroa'n 80 errial ordaindu zitun, eta seigarren bat Peru Gamarra'ri emon jakon eta bere dirua ordaintzeko dauka.

Bai eta txakolin gorri upel bi, upel bakoitza 2 dukat ordainduta, 5 dukat dira.

Beste sagardau upel bat, irurogei ta amar errial ta erdi.

Bai eta beste lau anega, laurden gitxiago garitan, bakoitza ogei ta bederatzidukat eta erdi ordainduta, gustira 110 errial.

Eta Eleizako Abade Batzako maiordumu dan Uribe jaunari, 149 errial.

Dirutza oneik, guztira 2.894 errial eta beste iru laurdenera elduten ziran, eta denpora areitako dirutza andia eta baserrietako familiak nekez ordaindu al eikiena. Oneik, ziurretik, buruari ats asko eragin bearko eutsen ori baiño premiñazko beste gauzetarako poltsea zabaltzeko.

Orixe da Mugartegi'k kontaten dauana.

Gaiñera gogoratzen dau Foruak, bai Bizkaia'n eta bai Gipuzkoa'n, orrelako gastuak galarazoteko neurri andiak artuta eukezala.

Gure aldetik, Bizkai'ko Foruak bere Bostgarren Legeko XXXV garren atalean diñona zeatz-meatz gogoratuko dogu, urte batzuk dirala Pedro Puxana abadeak euskeratu eban "Bizkai'ko Forua" liburutik artuta:

"V Legea. Meza barrietara eta ezteguetara nortzuk joan daitezkan, parrokitik kanpora ospatu ezkeru.

Baita, esan eben: Ikusien gaiñera ikusi izan dala, Bizkaia'n, Meza barri ta eztegu ta bateo ta gaubela ta illetetara

ots egiten dalako, kalteak eta okerrak eta galbideak geitu ta geitu egin dirala (okerrok ezagun-ezagunak diranez, emen ez dira aitatzen), eta orrelakoak kentzeko, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik eta Legetzat ezarten ebela gaurgero ezin daitekela Bizkaitarrik, ez Gizakumerik ez Emakumerik zein Meza barritara zein Epistolatara zein Ebanjeliotara Parrokitik at joan; eta nor bere Parroki-barruan edo andik kanpora, naiz deituta naiz deitzeke, ezin daitekela ez eztegutara ez bateotara Gizakumerik edo Emakumerik joan orrelakoaren edo Meza barri emoillean aurretikoa edo ondorengoa edo irugarren mailla barruan zearkako ezkon-aidea edo odol berekoa izan ezik; joan ezkerro, amar milla marairen nekepean berea dan leiñuko Aide Nagusiarentzat; eta joan daiteken pertsona baktxarentzat, joaten dan baktxeko, milla marairenpean: Baita: Parrokitik at ez daitezala gaubelatara ez illetara joan, aitaturiko Senide ta ezkon-aideak laugarren mailla barruan izan ezik, zigor berarenpean: Eta Aide Nagusiak euren Senide ta euren leiñukoen Illeta eta Gaubelatara joan daitekezala (euren Parrokitik kanpora izan arren) etxean daukezan morroiekaz eta eurek nai dituen beste sei gizakume geiago daroezala, aitaturiko zigorra eureganatu baga; eta geiagorik eroango ba lebe, eurak eta eurekaz doazanak zigor orrenpean jausi daitezala: Irutatik bat Errege-Dirutegirako, bestea Konderriko bideen konponketarako eta irugarrena salatariarentzat eta bete-eragipena egin ebanarentzat erdi-bana dala."

Ara zelan Foruak neurriak artuta eukazan, baiña...

OIBAR'EKO ANDRA MARI

Gizaburuaga'ko zaindari.


1557 urtean Zenarruza'ko Kolejiatari bere amarrenak eskintzen ezagutzen da.

Aldi aretan, ermitako zaindari lez, serora edo "beata" bat eukiten eban.

Bearrizanean egozanentzako ospital bat be ba eukan, eta paper zarretan irakurri leikenez, zazpi oe egoten ziran ospital orretan.

Serorea eta gaiso zaindaria aukeratzea Zenarruza'ko Kolejiatakoen eskubideko zan.





Ermitaren neurria 15 x 9,27 metrotakoa da. Aurrea arlanduzkoa.

Lizarralde Aita frantziskotarrak, Andra Mariaren ermitei buruz idatzitako liburuan, Bizkai'ko saillean, au diño: Azaleko erialdien eta makalaldien osagille edo ongille dala, eta origaitik auzoetako asko urreratzen dirala bertara, geien bat itxas gizonak.

Antxiña Zenarruza'ko Kolejiatako Abata nagusia zaldi gaiñean etorten el zan bertara Andra Mari egunean et Ermitari eta bertako egoitzari ikertaldia egiten ebala, bertako eskubidedun eta jaun nortasuna agertu nairik.

Ermita onetako gurtza, kultoa, serorak zainduten eben, orretarako inguruetan ukarrak eta laguntzak eskatuaz.

1752 urtean barriztatua izan zanean, Iñazio Villarreal de Berriz jauna izan zan barriztapen orretako kostua bere gain artu ebana. Urte aretako Abenduaren 25'an sagaratu (konsagratu) eban eleiza Zenarruzako buru zan Iñazio Erkiaga jaunak. Au lekeitiarra zan.

Barriztuta dagon era ikusita ba dirudi antxiña entzute andia eukala ermita onek.

Oibar'ko Andra Mari'ren irudia txikia da: 0,59 metro luze. Gotikotik Pizkunde bitarteko girokoa da.

Len, Padua'ko Antonio eta Nikolas Tolentino deunen irudiak egozala esaten da, baiña sute baten erre edo galdu ziran.

1980 urtean be ermita oneri sua emon eutsen, aurrez aldarea gasoliñez buztita.

Oibar'ko eleizarako eraspen andia gordeten eben len itxastarrak, batez be euren ekiñaldietan erramuetan tosta gaiñetan jezarrita egitean, odol batu eta zaldarrez beteten ziralako, eta Andra Maria'ri argitarako olioia ekarri ta bertako argi-ontzitik ataratako olioagaz euren zauriak igortziten ekielako.

Nunbaiten irakurri leikez onelako kantuak:

Ametz egin neban bart.

Oi, bart!

Pozarren nebillela

aurrean ikusi neban Oibar,

eta bertan,

Andra Mariren belaun ganean,

Semetxoa, jaiki nairik,

indar eta indar.

Ikusi nai arek


Gizaburuko erri eta ibar.

Oi, bait!

Amesetan ikusi neban Oibar,

eta nire soiñeko azal ustela

beriala osatu zan bart.



Oibar'eko jaiak Irailleko Andra Mariz ospatuten dira.

Jaiaren biaramonean, gizaburutarrak Oibar inguruan batzen dakie, bakoitzak etxetik janari gertuak eroanaz, eta gero, janari orreik, erritarren artean trukatzan dakiez edo alkarregaz danenak jan, orrela erriaren batasuna erakutsiaz.

Lengo zarrak oituratzat artuta euken, erri batzar bat egitea Dagoni-liaren 24'an, san Bartolome egunez, jaiak gertuteko asmotan, eta batzar orretan erriko ordezkari bat aurkertatzen zan jaiiei egokien guztia berak eroan edo bere kontura itxiaz.

Aulestiarrak be beti euki izan dabe Oibar'erako joera, eta batez be ekaitz, izurrite eta antzerako gertaeretan, Oibar'eko ermita onetara etortzen ziran, errogatibak egiten.

Orrelako bat, egualdia ontzeko, 1652 urteko Uztailla'ren 18'an egin eben.

Emengo baserritarrak, beste aldetik, etxeko dabe San Anton, nai ta bere ermita Aulesti'ko lurretan egon.



Albiñerota'ko San Anton.

ABADE ETXEA

Lekeitio'ko abadeak, edo andik Gizaburuaga'rako izentatzen zituenak, ba ekien egun osotan emen bizi barik, Lekeitio'n bizi al izateko aitzakiak billatzen.

Bein baiño geiagotan etxea ipinten eben aitzaki.

Igarten da auzia ez zala urte bat edo bestetan, eta abade bat edo bestegaz sortu. Sakonagoa zan.

Gizaburuaga'ko parroko abade etxea, Lekeitio'ko parrokiaren jaubetasuneko zan, eta ba dirudi andik ez zirala asko alegintzen etxea konpondu eta egoki eukiten.

Gizaburutarrek, nai eta parroki asko edo eskubide osoko euki, ba eukezan Lekeitio'gaz antxiñatik etorkiezan lotureak. Bestetik nabari da Lekeitio edo bertako abadeak minduta geratu zirala parrokiak banatzean, batez be aldi aretan amarrenak eta asikiñak euken gorabera ikusita.

Dana dala, urteak urte sarri billatzen da alkar artean anaitasuna eta alkarren lotsa illuntzen eban zerbait.

1665 urtean, Okamika'ren "La Villa de Lequeitio" liburuan irakurri leikenez, (81 orrialdean) Lekeitio'ko Abadeak barriro nai izan eben Gizaburuaga'ko eleiz serbitsua Lekeitio'tik egitea, au da, abadea Lekeitio'n bizita, baiña Gizaburuaga'ko bizilagunak Aita Santuagandik artuta euken Bula gogoratu eragin eutsen, eta bertan agintzen zana betetera beartu.

1764 urtean Kalagurri'ko Obispaduko Ikerlariak Gizaburuaga'ra bere oiturazko osterea egin ebanean, abadetxea jausten egoala eta barrizatzen alegintzeko eskatu eutsan erriari.

Gauzak ez ziran samur eta gozo egongo lekeitiar eta gizaburutarren artean, Obispaduko Ikerlari zan Angel Ruiz Oteo'k Ondarroa'ko bikarioari bitartekotasuna eskatzeko, etxe barria egin edo konpondu al izateko alegiñetan.

Migel Brevilla Ondarroa'ko bikarioa Lekeitio'ko parrokiaren ordezkari zan Anton Zabala'gaz batu zan;emengo erriari deitu eta batzarrean batu eragin eta oneik bertako bizilagun eta etxe jaube zan Pedro Villarreal de Berriz eta Bengoetxea'ri eskatu eutsen, erriaren izenean alegintzeko abade etxe bat gertuten.

Itxuraz, abade etxe zarra Lekeitio'ko parrokiarena zalako, gizaburutarrek kate ori eten nai eben eta euren egin edo gertu.

1767 urteko Uztaillean erria batzarrean batu zanean, lenengotan etxe zarra obispaduari eskatzea pentsatu eben, baiña Villarreal de Berriz jauna gertu zan auzi au gogoz artzera eta etxe barria egiteko dirua batu eta orretarako ardura eta zeregin guztiak bere gain artzera.

Eta orrela, 1768 urterako amaitu zan abade etxea, aurrerantzean arako izentatzen ziran abadeak zer esanik ez eukiteko eran.

Gogoratu bear da Lekeitio'ko parrokiak, beretzako artuta edo jau-betuta eukazala Gizaburuaga'n beste etxe eta ondasun batzuk. Esateko, Lariz Gojeaskoa errota eta bertako ondasunak, Lariz-Barrenetxea, Lariz-Olaeta, Landeta eta Bengoetxea etxeak.

Gaur abade etxea, utsik egoalako, batez be azken urteotako abaderik eza bitartean dagola, konponketa bat egiña dauke Eleizak eta Udalak bertako zati baten Udal Liburutegia ipinteko, Bizkai'ko Aldundiaren laguntzagaz.



JATORRIZKO ETXEAK. OINETXEAK

Oiñetxe, nai jatorrizko etxeak deituten dira famili batzuk eta abizen (apelliko) batzuk daukezan sortzetiko etxeei. Erderaz "casas solariegas".

Erri guztiak daukez euren sorkunak, gero bertatik arturiko izena zabaltzeko iturri izan diranak.

Gizaburuaga'n oneik kontatu leikez:

Akuriola
 Agirre (Agarre)
 Albinagorta.
 AndraMari-soloeta.
 Amiax.
 Aranzibia errota.
 Arrangiz.
 Beaskoetxea.
 Bengolea.
 Eguen beko.
 Eguen erdiko.
 Ereza.
 Errotabarri.
 Errotatxu.
 Esuneta.

59 ACURIO.
 dr Gv.,abviwgo



331 BENGOLEA



Gorostizua
 Landeta
 Lariz-Barrenetxea.
 Lariz-Beazkoa.
 Lariz-Gojeaskoa.
 Lariz-Torretxea.
 Lariz-Olaeta.
 Laxear bekoa.
 Laxear goikoa.
 Okamika.
 Oibar.
 Telleria.
 Ugarriza.
 Urkitxi.
 Urrejola.

Oraintsu Jaime Kerexeta'k agertu dauan CASAS SOLARIEGAS DE BIZKAIA liburuan izen guzti orreik agertzen dira Gizaburuaga'ko oiñetxe lez.

266 AARIAS




1223 TELLERIA



1262 UGARRUZA



1356 URREJOLA



Errotak eta burdiñolak.

Gizaburuaga, erri txiki izanarren, errotak egoteko erri aukerakoa izan da. Orretan Lea ibaiak berezitasun andia emon eutsan.

Istorian zear erroten artean onelako izenak irakurten dira:

Aguas paradas.	Errotabarri
Aranzibia.	Errotatxu
Bengolea.	Errotazarra
Ereza.	Lariz.

Burdiñolen artean, beste oneik ezagutu izan dira:

Bengolea andi.	Ereza
Bengolea txiki.	Lariz Olaeta.



UDAL-ETXE BARRIA

1859 urtean, Epaila'ren 6'an, Udaletxea jausten egoala eta erritarrak, kezkatuta, barria egin bearrean aurkitu ziran. Baiña dirurik ez egoan eta egin nai ba zan, erriaren jaubetasuneko mendien bat saldu bearko zala pentsatu zan.

Alaxe, udal gizonak batzarrean batuta Ballastegi deiturako gaztañadia saltzea erabagi eben.

Erabagi ori artu ebenen artean Jose Santiago Arostegi (alkatea) Jose Agustin Itza, alkate ordea, Pedro Goikolea, Pedro Itza, Pedro Bengoetxea eta Domingo Arostegi sindikoa egozan, bai eta errian egozan etxe eta lur jaube ziran Jose Okamika, Antonio Gabiola eta Jose Maria Itza be.



Baiña euren erabagiak indar gitxi eukan erriko "jauntxuak" edo etxe jaube nausi ziranen baietzeko barik, eta origaitik lenengo Erbias'ko kondeari bere languntza eskatzea erabagi eben, eta era berean beste etxe jaubei.

Ala geroago baietza emoten izenpetu eben Erbias'ko kondearen ordezkariak, Ojangoiti'ren arduradun zan Jose Antonio Txapartegi'k, Valdespina'ko markesaren arduradun zan Julian Tellaetxe eta Peñafiorida'ko kondearen ordezkari zan Tomás Ibaseta'k.

Danon baimena artu ondoren, Gizaburuaga'ko alkateak, Udalaren izenean, Bizkai'ko Aldundiari eskabidea egitean, au esaten eutsan:

Aspaldi batetik arda klaretea saltzen zan tokian egoala Udaletxea eta egoera txarrean, noiz jausiko egon be. Origaitik errian bizi ziranak, eta errian ondasunak eukezan guztiak erabagi ebela Udaletxe barri bat egitea, eta orretarako erriaren jaubetasuneko zan Ballastegi gaztañadia saltzea erabagi ebela, an ataraten zanagaz etxe barri ori egin al izateko.

Aldundiak baietza emon eban, baiña baldintza lez ipinten eban, gaztañadiaren enkantea (subastea) egun bitan egitea, egun batetik bestera zortzi eguneko bitartea itxita; eta bigarreanean artuko ziran azken erabagiak, lenengo egunean eskiñetako dirutzak baiño gitxienez euneko bost geiagoko izan bear ebela.

Orrela, lenengo egunean eskintzen zana oiñarri lez geratzen zan, gero aren gaiñeti, zenbateko ziur bat oiñarritzat egoala, saltzea egiteko eran, erriak bere ondasunak edozelan emon barik.

Udaletxea egin zan, baiña ez orain dagonaren tokian.

Oraingoa, alboan eskoletxea daukala, oraintsu egiña da.



EZKONDU BEAR?

1867 urteko Urria'ren. 23'an, Errege agindu bat egon zan, erri txiki asko larri eta keixatuta itxi zituana.

Auzia, gain-gaiñetik, au zan: Berreun auzo lagunetik gora eukezan erriak, lengo antzera jarraituten eben.

Ordez, berreun auzo-lagun edo "bezino" tara elduten ez ziranak, auzorik urren euken auzo edo erriagaz alkartu bear ziran.

Urte orretan Gizaburuaga'n, 58 auzolagun (bezino) kontatuten ziran, eta origaitik, iru laurden legua baiño bitartean ez egozalako (legua bakoitzak bost kilometro eukiten zitun) Murelaga'gaz batu bear zan.

Era berean Amoroto eta Mendexa be alkarregaz alkartu bearrean aurkitzen ziran, Amoroto'k 108 auzo-lagun eukazalako eta Mendexa'k 65, eta bata besteagandik legua laurden bat baiño ez egoalako.

Legeak esaten eban erri bakoitzak bere berezitasunik ez ebala galduko, bakoitzren ondasunei eutsi al izango eutsela, nai eta besteATEGAZ alkartu, baiña legerako, eskubide osoko udaltzat artu eta eza-gutu al izateko, alkartu bear zirala.

Orren aurka gogor jarri zan Bizkai'ko Aldundia, eta geroari begira, ba dirudi bere asarreak zotin eragin ebala.

Auzo-lagun (bezino) eta bizi-lagun (habitante) artean dagon aldia ikusteko, jakin bearreko da aldi aretan Gizaburuaga'k 338 bizilagun eukazala; Murelaga'k 1419; Amoroto'k 652 eta Mendexa'k 336.



Umeak, bertakoak eta erbestekoak aize garbia arnasten dabe erri txikietan.

AU, ORI TA BESTE

Kondaira eta gertaerei, era berezirik jarraitu barik, jakin ala, edo agirietatik atara ala, edo ta paper eta liburuetan irakurriagaz batera, Gizaburuaga'ko jakingarri batzuk aitatuko doguz.

Uriolak.

Gitxien uste diranetan sortzen dira gure errialdean uriolak eta ekaitz ikaragarriak, eta urteetako lanak errekan bera tatarrez eroan, edo ta zutik egozanak beia jota itxi.

Labayru'ren istori zear onelako bat irakurten dogu:

1593'ko Irailla'ren seigarren eguna ja asiagaz batera, goizeko iru-retan, ekaitz bildurgarri bat sortu zan.

Eta...(beste askoren artean) Isuntza'ko zubia eta Ea'koa, eta Gabioletakoa, eta Lariz'koa, eta Arrangiz'koa, eta Bengolea'koa eta Olaeta'ko errotak eta Olaeta'ko zubiari gaiñeko arri guztiak tatarrez eroan eutsazan, eta beste errota asko eroan zitun, bai eta gari eta urun zorro ugari be, kutxa eta bestelako tresna ugari, eta Erreka'ko zubia, eta Zerella'koa, Okabio'koa...

(Labayru, Historia Gral. de Bizkaia, IV, 570 orr.)

Holandarren bildur.

1624. Urte onetan Bizkaia'n bildurrez bizi ziran, holandarrak Bizkai'ko portuetan sartu eta inguruetan erasoaldien batzuk egingo zituelakoan.

Erriak eta eleizateak batu ziran eta euretako gizonak gertu zituen, orretarako inguru bakoitzean kapitan bat aukeratuaz.

Inguru onetako eleizate eta uriak Antonio Adan de Yarza autu eben kapitantzat eta aren aginduen mertpe egon ziran.

Esku zabal.

Ba dirudi gizaburutarrak Lekeitio'ko parroikiko abadeekaz beti auzietan ibili ba ziran be, batez be XV eta XVI garren gizaldietan euki zituen goraberakaitik, jesuitak Lekeitio'n Konpañiako eleiza ornidu nai izan ebenean, esku zabaltasun ona billatu ebela inguruetan. Aldara nausia egiteko, eundak gaztain eta intxaur arbola batu zituen eta emontzaillien artean Amoroto, Gizaburuaga eta Aulesti'ko errepublikako baserritarrak aitatzen dira. Ori aldara nagusia egiteko.

Orrez gaiñera eleiz berbertako San Pedro'ren erretaula, Bengolea'ko Jose'k ordaindu eban, eta Koska'ko Estanislao deunaren medallioa Bengolea'ko Maria Teresa andreak.

Gora-bera gitxi.

Urtien urtetan, azken urte oneik kenduta, au da, gure gizaldi onetako berakada kenduta, Gizaburuaga'n gorabera gitxi irakurten da etxe eta familien artean.

1463 urteko datu batsutan irakurriko dogu, 20 "fogera" egozala eta autortzen ziran lagunen artean, edo autortzako adinean agozanak, 80 zirala.

1577'n, Kataliña deunaren parrokian sartzen ziran "fogera" 28 eta beste iru-laurdenoko bat ziran.

1704 urtean, 27 "fogera".

1795 urtean, 29 "fogera"r

Azken gizaldiko gerrak.

Lengo gizaldian asieratik azkenera gure lurraldeak ikusi zituen gerrateak, zorretan laga zituen inguruko erri txikiak eta era berean andiakr

Nai eta emen erri barruan kalterik gertatu ez, gaur batzuk eta biar besteak, euren gudarosteak zaindu eta jantzi ta alikatzeko, erriei illero-ko emon bearrak ezarten eutsezan.

Orrela gizaldiaren asierako amar urtetan, 1800/1810 bitartean, erantzun eziñiko zorrez bete ziran erri asko, eta eukezan mendi, lur, baso eta beste ondasunak salduz kittutu zituen orreitariko batzukr

Geienetan, zorrei erantzun al izateko, aurrez zentzoak artu zituen, denpora obeagoak etorriko ziralakoan, edo ta bein-beingoz amaituko ziralakoan, baiña azken baten ondasunak saltzera beartu ziran.

Ala, Gizaburuaga'k, 1810 urteko Azilla'ren 26'ean eta 1812 urteko Urtarrilla'ren 7'an, bere lurra saldu zituen ordurako eukazan zentzoetan eta etenkiñen ondorenez 26.204 belloiko errial ordaindu al izateko.

Saltze au egiteko Bizkaï'ko Aldundiaren baimena lortu bear izan eban.

"Kretari" aldiko urratsak.

Lurrizti edo geologian aitua, antxiñetatik asi eta lurra euki dauzan erasoaldi eta biurkerak aztertutean, Gizaburuaga'n "período cretáceo" edo Kretari aldiko urratsak billatzen ditue, Durango'tik Lekei-tio'rako bidean, Iparraldetik Egoaldera goazala.

Gizaburuaga'n, zeatz esanda, "Synastrea moenandra stricta" deitzen diran fosillak ezagutu izan ditue.

(Ramon Adan de Yarza, "Memorias de la Comisión del mapa geológico de España. Descripción física de la provincia de Vizcaya".)

Basabereen urratsak.

Bizkaia'n dagozan kobak ondo aztertu ezkeru, ziurretik Izadi Kon-

dairarako jakingarri litzakezan lau ankadun eta arrastakarien astarrenek lortuko litzakez.

Koba batzuen izenen artean Gizaburuaga'koak be aitatzten dira orretarako.

(Labayru, H.G. de B., 1-567 orrilaldetan.)

Lope Okamika = "Txope Bizkaitarra".

XV garren gizaldian, Teologi jakintzan entzutetsu zan abade bat egon zan, Gizaburuaga'ko Okamika'n jaioa. Okamika'ko Lopetzat eza-gutzen eben, eta Medina Sidonia'ko dukea Alemania'ko Kolonia'ra joan zan baten, 1462 urtean, beragaz eroan eban Lope au.

An ebillala bakartadeko fraile batzuk ikustean, ortarako deialdia igarri eban beragan eta euren jantzia artu eta ango Ana deunaren ize-neko ermita baten geratu zan eta alaxe iraun 27 urtetan, zintzotasun eta santutasun bidean.

70 urtedun zala il zan.

Gizaburuaga'ko burdiñak Ameriketara.

XVII garren gizaldiaren asieran, Indietako bidea edo ostera egiten eben itxasontziak Sevilla eta Cadiz eukezan euren urteera eta sarreretako portutzat.

Ara bialtzen ziran emendik Ereza eta Zubieta'ko burdiñoletan landutako burdiñak.

(Migel Bazterretxea'ren kartak)

Migel Bazterretxea au kapitana zan, eta Bengolea'n bizi zan, bertako Ursula'gaz ezkondata. Ursula au 1615'ko Urria'ren 25'an jaioa zan. Zortzi neba arreba izan ziran, zarrena Jose, kapitana. Ordukoak diñoenez, bere gauzetaz aiña arduratzen zan Bengolea'ko burdiño-laren ontasun alde.

Onein auzien artean batuta dakigu, aldi aretan, Gizaburuaga'n, korreoa, etxean batzen ebala Isabela Uriarte lekeitiarrak, eta gero Durango'n emon ango oizko bidazkariari. Eta ordu barik. Karta baten au irakurten da: "esta muger correo o correa anda de mala guisa y a las 8 de la noche me bino a dezir que mañana jueves quiere enbiar las cartas a Durango..r".

(J. Valle Lersundi: "Una familia de ferrones". Boletín Amigos del País. 1979.)

BASERRIEN ERRENTAK

ORAIN BERREUN URTE

1795 urteko errenta agerpenatetik, zeaztasun oneik atara doguz, aldi aretan errentariak eukezan etxeak ordaindu bearrez aurkitzen ziran errentei buruz.

Akuriola.

Jaubea: Egia familia.

Errentari: Pedro Goikoetxea eta Domingo Arostegi.

Errenta: 440 belloiko errial eta 16 anega gari.

Agirre.

Jaubea: Egia familia.

Errentari: Domingo Telleria.

Errenta: 220 belloiko errial eta 10 anega gari.

Amiax. Jaubea:

Egia familia.

Errentari: Domingo Goikoetxea. Errenta: 330 belloiko errial eta 8 anega gari.

Bengolea.

Jaubea: Egia familia. Errentari: Juan Kortabitarte. Errenta: 286 errial nelloiko eta 8 anega gari.

Biazkoetxea.

Jaubea: Egia familia. Errentari: Martin Kortabitarte.

Errenta: 168 belloiko errial eta 6 anega gari.

Eguen bekoa.

Jaubea: Egia familia. Errentari: Domingo Telleria. Errenta: 330 belloiko errial eta 12 anega gari.

Eguen goikoa.

Jaubea: Egia familia. Errentari: Jose Telleria eta Manuel Eguenr Errenta: 330 belloiko errial eta 12 anega gari.

Lariz Beaskoa.

Jaubea: Egia familia. Errentari: Jose Telleria. Errenta: 330 errial eta 6 anega garir

Laxiar goikoa.

Jaubea: Egia familia. Errentari: Simon eta Jose Telleria. Errenta: 440 belloiko errial eta 16 anega gari.

Laxiar bekoa.

Jaubea: Egia familia. Errentari: Pedro Bidain. Errenta: 308 belloiko errial eta 10 anega gari.

Lexardi. Jaubea:

Egia familia. Errentari: Domingo Telleria. Errenta: 198 belloiko errial eta 6 anega gari.

Okamika.

Jaubea: Egia familia. Errentari: Jose Goikoetxea. Errenta: 330 belloiko errial eta 6 anega gari.

Telleria.	Jaubea: Egia familia. Errentari: Bernardo Laka. Errenta: 154 belloiko errial eta 6 anega gari.
Bengola-errota.	Jaubea: Egia familia. Errentari: Franzisko Ugarriza. Errenta: 1200 belloiko errial. Gañera domeka eta jaietan Parrokira joan bearra, Bengola etxeari dagokiozan eskin-tzak (ofrendak) egitera.
Aguas pasadas errota.	Jaubea: Egia familia. Errentari: Franzisko Gojenola. Errenta: 1200 belloiko errial.
Errotatxu errota.	Jaubea: Egia familia. Errentari: Franzisko Mendieta. Errenta: 748 erria) belloiko.
Errota (gelditua) ta etxea.	Jaubea: Egia familia. Errentari: Iñazio Goitiz. Errenta: 110 belloiko errial.
Bengolea, ola bi.	Jaubea: Egia familia. Erabili: jaubeak.
Urrejola.	Jaubea: Lekeitio'ko Parrokia. Errentari: Antonio Bereziartu eta Bernardo Larrañaga. Errenta: 550 erria) belloi.
Uariz Gojeaskoa.	Jaubea: Lekeitio'ko Abade taldea. Errentari: Martin Bermesolo. Errenta: 440 erria) belloi.
Urgitxi errota.	Jaubea: Lekeitio'ko Abade taldea. Errentari: Domingo Lauzurika. Errenta: 418 erria) belloi.
Andra Mari Soloeta.	Jaubea: Maria Bizenta Barrenetxea, bilbotarra. Errentari: Juan Olabarria. Errenta: 100 belloiko errial eta 8 anega gari.
Lariz-Barrenetxea.	Jaubea: Jose Iñazio Unzeta, lekeitiarra. Errentari: Iñazio Ugarriza eta Martin Egiguren. Errenta: 814 belloiko errial.
Lariz Torretxe.	Jaubea: Jose Iñazio Unzeta Errentari: Margarita Iturgatxa. Errenta: Urtean 9 dukat.
Ereza.	Jaubea: Jose Ag. Ojangoiti. Errentari: Jose Gabiola. Errenta: 440 erria) belloiko, 4 anega gari eta anega bat arto.
Ereza, errota.	Jaubea: Jose Ag. Ojangoiti. Errentari: Iñazio Kortabitarte. Errenta: 440 erria) belloiko eta 5 anega gari.
Ereza, ola.	Jaubea: Antonio larza eta J. A. Ojangoiti. Eurak erabilten dabe.
Lariz, Errota.	Jaubea: Jose Antonio Goikolea, lekeitiarra. Errentari: Jose Ant. Eguren. Errenta: 825 belloiko errial.
Larizoleta.	Jaubea: Juan Ant. Goikolea. Errentari: Fran-

zisko Ibarquen. Errenta: 220 belloiko errial eta anega bi gari.

Gaiñera beste 8 anega gari Peñafiorida'ko kondeari.

"enfiteusi" lotueragaitik.

Larizoleta, ola.

Jaubea: Juan Ant. Goikolea. Berberak erabilten dau.

Landeta.

Jaubea: Jose Antonio Goikolea. Errentari: Martin Arritola. Errenta: 550 errial belloiko.

Oibar.

Jaubea: Zenarruza'ko Kolejiata. Errentari: Jose Bengoetxea. Errenta: 133 belloiko errial.

Gorostizu.

Jaubea: Baldespina'ko markesa, ermuarra. Errentari: Franzisko Telleria eta Jose A.Iza. Errenta: 418 belloiko errial.

Ugarriza.

Jaubea: Dgo. F. Ugarriza. Errentari: Agustin Garatear Errenta: 792 belloiko errial.

Gaiñera, etxeak eukazan gaztañadien ordez 22 errial urteko.

Jaube eta etxe erabiltzalle batera diran etxeak

Arrangiz.

Jaubea: I. Iza.

Goikoetxe.

Murelaga'ko Kofradian. Domingo Goikoetxea jaubea.

Goikoetxea.

Jaubea: Jose Goikoetxea.

Okamika.

Jaubea: Domingo Okamika.

Albinagorta.

Jaubea: Bartolome Malaxetxebarria.

Eguren erdiko.

Jaubea: Martin Goikoetxea.

Nai eta jaube eta etxe erabiltzaille bat ziranak etxe errentarik euki ez, erriko gorabera eta erantzun bearretarako, errentagarri bat baliatzen jakoen eta era onetara baliatu zitun orretarako aukeratu zan batzordeak:

Goikoetxe:

Urtean 52 belloiko dukat.

Goikoetxe:

Jose Goikoetxea'renari. 38 belloiko dukat, eta gaiñera, Mortara markesari, "enfiteusi" lotueraz 7 1/2 gari.

Okamika goiko.—

Urtean 60 belloiko dukat.

Albinagorta.

44 belloiko dukat urtean. Gaiñera Zenarruza'ko Kolegiatari "enfiteusi" lotueraz anega bi gari.

Eguren erdiko.

55 belloiko dukat urteko. Gaiñera, Peñafiorida'ko kondeari, 'enfiteusi" lotueraz anega bat eta laurden gari emoten eutsazan gari-tan.

Burdin olak.

Bengolea biak:

Ereza.

Larizoleta.


Lan egiten eben denporaldiaren arabera, urteko 40 belloiko dukat.

1400 belloiko errialetan.

1500 belloiko errialetan.

Jakingarria.— Errenten baliaketa oneik egiñarren, jakin erasoten zan, azken Dagonilla (Abustu)ko 8'tik asi eta urte onetako Otsaila'ren 8'ra, ez zala ezelako lanik egin ez eta burdin egiturarik lortu olaetan, arerioaren soldaduak inguruetan ebiltzalako eta erria urduri eta larri ikusten zalako.

Origaitik, lanik egin ez ebelako, irabazirik be ezin leporatu.



ANTZU ERROTA

ZENARRUZA'KO KANONIGOAK ETA EMENGO BASERRITARRAK

Inguru onetan artu-emon ugari euki eben Zenarruza'ko kanonigoak, baserri askotako kortak eta belardiak euren jaubetasunekoetan egiñak ziralako edo ta arein belardi eta "sel"ak ziranak, emengo baserriak alokatu zituelako.

Amoroto'n orrelako zerbait gertaten zan Olaran'go belardiagaz.

Lekeitio'ko erriak eta Amoroto'ko bizilagunak zazpi anega gariz ordaintzekotan artuta eukezan, eta errenta ori Lekeitio'ko erriak irutik birena ordaintzen eban urtero eta Amoroto'k beste zatiarena.

Txopite baserriak be urteko lau anega, amarrenak eta asikiñak ordaintzen eutsezan.

Bermeosolo baserriak be ba eukan lotueren bat.

Gizaburuaga'ri buruz, agerbide batzuk billatzen dira. Eta batzutan ez dira jakingo zeatz danak, emengoak zintzo egiten ba eutsezan euren ordainketak. Baiña emen eta beste errietan egon ziran ordainketa orreik ukatzen eutsezanak, eta areik auzi-bidez, eta naitaezko agindu eraginkorrak erabili zituen errietako eskribaduen bitartez eginda.

Orrela, Kolegiata'ko Artxibuetako bostgarren liburuan, ango kano-nigoak Iguarriza'ko San Juan eta Marina senar emaztien aurka eskatu-tako agindu eraginkorraren auzia agertzen da, urtero emon bearreko eben garia zorretan eukelako.

1608 urtekoa da eta 14 orrialdedun agiria gordeten da.

Bostgarren liburu berbertan, eta oraingotan zeaztu egiten da zorretan eukena urteko lau anega gari eta amarrenak eta asikiñak ziralara, beste indarrezko agindu eraginkorra irakurten da, Laziar'eko Domeka eta Maria Basabe'ren aurka.

Au be 1608 urtekoa da eta 35 orrialdedun agiria da.

Artxibuko seigarren liburuan, besteen artean agiri au dago: Zena-rruza'ko Kolejiata'ko Abata eta kanonigoen eskabidez, Laziar deiturako etxeko eta bertako jaube diran Domenga eta Santi bere semearen aur-kako indarrezko agindu eraginkorra, zorretan eukezan urteroko lau anega gari eskatzen.

1609 urtekoa da eta 3 orrialdeko agiria.

Zazpigarren liburuan beste au:

Zenarruza'ko Abata eta kanonigoen eskabidez, asierako auzi-eskaria egiten da, Albinagortako Juan'en aurka, urteko asikiñak zor eutsezalako.

Auzi au baserritar orrek 1612'ko Maiatzaren 27'ean Kolejiata'ra egin eban kartaren bidez.

30 orrialdeko agiria da.

Geroago, 163 eta 163 urtetan be agindu eragin inkorrak billatzen dira, oraingotan Juan eta Ana Ikastegi'koen aurka (Zenarruza'ko bizilagunak ziran),

Gizaburuaga'ko Oibar ermita eta ospitalari 15 errial zor eutsezalako, epea betetako erreditu lez.

21 foliodun agiria.

Amaseigarren liburuan, 1752'ko Abenduaren 7'an Kalagorri eta Kalzada'ko Obispadutzaro bikario nagusiak emondako baimena, Kolejiata aretako kanonigorik zarrenak Oibar'eko ermita ikusi eta bedeinkatu egian, Oibar'eko ermitaren patroitzza Kolejiata areri dagokiolako, Iñazio Villarreal de Berriz eta Iñazio Erkiaga kanonigoaren kontura barriztatu zalako ermita au. Erkiaga Kanonigoa izan zan ermita bedein-katzen etorri zana.

Sasoi bateko Zenarruza'ko kanonigoen gogortada oneik ez dira askorentzat arrigarri, kontuan eukita euren eskubideak atzeragoko denporetatik etozala, eta amarrenak eta asikiñak, urte batzuetan, base-riak ittota lagaten zituelako, oneik atzeratu egiten zirala ordainketetan, eta areik bildur zirala bateri ta besteri parkatzen asi ezkeru, ondasun guztiak bertan bera galduko zituela.



LARIZ AUZOA

GIZABURUAGA'KO ETXE ETA ONDASUN JAUBEAK 1824 urtean

Erraz igarten da lengo denporetan Gizaburuaga'n etxeak erabilleanen jaubetasuneko barik, ugazaben etxe eta ondasunak zirala.

Ara, ikusteko eta konturatzeko, 1824 urteko zerrenda:

Antonio Adan	Ezuneta baserria.
Agustin Jungitu	Ugaran.
Lekeitio'ko abadeak	Gojeaskoa etxea
Lekeitio'ko abadeak	Urgitxi errota.
Joakin Ojangoiti	Erezatorre.
Joakin Ojangoiti	Ereza errota.
Domingo Okamika.	Okamika goikoa.
Lekeitio'ko parrokia	Urrejola.
Juan J. Goikolea.	Landeta.
Juan J. Goikolea.	Lariz-Olaeta.
Juan J. Goikolea.	Lariz-Olatea errota.
Iñazio Itza.	Arrangiz.
Joakin Goikolea.	Goikoetxe.
Joakin Goikolea.	Okamika.
Ugarriza'ren semeak	Ugarriza.
Jose Malaxetxebarria	Albinagorta.
Jose Goikoetxea	Eguen erdikoa.
Baldespina Markesa	Gorostizu.
Santiago Unzeta	Lariz-Barrenetxea.
Madalena Kortabitarte	Goikoetxea.
Juan Jose Goikolea	Lariz-Olaeta burdiñola.
Maria Josefa Villarrea	Akuriola.
Maria Josefa Villarrea	Agirre.
Maria Josefa Villarrea	Amiax.
Maria Josefa Villarrea	Andramari Soloeta.
Maria Josefa Villarrea	Bengolatorre.
Maria Josefa Villarrea	Beaskoetxea.
Maria Josefa Villarrea	Eguen bekua.
Maria Josefa Villarrea	Ezuneta.
Maria Josefa Villarrea	Lariz Beaskoa.
Maria Josefa Villarrea	Laxier bekua.
Maria Josefa Villarrea	Laxier goikua.
Maria Josefa Villarrea	Lejardi.
Maria Josefa Villarrea	Okamika bekua.
Maria Josefa Villarrea	Telleria.
Maria Josefa Villarrea	Bengolea errota.
Maria Josefa Villarrea	Errotabarri.

María Josefa Villarreal
María Josefa Villarreal
María Josefa Villarreal
María Josefa Villarreal

Aguas pasadas.
Errotatxu.
Bengolea nausi, burdiñola.
Bengolea txiki, burdiñola.



FORU ZALE

Bizkai'ko eleizateak, uriei gain egin izan dautsie beti foru zaletasunean.

Txikiak izanarren, kementsu eta andi agertu izan dira orretan.

Bein, 1840'ko Bagilla (Ekainilla)ren 19'an, Bizkai'ko Aldundiak eskari bat bialdu eban Madrid'era, Bilbo'n Lenengo Epaikaritzza sailleko zan Antonio Maria Bárcena kanpora bialtzeko eskatzen, Burgos'ko Epaitegiko agindu edo erabagi bat bete eragiteko agindua emon ebalako, Aldundiko on ikusi barik.

Erregiñak, bizkaitarren eskabidea ontzat artu eta jaramon egin bearrean, aurka jokatu eban, eta zorrotz aginduz aurrerantzean Gubernuko lege, agindu eta dekretok bete eragiteko, ez egoteko Aldundiaren on ikusi edo baimenaren zain.

Lege ori Urtarrillaren 5'an agertu zan.

Bizkai'ko Aldundiak eskari bat bialdu eban uri eta eleizate guztietara, au da, Udaletxe eta Kontzeju guztietara, jakin eragiten berak ez ebala Gobernuaren Forurik aldatzeko eskubiderik ezagutzen, Gernika'ko Batzar Nagusien baiezpen barik.

Bereala erantzun eben alkaterik geienak Aldundiari jakin eragiten, bat batean beragaz egozala eta komeni ba zan foru interesak armekaz aldeztutea, gertu egozala orretarako.

Gernika'ko Artxiboan gordeten diran erantzunak, bost urietakoak dira:

Bermeo, Durango, Lekeitio, Markina eta Ondarroa; beste bost eleizatetakoak, Galdames, Gizaburuaga, Ispaster, Mendexa eta Zenarruza'koa; Karranza'koa eta Somorrostrokoa.

Ispaster Gizaburuaga, Amoroto eta Mendeja'k batera izenpetu eben lauren arteko agiria, 1845'ko Urtarrilla'ren 25'an, Ispaster'eko Udaletxean.

Ispaster'en izenean ango alkate zan Juan Dgo Atxabal'ek.

Amoroto'tik Antoryio Agirreoa, alkateak.

Gizaburuaga'tik Jose Agustin Itza, alkateak, eta Mendeja'tik, alkateak firmaten ez ekiala eta bere ordez bigarren alkate zan Jose Alza-ga'k egin eban.

Bergara'ko Itun eta Bakearen etsipena erakusten dabe. An euskaldunak emon eben berba ez betetea salatu, an euskaldun lez besteen berbeari fedea emon eutselako eta orain orren zapaltzea igarri. Alaz eta, nai ta oker urten, ez dira damutzen euren sinistearen jatortasunagaz. Besteak poztu beitez, euskaldunen fede on eta zintzotasuna jan dabelakoan. Euskaldunak ez dautse orretan jaramonik egingo, gauza andi, zintzo eta martzalak bakarrík egin eta gotatzera oituak diralako.



yL ↘ 1/7/ε¹ L 1(ε/ t r).-

i

^^ ^ / 111 1; 1!U"1 t :r'/j/ /c ..i./i./i^
%//_.../rr7anon //iirn'o/= ^ilir/n .7c fiL, //a

C/1_..._ oc hrrc.. /e c IC n 77/a. IC, '1a4 7.' :K. /1•/ialaa- !t?a q/,e./Y //

C/1/17.1, ; ; t ry1, '1.11/1 lrr' n Cn 1A' ^ix /% ^rlata.... /e,,,l",,,,,, 6^1 /i^!a, /./-
ettl:,,, fl / ; •• :ε¹ !P"/1"u ntr -'/lalrl.u.-' ,7fi,,./7 /C A^11 C√/1'7 e,
/2..js•nh•Y//ar ly./ /1v^lc r,; ;il l,,, /ct !^7/m liairn /., t^
r d^b2 •1; 11at., :• 1^1n. ai.h.; r^1 r^U/ A /r... ina /17 Lu. v7..,5.....

/e.^ /,rr,,, 4 !/, tr, :P //, 1'n1^.... /C ·iGr^r. ^.%llvrr, . n,
/,.,/.--, √n/6-L i.t. .///NtC !E-//. !/,r., u^• t /ri(/zy/14• (lr^m i' a-
.i.Y,n l1,1. //n,.._ "n1.7 /!n/▷ !7, .1;77 /119.;,,, ^ iT["...Δ., l,...,ε)
C /77,: b OC-·' /) /ifi, Qlllr•1•n "ian., O^r... i, #/1'n.(tn) !^! 1Gtio. ?
| /|C--. /1,ja-ly7/1 /167•a.l e,,, .. /l r^ . l n! ll. ^ ^jj^an nr ,a /,,,,,,,,. / . 4,,, /
G/-/n 1' 17,^ r r^l, h^ . ' ry /, ^ ^, /l, ^crm.. aiYn_zU. / . C n'n /r^' nlnr / ^ i^_7
./ /11 177(1,, " %/rtl•n . /, r7e , 71/71,,, -f/1, TAL=, _ /St.)_ j1 ti (ε- /... /...)...

198/17 = • °C.- //a.t'.s. • 7,,r ni, it, i ^...??

/11/ 5 !C_ /z h'ld/, ' n ni^.

no les invitaran en vida

6YYaG ir/, ^

A. r' u G r' / /7/071/,...

ir I^.. a aA/i. r4.n

~11/1, Cn " t,eL t7 2/.7/ i' . . i/r^ULC/ //1/,•0707.
/., ("9

/07r,A.r.,et'r'/, c.

!:

tr., /'ll nc7. r^, ^A

i3

^G/r% . . , ^:• /):IC_ ;/l. ^P/r,v-n IC. // i C:'11r. (•, 7,00'1/[.• //;".)

Encero de h. 31. 1.

(1

*Por el ofiel de Mendoga q
no sabe firmar aqui pongo
Jose Abaga*

Juan Domingo de Llanos

En amancie del fin p... a...

Ze, /' «rdIn ^C -VA

(...7,,37^4,7-1., c, cY^a, rrf

*Alma. Dignacion y Gal
del Sr. X. y Sr. L. Genovis de Macaya.*

BENGOLEA ETA I NGURUAK

Ipuin, kontu, amets?

Famili askok antxiñako urratsak billatu nai izaten dabez euren odolean.

Noizkoa eta da Bengolea? Noiztik ete dator etxe ori?

Amaikagarren gizalditik datorrela esaten dabe batzuk. Eta orretarako ziurtapentzat au agertzen dabe:

Castilla'ko Santxo bigarrenak Mandalbea'ko Santxo lagun izan ebala, eta kapitan ori Murelaga eta Arbazegi artean, Gazteburu tokian, errege arek frantzetarren aurka euki eban gudaketan egon zala.

Eta Mandalbea'ko Santxo ori ain adoretzu agertu zalako, erregeak bere senide bategaz ezkondu ebala. Eta Santxo au izan zala Bengolea etxea Aulesti'n sortu ebana.

Ori agertzean Labayru kondaira idazleak diño: Lurralde onetan famili asko dagoz antxiñako kontu eta ametsen artean nastauta ibilten diranak, sekula euki ez zituen gizonak artekotzat sartuaz.

(Historia General de Bizkaia, III, 563 orrialdean)

Pedro Bernardo Villarreal

Gizon au izan zan Bengolea'ri benetako bizia emon eutsana.

Pedro Bernardo Arrasate'n (Mondragoe'n) jaio zan 1670 urtean, eta Bengolea'ko Maria Ana Rosa'gaz ezkondu zan.

Itxasketa (Nautika)ko irakasle eta itxas ontzi egillea zan.

Lekeítio'ko alkate izatera eldu zan iru bidar.

II be Lekeitio'n, 71 urtedun, 1741 urtean.

Barrien barri jaso eban Bengolea etxea eta lantegi andiak egin bertako olaetan eta arrizko zubi gogor bat.

Lariz eta Beaskoa'k barriztu zitun.

Bengolea'ko ur errota egin eban.

Mendiak arbolaz bete zitun eta Bengolea'ko jaubetasunetan, 1729 urterarte, ogei eta amar milla (30.000) landare sartu zitun, eta esandako urtean laster sartzeko erako ogei ta bost milla (25.000) inguru ametz gertuta eukazan.

Berriz'en be egin zitun lan batzuk, ango burdiñola barriztu, lau milla landare sartu eta abar eta ango eleizako aldarak egiteko ainbat diru emon eban.

Etxegintzan be aitua izan zan, arkitektutza ikasten ibilia zalako, eta Arretxinaga'ko eleiza barriztutea pentsatu zanean, berak egindako etxe ingurua artu eben lenegotan, eleiza orreri bere irudi berezia emoteko.

Burdiñolak.

Gai onetan Pedro Bernardo de Villarreal dogu, inguru onetan, mai-

su, jakintsu, arduradun eta zaletasunez beteriko gizonik ezagunena.

Bere "Máquinas hidráulicas de molinos y herrerías y gobierno de los árboles y montes de Vizcaya", 1736 urtean agertu zana, erakusbi-de andiko izan zan.

Berak, antxiñako erabideari aurrerakuntza billatu nai izan eutsan.

Antxiña, burdiña egitean, olezko auspoak erabilten ziran edo ta narruzkoak.

Onein ordez, eta askoz be obeagotzat, aizearkak agertu ziran. Aizearkak, ura erabilten eben ontzi txikien bidez igituten ziran, erabilten ziran.

Burdin-oletan, batez besteko egitura, astean 43 kintal izaten zan, baiña Gizaburuaga'ko Bengolea'n neurri ori obetu egiten zan iru kintal-letan, emen erabilten ziran ontzi-txikidun aizearkaen bidez. Eta garai aretan, ainbeste lortzea, arrigarri zan askorentzat.

Burdin galdatzean, kintal bat burdin iortzeko, aritz, pago edo a rta egurretan lau karga ta erdi bear izaten ziran, eta gaztain egurra erabilten ba zan, bost karga egur.

Kintal bat burdin lortzeko, meaetzetako iru kintal bear izaten ziran.

Ba dirudi Gizaburuaga'n lau ola egon izan dirala urteen zear:

Bengolea'ko biak, Ereza eta Larizoleta.

Lau ola eta zazpi errota, gaur danak bea eta ondua jota. Ori da bat minduten dauana.

Bengolea inguruari barrero begiratuaz, gogoratu bearreko da, torre au Labayru'ren esanetan, birritan erre zala eta orrelako sute bat bertako jauna zan Lope Otxoa Bengolea'koa il zala.

Etxeak berak lengo itxura guztia galdu dau. Jabier Ibarrek be ori diño bere "Torres de Vizcaya" liburuan. Torre oneri gaur ez jakola geratzen gerrako itxura besterik.

Langilleen alogerak

Jakiña da Bengoleatarrak aberatsak zirala. Baiña eukiten zituen euren estualdiak be.

Torrean janari ugari gordeten eben urterako. Tonelada bat baiño geiago bakallautan, bestelako arrain gazitu, txarriki eta abar. Eta Ameriketako galeoiak ostera batetik bestera asko atzeratzen ziranez, dirurik ezagaz be aurkitzen ziran olakoetan, eta Lantegi barria egiten ebiltzaneke kontuetan irakurten danez, utsune orreitan bertan emoten eutsen jaten langillei aloger dirutarako premiña gitxiago eukiteko.

KOBA ETA ZULOAK

Mendietako koba eta zulo zaleentzat, ainbat zulo ezagutzen dira eleizate onetako lurretan.

Andiena, eta bear ba da, ezagunena eta ze aztertu geien euki leikena, Oibar'eko kobie deitzen dana, bere sarreran ur garbia agertzen dala gelditu bagako bidean.

Onelako gaietan aituak diranak ibiliak dira au ikusten eta or gelditzen dira liburuetan euren azterketak.

Ba dagoz beste batzuk Lariz inguruan. Zortzi zulo aiña zeaztuta dagoz eta 1959 urtean Bizkaiko Espeleologi taldekoak ibili ziran eurok ikusten Lariz'ko Juan Gabiola'k lagunduta.

Auñamendi deiturako Enciklopedian oneik agertzen dira, bakoitzaren zeaztasun laburrak emonaz:

- I.— Laiz aurrean, Lekeitio'tik Murelaga'rako bidearen eskumaldean, bidetik 5 metrotara, 50-51 kilometroen bitartean.
Egoera: 43.° 20' 25" eta 1.° 09' 19" I.G.C.ko mapaetan 0,4 metrotako aoa dauka eta erdi sarratuta dago laugarren aldiko geigarriekin.
- II.— I'tik amar metro sorkalderantz eta lengoaren parean.



AITZ ZULO KOBIA

- Egoera: 43.° 20' 25" eta 1.° 09' 19" I.G.C.ko mapaetan.
Aoa, 050 luze eta metro bat zabal.
- III.— Laiz II'koagandik metro batzuk sorkalderantz.
Egoera: 43.° 20' 25" eta 1.° 09'
Aoa 0,25 luze eta metro bat zabal.
- IV.— Laiz III'tik sorkaldera.
Egoera: 43.° 20' 25" eta 1r° 09' 22" tara.
Sarreran berantzako pendiza dauka eta aoak 0,50 luze eta 1,50 zabal.
- V.— Laiz IV'tik sorkaldera.
Egoera: 43.° 20' 25" eta 1.° 09' 28" tara.
Aoak 0,60 luze eta metro bi zabaleran, ia beteta, la itsututa.
- VI. — Egoera: 43.° 20' 25,5" eta 1.° 09' 28,1 "tara.
Aoak 0,6 luze eta metro bi zabaleran, gero galeri bat metrotara bide bitan luzatzen dana eta amar metro geroago amaitu.
- VII.— Laiz VI'tik 58 metrotara, oillotegi bat igarota.
Egoera: 43.° 20' 26" eta 1.° 09' 37" tara.
Pendiz baten sartzen da eta okerrunez betetako galeri estutzuk daukaz eta ur arka bitan amaitzen dira. Eremots Eremotes Spe bat agertu zan.
- VIII.— Azterreta mendian, Laiz VII'tik naiko urrun, Ipar-Sorkaldera.
43.° 19' 50" eta 1.° 09' I.G.C.ko mapaetan.

GIZABURUAGA'KO ETXEAK ETA EUREN JAKINGARRIAK

AGIRRE (Agarre)

1704 urteko errolltzean Domingo Uriarte zan jaube eta bertako bizilagun.

1745'n Montarron'go kondea.

1796'n Xabier M.Egia.

1863'n.— Herbias'ko kondea.

1987.— Bitoria Gabiola'ren izenean dago.

Pablo Okamika Gabiola eta emaztea bizi dira seme alabekaz.
15,5 Hektarea.

9 bei, 9 txal, 11 ardi, aari bat, 10 auntz eta 100 oillo daukez.

AKUIOLA (Akuriola)

1704 urtean Domingo Uriarte zan jaube eta bertan bizi. Lekeitio'ko Konpañiako Etxeari erosi eutsan.

1745'n, Monterron'go kondea zan jaube.

1796'n, Egia familia, Bilbo'n bizi zana.

1863'n, Herbias'ko kondea.

Gaur etxe bizitza bikoa da.

1987.— Anastasio Urrutibeaskoa'ren izenean dago bat. Bertan bizi da, bere alaba, seme, errain eta lobekaz.

15 Hektarea, 3 bei, 3 txal, 20 oillo eta abar.

Bestean Txomin Bengoetxea'ren izenean dagoz eskriturak eta arreba, emazte eta seme alaba eta onen ezkontide eta ondorenak bizi dira.

15 Hektarea, 2 bei, 8 txal, 16 ardi, aari bat 100 oillo eta abar.

ALBIN-ERROTA. (Albinagorta)

1704 urtean Jose A.Gareka zan jaube.

1745'n Juan I. Gareka.

1796'n, Bartolome Malaxetxebarria.

1863'n Juan Bta. Malaxetxebarria.

1860 inguruan erre egin zan.

1987r— Felix Intxausti da jaubea eta bere emazte eta seme alabekaz bizi da.

23 hektarea, 4 bei, 5 txal, untxi eta abarr

ANDRA MARI SOLOETA. (Andra Mari Laiz-oleta)

1745 urtean, Juan Zumategi zan jaube.

1795 urtean, Maria Barrenetxea.

1863'n, Herbias'ko kondea.

1987.— Joakin Juaristi eta Maria Zabala dira jaube eta seme alabekaz bizi dira.

11 hektarea, 9 bei, 6 txal, 15 ardi, aari bat, eta abar.

1982 urtean barriztatua da.

ARRANGIZ

1745 urtean Josefa Arrangiz zan jaube.

1796'n Iñazio Iza.

1863'n Jose Mari Itza.

1987.— Rufino Urrutibeaskoa eta Eustakia Iturraran dira jaubeak eta semeagaz bizi dira.

6,5 hektarea. Oraintsu barriztatua.

BEASKOETXEA (BIXKUA)

Len Lariz Beaskoetxea be deitzen zan.

1704 urtean Pedro Villarreal.

1745'n Monterrongo kondea.

1795 Egia familiarena.

1863'n Herbias'ko kondea.

Gaur etxe bizitarik ez dago. Sagardautegi biurtua da: "Gabi-ka"

Jaubea; Zabaleta Gabikago jeaskoa anaiak.

BEKETXE

Len Beaskoetxea etxetxua zan.

Maria Belen Arostegi Argoitia da jaube eta aste buruetan etorten dira.

4 bektarea.

BEREZIKUA

Lengo denporetan Ojangoititarren jaubetasunean egon zan.

1987.— Orain be jaubetasun orretan jarraitzen dau.

Bertan, errentari lez, Justo Alberdi eta Iñazio, neba arrebak bizi dira.

19 bektarea, 3 bei, txal bat, asto bat, 16 ardí, aari bat eta abar.

BENGOLA TORRE

1704 urtean Pedro Villarreal'ena.

1745'n, Monterron'go kondea.

1796'n Egia familiarena.

1863'n Maria Josefa Villarreal'ena.

1987.— Pilar Manso Zuñiga da jaube eta bertan bizi diranak, errentari lez, Bizente Arostegi, emaztea eta semeak.

Arma-arridun etxea da.

BENGOLA ERROTAK

Andi eta txikir

Errota eta olaetxe ospatsuak izan ziran.

Gaur utsik eta noiz jausiko.

EGUREN BEKO

1704 urtean Franzisko Goikolea Endeiza zan jauber

1745 urtean, Juan Bta. Goikolea.

1795'n, Egia familikoa.

1863'n Herbias'ko kondearena.

1987. Etxe bizitza bi dira.

Bata, Ana Mari Malaxetxebarria'ren jaubetasunean dagona. Peru (bañez de Aldekoa eta Lourdes Benedito bizi dira bertan. 8 hektarea.

Besteko jaubea Jose Ulazia da eta iru seme alabekin bizi da. 8 hektarea.

3 bei, txal bi, asto bat, 20 ardi, aari bat eta abar.

EGUREN ERDIKOA

1704 urtean Domingo Gojenola zan jaubea.

1745'n Paulo Mendieta.

1796'n Martin Goikoetxea.

1863'en J. Manuel Gabiola.

1987'n. Martin Mendazona Gabiola da jaubea eta Migel bere anaiagaz bizi da.

19 hektarea.

5 bei, iru txal.

ESUNETA

Batzutan Esuneta, edo Eguneta be agertzen da.

1704'n Franzisko Goikoetxea zan jaube.

1745'n Monterron kondearena.

1795'n Egia familikoa.

1863'en Hernias kondearena.

1987'n Migel Urrutia. Utsik dago. Aste buruetan etorten dira oraingoak.

7,3 hektarea.

ERREKA

Lengo denporetan Lariz-Olaeta lez ezagutzen zanr

1704 urtean Franzisko Adaza zan bertako jaube.

1745'n 1. Lariz abadea.

1824 urtean Juan Goikolea.

1987'n Julian eta Jose Plaza bizi dira bertan, eta Maria Begoña Zamora (alarguna eta etxe jaubea) eta onen semea.

1952 inguruan barrizatua da.

22 hektarea daukaz.

3 bei, 3 txal, 19 ardi, aari bat, asto bat eta abar.

EREZA TORREA

1704 eta 1745 urtean Pedro Madariaga agertzen da jaube lez.

1795 eta 1863'en Ojangoititarren eskuetan ezagutzen da.

1987.— Isidora Juaristi bizi da bertan, bere seme Jesus Zubillaga (eskriturak onen izenean dagoz), emazte eta seme bigaz.

4 hektarea.

EREZA ERROTA

1745'n errota lez agertzen da eta Pedro Madariaga bertako jaube.

1796 eta 1863'en Ojangoititarren eskuetan egon zan.

1987'n Alejandra Uberuaga da bere jaubea eta lñaki semeagaz bizi da bertan.

Orma baten au irakurten da:

Doña Maria Cruz
de Madariaga Reedi-
ficó esta Casa Año
de 1784.

Jakiña da Ereza torrea, errota eta ola, 1540 urtean Martin Ruiz Ereza'ren jaubetasuneko zirala. Ereza au Katalina Adan de Yarza eta Zubieta'gaz ezkondata egoan.

Ereza errotarren egaleko etxadietako baten, antxiñako olearen arlanduzko egala igarten da.

ERROTABARRI

Lengo denporetan Aranzibia Errota deitzen zanekoa da.

1746 urtean Egiatarren eskuetan egon zan.

1810 urtean M. Joseja Villarreal zan jaube.

1863'en Tomas Arano.

1987'n Ana Murga de jaubea.

Damiana Kortabitarte ama alarguna, Simon Eizagirre eta emaztea eta onein alaba, bai eta alaba dan Mari Pilar eta senarra eta onein seme bi bizi dira.

1/2 hektarea. 7 bei, 6 txal, beor bat eta abar.

1970 inguruarte, errota lanean ekiten eutsen.

ERROTATXU

Len Beaskoa lez be ezagutzen zan.

1796 urtean Egiatarren jaubetasunean ezagutzen zan.

Orain amabi urte itxi eutsen uruna egiteari.

1897.— Eugenio Plaza da jaubea. Bere arrebagaz bizi da.
3,5 hektarea.

GOIKOETXE

Zarra.

1704 urtean A. Goikoetxea zan jaube.

1745, 1795 eta 1863 urtetako errotzetan be Goikoetxeatarren jaubetasunean jarraitzen dau.

1987'n Joakin Goikoetxea agertzen da jaube lez.

Bertan, errentari lez, Pedro Goikoetxea eta Jabier bizi díra eta onen arreba eta senarra ta seme alaba bi.

15 hektarea.

10 bei, 12 txal, asto bat, 33 ardi eta abar.

Gizaburutarrak bertako etxerik zarrenetarikoentzat dauke.

GOIKOETXE

Etxebarri.

Joakin Goikoetxea Goikoetxea da jaube eta Pedro anaiagaz bizi da.

13 hektarea basoetan,

2 hektarea soloetan.

GOIKOETXEA

San Anton Kofradiakoa.

"Goikoetxea en Murelaga" irakurten da agiri batzutan.

Lurrez Gizaburuaga da; elizaz Aulesti'ko parrokiaren menpeko.

1704'n Gregorio Goxeaskoa zan jaube eta bertan bizi.

1741'n Juan Goikoetxea.

1796'en Domingo Goikoetxea.

1810'en 60 errialeko onura lortzen ebala urtean, ebatzi eutsen zergak ordaintzerakotan, eta beste burkada bi ikatz.

1824'n Jaubea: Joakin Goikoetxea eta 1863'en Jabier Goikoetxea.

1987'n Felix Gorostola Gandiaga'ren izenean dago. Eta beragaz Bitoriano Goikoetxea, Juan Jose Legarra eta Maria Antonia Gorostola senar emazteak, onen naba eta ezkontzako seme alaba bi bizi dira.

12,5 hektarear

Iru urte dira barriztu ebela.

GOITIZKO

Lariz Gojeaskoa deitzen zan len.

1704 urtean Arriaga'ren oiñordekoen izenean agertzen da.

1745 urtean Manuel Arriaga.

1796 urtean Lekeitio'ko Abade Taldea.

1824'n Santiago Unzeta agertzen da jaube.

1863 etxe bizitza bi daukaz. Bateko jaube J. Domingo Maruri eta beste Domingo Korta.

1987.— Bateko jaube Jose, Felix eta Juan Etxabe dira.

7 hektarea.

30 ardi, aari bi, untziak eta abar daukez.

Besteko jaube Migel Malaxetxebarria da.

6,5 hektarear

3 bei, 3 txal, 20 ardi, aari bat, untziak eta abar.

GOIZTU (GOROSTIKOA)

1704 urtean A.Zarauz zan jaube.

1745, 1796 eta 1863 urtetan Baldespina'ko markesa.

1987'n, Etxe bizitza baten jaube Arostegi-Murelaga neba arrebak dira.

4 hektarea.

Besteko jaube, Sorkunde Agirre.

5 hektarea.

IRUARRITZA

Batzutan Ugarritza, Egoarriza bestetan.

1704 urtean Iguarriza lez agertzen da eta Ind. Iguarriza bertako jaube.

1745'n, Eguarriza izenez. Jaubea Juan Eguarriza.

1796'n, Ugarriza izenez. Jaubea Francisco Ugarriza.

Orma baten au irakurten da:

Fran de

UGARRITZA

1778

1987.— Fernando eta Pedro Garatea'ren izenean dago jaubetasuna.

Ama alarguna eta nebak bizi dira eta oneitako baten ezkontide eta seme alabak.

Iturriza'k bere Bizkaiko Kondaira liburuan diño etxe au 1420 urtean jaso dala.

17 hektarea.

10 bei, 8 txal, asto bat, oilloak eta abar.

LAIZ

Gaur Laiz soil-soil ezagutzen dana, lengo denporetan Lariz Barrene-
txea zan.

1704 urtean saltzeko konkursora atarata eguan.

1745 urtean Inazio Loperena agertzen zan jaube lez.

1795'n Jose Iñazio Unzeta.

1816 urtean be Unzetatarren izenean egoan.

1863 urtean Antonio Ortiz Bustamante.

1987'n etxe bizitza bi dagoz.

Bat, Juan Gabiola eta Juan Imaz'en jaubetasunean eta euren alaba, eta onen senar eta semeagaz bizi dira.

5,5 hektarea.

20 ardi, aari bat, auntz bat, oilloteği bat bi milla oillogaz, eta abar.

Bestea Pedro Maguregi eta M.Mendiguren senar emazteak dira jaubeak.

6,5 hektarea.

LAIZ-OLETA

Lenago Laiz-Oleta'ko olea izanari deituten dautse gaur.

Lengo denporetan Goikoleatarren jaubetasuneko izan zan.

Len errota eta okindegia be erabili eben.

1987.— Maria Antonia Gorostiaga Unzueta'ren izenean dago jaubetasuna, alarguna da, eta Angel Onaindia semeagaz bizi da.

LAXIER BEKO

1704 urtean Laisier *emetikoa* deitzen eutsen.

Jaubea, J.B. Arespakotxaga.

1745'n Laixer Bekoa lez agertzen da eta Monterron'go kondea bertako jaube.

1796 urtean Egia familiko lez ikusten da.

1863'en Hervias'ko kondearena.

1987.— Luis Tellería da alderdi bateko jaube. 14 hektarea.

Mariana Juaristi, beste alderdiko jaube. 21 hektarea.

LAI Z-OLETA (GARAI XA)

Laiz-Oleta'ko garaixa zanean, orain, barriztuta, etxe bizitza bi dagoz.

Baten, Felipe Jaio Barinagarrementeria bizi da.

Bestean, Jose Mari Onaindia eta Pilar Urrutibeaskoa senar emazteak, eta iru seme-alaba.

Jaubea Maria Antonia Gorostiaga da.

LAIXIER GOIKO

1704 urtean Laxier Andikoa izenez irakurten da. Iñazio Asterrika zan jaubea.

1745'n Laixier goikoa lez dator. Jaubea Montarron'go kondea.

1796'en Egia familikoa.

1863'en Hervias'ko kondea.

1987'n Utsik. Etxe bizitza bi:
Bateko jaube Pedro Mendiguren.
21 hektarea.
Besteko jaube, Fakundo Intxausti.
15 hektarea.

LANDETA

1704 urtean Domingo Adaza zan jaube.
1745'n Iñazio Lariz, abadea.
1796 urtean I. Goikolea, lekeitiarra.
1863'en J.M. Ezpeleta.
1987.— Etxe bizitza bikoia.
Baten Benita Leniz Goikoetxea da jaube eta seme eta alaba ezkondu eta senar eta onein ume bi bizi dira.
12 hektarea.
5 bei, 2 txal, mando bat, 60 oillo, 38 ardi, aari bat eta abar.
Besteko jaube Maria Arritola da eta errentari lez Eugenio Arritola, emaztea eta alaba bizi dira.
14 hektarea.
Asto bi, 10 oillo, untxi eta abar.

LEJARDI

Batzutan Leizardi.
1704 urtean Pedro Villarreal'ena zan.
1745'n Monterron'go kondearena.
1795'n Egia familiarena.
1863'en Hervas'ko kondearena.
1987'n, Migel Angel Lauzirika da jaube eta beragaz Josune arreba eta Justo aita bizi dira.
3,5 hektarea.
4 bei, 4 txal, asto bat, 14 ardi, aari bat, untxiak eta abar.
Orma baten, bear ba da barriztatu eben urtetzat, 1745 ipinten dau.

OIBAR ETXEA

Aldi baten Zenarruza eta Kolejiata'ren eskuko izan zan bertako jaubetasuna. Ba dirudi Oibar'eko ermita ikusi eta ikertzen etorten ziran erromesentzako atsedeen toki eta ospital antzekoa izan zala.

1795 urtean Jose Bengoetxea agertzen da bertako errentari lez, Zenarruza'ko kanonigoei errenta ordaintzen.

Gaur Julio Barroso eta emazteak artuta dauke eta aste buruetan atsegin izaten dabe bertaratzea.



Lixiba egiteko arria.

OKAMIKA BEKUA

Okamika beaskoa be irakurten da.

1704 urtean P.B. Villarreal'ena lez agertzen da.

1745'n Monterron'go kondearena.

1796'en Egia familikoa.

1825'en Hervias kondearena.

1987.— Etxe bizitza bitan banatuta. Bateko jaube Jesus M. Arriaga da eta bere gurasoekin bertan bizi da.

3 hektarea lurretan.

Besteko jaube Jesus Zabala da. Eta errentari lez Iñazio Kalzakorta, emaztea eta iru seme alaba bizi dira.

4 hektarea lurretan.

Etxe aurrean lixiba egiteko arria dauke.

OKAMIKA GOIKUA

1704 urtean Pedro Okamika'ren izenean agertzen da.

1745 eta 1796'en Domingo Okamika'renean.

1863 urtean be Juan Jose Okamika.

Orma baten, karlisten gerrateko gertaera bat gogoratzen da: "Esta casa cuyo nombre Ocamica quemaron los cristinos año de 1836 y reedificó de nuevo Domingo de Ocamica en el año 1837".

1987.— Len etxe bizitza biko zan. Gaur "Okamika Industri aldea" bertan egiten asi ziranetik, baserria au be erakunde orrek erosita dauka.

TELLERIA

Etxe onen azterrenik ez da agertzen 1704 eta 1745'ko erroltzetan.

1796 urtean Egia familiko lez ezagutzen da.

1798'ko agiri baten esaten da, agindu egin ebela 1704'tik gerora egindako etheen erroltzea eta origaitik sartzen ebela, bertan diñonez, "casería titulada Telleria" au.

1863'en Hervias'ko kondearena lez agertzen da.

1922 urtean utsik geratu zan.

TXOPENE

Bengolea'ko lantegi eta erroten aurrean.

Ez da billatzen etxe onen agiririk.

Mansotarrena da. Utsik dago.

URKITXI (URKIETXE)

1704 'ko erroltzean ez da agertzen.

1745'n Manuel Arriaga agertzen da bertako jaube. 1795, 1824 eta 1863 urtetan, Lekeitio'ko Parrokiko Abadeena zala esaten da.

1987.— Jose Okamika eta Felisa Uraldek dauke bertako jaubetasuna.

6,5 hektarea.

Ganbarako gaillurrean XII agertzen da. Gizaldiaren ezaugarri ete?

Len errota eta argi indarra emoten zan bertatik.

URREJOLA

Etxe au ez da agertzen 1704 eta 1745 urtetako erroltzetan.

1798'n, erritarrak batzarrean batu ziran, agindua artu ebelako 1704'tik gerora egindako etxeak erroltzeko eta era onetan baliatuta: 15 dukatera elduten ez ba ziran urteko errentagaz, fogera laurden lez zeaztuteko, eta 30 tik gora, fogera osoa.

Etxe au Lekeitio'ko Parrokiaren jaubetasuneko zan eta Bernardo Larrañaga eta bere koñatu Jose Antonio bizi ziran bertan eta 30 dukat baiño errenta andiagoa euken.

1863 urtean, Herbias'ko kondea dauka jaubetzat.

1987.— Utsik dago.



Bengolea.



AGARRE



AKURIOLA



ALBIN-ERROTA



ANDRA MARI LAIZ OLETA



ARRANGIZ



BEREZIKUA



BENGOLA TORRE



BENGOLEA



BIXKUA



BEKETXE



EGUEN BEKO



EGUEN ERDIKO



ERETZA TORRE



ERETZA ERROTA



ERREKA



ESUNETA



ERROTATXU



ERROTA BARRI



GOIKOETXE



GOIKOETXE BARRI

San Anton.
Murelaga'koa,
baiña gizaburutarrak
etxekotzat daukena.
Len jai ospatuten zan
Urtarrilla'ren 17'an.
Letaniak be egiten ziran
Aulesti'tik bertora.
Berbetan atzeratu
datozan umeak eroaten
dituez bertara.



GOIKOETXEA Lurrez: **GIZABURUAGA**. Elizaz: AULESTIA.



GOITIZKO



GOROSTIKOA



IRUARRITZA



LAIZ



LAIZ OLETA



LAIXIER BEKO



LAIXIER GOIKO



LANDETA



LEJARDI



OKAMIKA BEKO



OKAMIKA GOIKO



OIBAR



TXOPENE



URGITXI



URREJOLA



ETXETXU-ABADE-ETXEA



TELLERIA



ETXE-ZAR



TABERNA ETXEA

OKAMIKA INDUSTRIALDEA

Gizaburuaga'ren etorkizun eta bizi barri?

Ala itxaroten da.

Ogei ta bi milla metro industrirako gertu dira, berrogei ta emeretzi metro lautuko poligonoaren barruan.

Bertan zortzi milla laureun eta amabi (8.412) metro lautuko etxadi bat egiña dago.

Asiera baten gertapen au 348 milloe peseta kostatu zan. Gero, industri barriak bertaratzean, premiñak eskatu ala lekua egokitzen joango da.

Gaur gaurkoz, oraindiño gertutako lantegiak, beste nunbaiten lanean diarduen baten toki aldaketaren zain dagoz.

Industrialde au Bizkai'ko Aldundiak gertua da, sortu leikezan erakunde barriei azpi-egitura egoki bat eskintzeko asmotan, eta batez be Lea-Artibai lurraldeari industrirako egokitasun bat emoteko itxaropenez, inguru oneri bere ondasunetan jasoaldi bat emon nairik.

1987'ko Maiatzaren 30'n inauguratu zan zokodi (poligono) onetako lenengo ekitaldia.

Jakiña da, eta emengo eskubiarraren aukerak argi erakusten dau ori, Gizaburuaga'k mesederik andiena eroango ba dau be, inguruko beste erriak, Amoroto, Murelaga, Munitibar eta abar izan leikezala atear emen billatu leikezanak.



yy
! i

81ZKAIKD FORU AIDUNDIA
EHONBMI-SUSTAPEN ETA
SAAAPENEAAÑO SAILA

DIPUTACIONFORAL DE VIZCAYA
DEPARTAMENTO DE PNBMOIWS T
DESARMO ECONDMICO

Okamikako Industrialdea




AURKIBIDEA

AMO ROTO

Orrialdea

Bertsoak	7
Deitura	9
Lekutzea eta beste goraberek.	11 -21
Amoroto eta oiñetxeak.....	22-24
Amoroto eta Batzar Nagusiak.	25-26
Ikastolak	27
Biarrari kantua.....	28-29
Kontu, kantu, lamin eta ipuin eta kobak.	29-36
Eleizbizitza, ingurua eta ermitak	37-45
Errotak.	46-49
Olak.	50-51
Baserrien jaubetasuna eta errentak	53-58
Auzoak eta auzoetako etxadiak	59-61
Etxerik etxe asterren batzuk artzen.....	62-83
Argazkiak etxerik etxe.	84-143
Lea inguruko bertsuak.....	144-145



GIZABURUAGA

Orrialdea

Bertsoak	148
Erriaren deitura	149-150
Lekutzea eta beste jakingarriak	151
Auzoz auzo	152-156
Zeaztasun batzuk	157-160
Mapa	161
Parrokia	162-164
Eleiz liburuak eta lengo oitura batzuk	165-168
Lenengo meza Gizaburuaga'n	169-172
Oibar'eko Andra Mari	173-177
Abade etxea	178-179
Jatorrizko etxeak	180-181
Udaletxe barria	182-183
Ezkondutxoak?	184
Au, ori ta bestea	185-187
Baserrien errentak orain berreun urte	188-191
Zenarruza'ko kanonigoak eta emengo baserritarrak ...	192-193
Gizaburuaga'ko etxe eta ondasun jaubeak urtean	194-195
Foru zale	196-198
Bengolea eta inguruak	199-200
Koba eta zuloak	201-202
Gizaburuaga'ko etxeak eta euren jakingarriak	203-213
Argazkiak Etxerik etxe	214-235
Okamika industria aldea	236-237

